

IPUIÑAK

Guentos Vascos

I P U I Ñ A K



I P U I Ñ A K

Por

RESURRECCIÓN MARIA DE AZKUE



EDITORIAL
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
BILBAO, 1968

© Editorial La Gran Enciclopedia Vasca - (Zalla-Vizcaya)

Depósito legal Bl: 1804-1968

GRAFICAS ELLACURIA - Buenos Aires, 13 - Bilbao



Itz-A urrea

OINDIÑO be, izkuntza asko dira munduan, len
geiago ziran, jakiña, aldiaren erdoiz ta errien za-
barkeriz asko itzali ta betiko ezkatuak dira-ta. Gerta-
kari au ezta nunbait arritzekoa. Ta gaur, ain zuzen,
arrisku geiagok gaukaz inguratuta: zenbat izkuntza da-
gozan gaur-egunean be —Europa'n, Asia'n, Afrika'n,
Ameriketan...— il-agiñik, arima ortzetan daukiela.

Oraiñaldian, iñoz baiño tresna ta tramankulu geiago
daukaguz giza-jakituria, ezaupideak eta aurrerakuntzak
bazterrik bazter zabaltzeko. Baita izkuntza batzuk in-
dardu ta lendik indar andi barik bizi diranak pikotara
jaurti ta beti-betikoz ondatzeko be. Irratia, ziñea, urruti-
-ikuskin edo telebixta ta olakoak, sekulakoak doguz gure
berezko gauzarik ederrenak goizetik gabera porrot egi-
ñik lurra joteko.

Guk geure izkera olan daukagu, ez ilgo bai ¿Igo. Ta guztion alegiña bear dau, ilgo ezpada. Gizaldiak zear, burruka ta ekiñaldi gogorra¿ eutsi bear izan dautse, bizirik irauteko. Ta aurrerantzean, zer? Urteetako eraso ta joaz nekatu ta auldurtk ez efe daukagu? Gaurko etsai ta arerioen aurka, garaille urtengo ete dau? Ez yako errez izango, guztion gogo ona ta alegin bizia ta gogotsua korapilloturik ezpada.

Ogei-ogetabost milla urfe, edo geiago, dira euskaldunok lur onia?i, euskal lurrean bizi gareala. Ez dakigu nundik etorriak garean. Baiña ¿zkuntza bai sortu eben gure aur'retikoak, emen edo ona etorr¿ baiño lenago,• ta izkuntza ortan^ minízaíu ziran, izkuníza ortan kantatu eben, izkuntza ortan alkar ulertu ta aitu ziran. Idafiziá ez euskuen gauza andirik itxi, 1545'garren aurretik beintzat; *kanta, bertso, atsotitz, arri&ako idazkun, illartitz eta antzekoak bakarrik. Orain milla urte edo gixiago istillu ikaragarriak eukiezan izkuntzak. Baso tringu baten lez, landararik onenak aurrea artu ta erkiñak atzera geratu bear. Orrela gertatu zan gure alberrietan, ots, Prantzia'n eta Espaiña'n be; indartsuenak zutik agertu ziran, erkiñak beti erkin.*

Erri bakotxa, egia esan, alegindu bear da bere izkuntzari indarra ezarten. Euskalduna beti izan ortan zabar samarra: len eta orain. Noz arte, baiña? Teknika, industri ta olakoetan abiada biziz goaz aurrera. Kultura kontuan, alan be, nagi agertzen gara, zori txarrez. Orain lareun urte, esaterako Axular^ek, bere «Gero» idatzi ebanean, negar egian euskaldunen ardurabakotasuna ikusiaz. Zergaitik? Literaturarik ez? Baiña erria euskeraz mintzatzen zan. Gaur-egunean literatura geiago daukagu, baiña baita negar egiteko zio ta motibu geiago

be: gure erriak erderaz diardu. Erbestetar asko bertoratu yakuz; ara ta ona gabiltz, eta espaiñeraz ta prantsasez ikasi dogu. Euskeraren balioaz konturatuz berau zaintzen kementsu, adoretzu ta gogotsu ez ba'diardugu, laster doakigu betiko errekarra.

Egia au be. Gure erriak len konturatu barik lez zaintzen eban bere ezpanetako izkuntza, euskera; gaur onen balioa, geure nortasuna, geure euskalduntasuna ta olakook, areik baiño obeto dakiguz. Eta konturatze ori guztiz mesedegarri da. Aurreko gizaldiaren amai alde-runtz, esate baterako, euskal arnasa ta gogoa illik lez aurkitzen ziran; eta orretzek ekarri oi dauz, ez dudarik izan, izkuntzaren nai beste edozein erri-gauzaren eriotza; txarra baita norbere kontzientzirik eza. Ortik eriotzara eztago oinkada labur bat baiño.

Baiña Kardabertz'ek onela iñoan: «Euskerak burua jasotzea, Jainkoak nai du». Ta Ak bialdu euskuzan gizon azkar bi erri-kontzientzi ori, urlope egoana ziuurrik, esnatu ta iixartzeko. Itxartze ori osotu ebenak Sabino Arana tu Azkue jauna izan ziran. XI X'garren azkene-runtz, euskaldunok, bai erri lez, bai izkuntza lez, ondamentdira giñoazan abiada ikaragarrian; eta beerunzko abiada orri esi sendoa jarri eutsenak, onetxek izan genduzan. Gerora egin diran lan guztien oiñarriak gizon biok jarriak ditugu. Au umeak be ba-dakie.

Garai atan euskal literatura gitxi egoan. Bidasoz undik «Eskualdunak» eta Donostia'n «Euskal-erria», besterik ez. Azkue'k, utsune au ikusirik eta euskera kultura izkuntza biurtu naian, 1897'ean «Euskalzale» sortu eban Bilbo'n, iru urtez irauin ebana. Ta Azkue'k ementxe ustu euskuzan bere literatura bitxirik ederrenak. Geroago be, ondo dakigunez, makiña bat gauza

eder osotu ebazan— baiña aldizkari onetan, asteroko onetan irauli eban bere arima artista, eder-zalea-, gozo ta bigun irauli be. Dala irakur gaietan, dala ipuin edo izkirimirietan, emen besteko errezlasunik, ugaritasunik eta bizitasunik ez euskun gerora sekula be erakutsi. Gaztetan, izan be, egin oi doguz sail berezi ortan lanik eder oparoenak.

«Euskalzale» albistaria erriarentzat zan, eta beraz errikoi, errez ta argi idatzi bear. Alantxe egin eban Azkue'k; ia beti agertzen yaku maixu; lan guztiak ainbat argitasunez orniduta agertzen ziran. Gure baserritarrek epanetan darabilen euskera gozo ia garbia, gozo ia garbi zegaitik zan erakutsi gura eutsen, zenbat eta ikasiago ta maiteago izan egien euren izkera.

Errez, ugari ta bizi idazten ebala esan dot. Eta olantxe da. Azkue edozein ipuinetan dogu artista, maixu. JJ garita sun e an batez be. Ez gero, garai atan batez be, inguruko izkuntzetan ekandua zan lango gainezkako ugaritasun» gogaikarriz. Azkue'ren ugari ta bizitasuna gaur-gaurkoa dozu; irakurri begipean daukazuzan ipuinok eta zeuk autortuko daustazu egia dala. Gerora, lan legorragoetan sartua ibilli jakulako, erkin eta elkorrago agertzen da, baiña ez garai atan. Azkue eder-zale zan, eta bide ortatik jokatu baleu, Txomin Agirre nai beste edozein nobelari baizen bikaiña izango yakun. Erriaren arima ta epanetan erabilen euskera inok baiño obeto ezagutzen ebazan, eta idazle batek, idazle on izateko, bere lanetan —nobela, irakurgai, ipuin ta ola-kotetan— erriaren arimea adierazo ta azaldu bear dau.

Ori ba-ezauan Azkue'k. Baita erriari zer atsegin yakon be. Erri zar guztiak ipuin-zale ditugu, edo izan dira. Euskaldunok ez gutxi. Ta Azkue'k be asterokoaren

orrialdeetan ipuiñak, izkirimiriak eta irakurgai labur-
rrak sartzen ebazan. Mañari'ko seme argi Kirikiño'k
geroago egin eban lez. Ipuinētan, barriz, irudimenari
eragin bear yako: Azkue etzan makala ortan. Irakur,
adibidez, esku arteko oneik, edo-ta albistari atan bertan
lenengo emonik, gero liburu txanbeliña osotu ta argitara
emon ebazan «Txirristadak», eta zeuk dakuskezu albe-
rriko edozein izkuntzakoena baizen ugaria, bizia ta ja-
torra zala aren irudimen-jolasa.

Antzak eta irudiak, guztiz errikoiak dira, gure ba-
serritarrak egunero darabillezanak. Ona argibide edo ere-
du bat «Simon arteza» deritxonetik artuta. Ipuin dana
da bizi-bizia. Senar-emazUai karta bat r.mon eutsien
Bartzelona'rako, ta an Zunzune.gi bizi zan zuzenbidea-
ren billa ebiltzala, Andresak'k zelan erabillen kaltea
adierazteko, una zein polito agertzen dauskun gure ba-
serritar muslariak kartakaz dagiena. «Baserriko agurak
—idazten dau— musean iñoz ikusi dabezanak badakie
txitean pitean kartai begira egoten direala. Mus ken-
duta gero, «andia enbido» esateko, lau kartak ikusen
dabez; «txikia paso» esateko bere bai, baita parerik dau-
ken ala eztauken esateko bere; paretara ioteko nai ez
ioteko bere ikusi, ta bardin iokoa dauken ala eztauken
esateko. Andresak onelantxe erabillen bat, baiña ez io-
koan egitekoa, eskutitza baiño: eskutik sakelera, sakele-
tik eskura».

Liburu edo ipuin-txorta ontan «Euskalzale» atan, iru
urtean, argitara emon ebazan ipuin batzuk baiño ez
doguz sartu. Geroago be, or-emen, ainbat onako erria-
ren agotik jaso ebazan: ikusi «Euskalerrriaren Yakin-
tza-n 24l'tik gora, erriz erri batu ta argitaratuak. An-
gorik ezta emen bat bera be sartu; ezta gerotxoago

«Ibaizabal-en argitaratu ebanik be. «Euskalzale-n emonak bakar-bakarrik. Eta an datozen lez, ezertxo be aldatu barik.

Euskaltzaindia berak sortu eban 1918'garren urtean; aurten, beraz, 50 urte. Ezpei izan omenaldirik txikerrena, urte betetze au dala-ta, Bilbo'ko euskaltzale batzuk ipuin-bilduma onekin eskiñi gura dautsoena. Gogo onezko eskintza samur biguna baita.

Larrea, 1968-VIII-5'an

AITA ONAINDIA

GABON-IPUINA

I

ORAIN urte asko, Kijristian eritxon gudari edo soldau
^^^ bat, guda askotan egonikoa ta euretariko baten
beso-bakoitz gelditua, Bakartegi (Monasterium(bate-
ko atarira ioan zan. Bakartegi aren orma ondakiñak
ikusten eidira gaur bere Eskandinabiako mendietako
edur-artean.

Bakartasuneko bakea nairik, atera urten eutsan
bakartarrari, etxe atantxe bizi izateko guraria erakutsi
eutsan.

Bertako nagosiak barruratu eban, da lenengo le-
nengotik izan zan bakartar beso-bakoitza beren bizi-
lagunen iolasgarri ta barregarria. Esangina, eroapen an-
dikoa ta berbetan aurrerea, toki askotako albistak iakin
eragiten eutsezan. Beren berbetea etzan izaten, baina,
bear zan baizen erazkoa garbia ta arteza; bein baino
sarriago mindu ebazan entzuleen belarriak; eta agaitik
nagosiak agiraka latza egin eutsan.

Kristianek apal entzun eban esan jakona; ta ga-
bon-arratsaldean sutondoan, ikusi, ta aratu ibiltan di-
rean umeak baino pozago gelditu zan, nagosian aotik
baserririk baserri amarren-bila ibili bear ebala iakin
ebanean.

Ibiltaldi baten, aintzira-urertzean mendi zorrotz edurtsu barrenean, arzulo edo koba bat aurkitu eban. Eguraldi txarrakaitik baserrietan ibili ezin zanean, koba-barruan zurezko tresnaren hatzuk egiten iardulen eban. Bein, auntz baten bernazakiaz berentzat beso-ordeko bat egiteko gogotan sartu zan; esku-orde ezpelezko mukur bat moldatuteko. Aurrerantzean ezkerreko sorbaldatik beera, igarri ezindako moduan eutsita, auntz-azurrezko besoa ta ezpel-zurezko eskua erabilten ebazan. Bakarkideak guztizko arrera ona egin eutsen, eurak legez beso-bikoitz ikusi ebenean.

Geroago ta sarriago egiten ebazan Kristianek ingurumari aretako ibillaldiak. Beren sakutoetan edurmata-sea legez iausten zirean parra parra eukitsuen ondasun-izkiak; eta ganera berak ian da edanala ogi ta ardao, edozein bizitokitan eskinten eutsezan. Bein baino sarriago eldu zan Bakartegira bear zan baino beranduago. Alako baten nagosiak arpegi itzalaz, «Kristian, esan eutsan: ik, dakustanez, beti egon gura dok sartu-barri, besteon antzera eskintzariak (*botoak*) egin baga; bada geroago ta okerrago akust.»

Kristianek, parka-eskatuaz, erdi-negarrez da bene benetan zuzenduko zaneko berbea emon eutsan; da barriro zamari bat lagun ebala eskean asi zan.

Egun baten, nunbait emon eutsen ardaoak bear zan baino gorago igon eutsanean, lagun askon erdian soldautzako eresi (kanta) bat garraizitu eban. Bakartegian barri au iakinaz batera, txantxana (aingerukanpea edo txiliña) nagosian aginduz io ta guztiak gela andian batu zirean: da, eritxi bardinaz, Kristian kanpora bota bear zala erabagi eben.

Kristianek ezeutsan arpegiari ziririk eragin, naibagezko epai au entzun ebanean. Biderik galdu barik

Elizara ioan zan, da Done Jertrudisen besoa egoan gor-
puzki-ontzi-aurrean belaunikaturik, arrenka edo erregu-
ka asi zan.

Gaberdi-inguruan, Bakartegiko nagosia Elizara ber-
tara arren egitera iatsi zan, da Kristian ezautu ebanean,
«Ene anaia, esan eutsan, ona emen ire zoriona. Iaun-
goikoan eritxia zirikatu bear dogu. Biar, gabon-eguna
dan aldetik, baldin oso osorik eta zintzo ondu nai badok,
izan leike zeruak igaitik mirari bat egitea.

—Orretarako, nire damua ta garbaia bear badira,
miraria lortuko da: erantzun eban Kristianek.

—Ona emen liburu bat, guk Erregentzat birregin
bear doguna. Ik gau bakar baten, laungoiko gizondua
jaio zan gabea, liburu eder au birregin (kopiau) al
badok, barrero Bakartegi onetan artuko augu.»

Kristianek, au entzueran, beren beso bakarrari
iausten itxita, larri larri nagosiari esan eutsan:

«Ene Aita, iru urtean ezin dan arloa ¿gau baten
zelan egingo dot?

—Bigarrenez dirauat. Iaungoikoan eritxia zirikatu
bear dogu. Benetan garbaatu ta damututa baago, ik
eurez ezin dauana, Berak mirari batez egingo iok.»

Kristian gaisoak, zerbait gogoratuten egonda gero,
onetara berba egin eutsan nagosiari:

«Onetarako gauza bat ogetalau ordutan euki gura
neuke.

—¿Zein da?

—Aor barruan dagoan Done Jertrudisen besoa.

—Tira bada.»

—Ator ona neure besoetara, gizagaiso ori; zeruak mirari andi bat egin dau eugaitik. Bakarkide guztiak, arrera ona eginaz, pozik laguntzat artuko abe.

—Nik orain, euk aginduriko saria bear dot; neuk neure berbea iagon dodanezkero, iagoik euk eurea.

—Pozarren. ¿Baina zein da?

—Gaurko egun guztian Done Jertrudisen besoa neugaz eukiko nebala agindu eustan.

—Ator neugaz altarraino ta an artuko dok, gizon zerutar barriraztu orrek.»

Kristianek atsegiñez artu eban zidarrezko ontzi Done Jertrudisen besoduna, ta ardura andiaz eroan eban bere koba itzalera. An, Iaungoikoari arren gartsu bat eginda gero, kendu eban sorbaldatik dingilizka eukan azurezko besoa; ta beren orde. Done Jertrudisena ipiñi eban. larri zan lankai-ganean, beste mutila noiz etorriko. Laster agertu zan au, gorritzko Jantzirik, sua ta barrea eriozala.

«Aurrera laguna, esan eban Satanasek.

—Begira nengoan, eu noiz agertuko. Badakik gero zein dan gure egiunea. Nekatuta, eiota, arikatuta nago; ta oratuidak ezkerreko esku onetatik, obeto ibili naitean.»

Deabruak, edurtzan erpe-markak itxirik eta iutika Kristianegana urreraturik, eskua luzatu eban, gizonari eusteko ustean; da aida bere-atantxe done Jertrudisen besoa, mailu baten gisan, gora ta bera asi zan, ukabilkada galantak Satanasi buruan emonaz.

«Praile buru-motza ¿niri au? ¿au da egitekoa?»

Deabrua berbetan da intzirika egoanarte guztian, Done Jertrudisen besoak, zein da burdin-oletan gelditu bagarik ibilten direan gabien antzera, io ta io buru guztia adar da guzti zatitu eutsan. Burruka onek gaberdirarte iraun eban. Txilin-otsen durundia il zanean, inguruko mendi-tontorretan txinpart andi gorri gorriak edurra urtu eben. Kristian, iluntasun andian bakarrik gelditu zanean, Bakartegirako igitu zan; itxi eban beren lekuan beso miraritsua, ta azurrezko besoa sorbaldatik bera ipiñita, besteakana ioan zan. Ezeban aurretzean Bakartegitik urten. Antxe il zan, arpegia bizar zuriz, gorputza tximurrez, da arimea zerurako irabaziz beterik.

13 MAI KIDE

\ / j AIKIDEA zer dan eztakianari berbatxu bi. Bikoi-tza da berba ori: lenengo atala edozeiñek dazau: *mai*. Bigarren atala ezta ain ezauna: *kide*. *I de* edo *kide*-k laguna esan gura dau. *Go galde*, *eskontide*, *oakide*, *bi-daide*^ *senide*^ *aide*, *adiskide* eta beste onako berba batzuetan ikusi leike. Maikide ta erderazko *comensal*, *commensal* bardiñak dira.

Au iakinik, esan daigun zerbait 13 orren ganean.

Iesus gure launa beren -amabi ikasiakaz azkanengo aparria egiteko iarri zanean, aretatik bata, ludas, iagi ta galdu zan. Ordutik eidator 13 mai baten iarten direanean, bat edo bat zoritxarrekotuko etedan askok izaten daben bildurra. ¿Ta nok esango leuke? Iudearrak eurak eidora bildurtienak.

Oraintxe ilebete-inguru Rotschild iudearran alaba bat, eizara ioan zan; da zaldi-ganean ebilela basurde batek itsu-mustuan urtenda, zaldia izututa, beren ganetik iausi, buruaz zugatz baten kontran ots andi bat artuta, bertatik il zan. Au iazoten zan bitartean, Valongo *Kondea* beste amairu lagunegaz (da geienak zirean iudearrak) maian zerbait iaten egoan. Rotschild-en alabea iausi zala iakin ebenean, euren artean egoan osagile bat ioan zan beragana. 13 maian gelditLi bear ebenean :a zan estulasuna! ja bildurra!

Elizeak galerezota daukaz onetariko txotxakeriak.

BELENGO LORATXUAK

|-<ELE]NGO atarira, Umea gurtutera ioan zirean artzainak, ez gaztae ta esnea bakarrik, baita loratxu batzuk bere Iesusi eskiñi eutsezan.

Eurak baino geroago eldu zirean Erregeak, guztiok dakigunez, eskinsaritzat urrea, intzentsoa ta mirrea ekarri ebezan.

Artzainak lenengotan ataritik kanpora lotsaz urten eban; gero, txoritsuak zorabiauta sugetzarren aora ioaten ehirean antzera, igarri barik barruratu zirean; da arako Erregeen eskinsari baliotsuak ikusi ebezenean, artzain batek lagunai esan eutsen:

«Orain Umeak eztau nai izango guk eskiñitako lorarik.»

Ezeban beste berbarik egiteko astirik izan. Umeak oiñaz askako zokondo baten urrea batuaz, eskua luzatuta, artzainak eskiñitako pitxilora-txorta bat artu eban, da ezpanetara eroanaz mun egin eutsan.

Ordurarte zuri utsak eizirean pitxiloraak, ordutik ona erdi-inguruan ori-gorri-une bat dauke, egun-sentiak udabarrian lakotxea, Ume-Iaungoikoan ezpanetako barre gozokoa.

URKIOLAKO IGARLEA

I

ZEBERIoTÍK URKIOLARA

\\^ OK eztaki, euskalduna danak beintzat, nok ezta-
ki Urkiola deritxon baso-elizatxoan nun dagoan?
¿Nok, euskeraz iakinezkeron, eztau iñoiz kanta edo ere-
si arako

Aita San Antonio
Urkiolakua
Askoren biotzeko
Santu debotua?

Euskaldunari Urkiola nun dagoan esatea, euskal-
dun ona eztala esatea da.

Ekarri beiez irakurleak euren gogora arako Anbo-
toko mendi entzutetsua, zaarren zaarraz burua murri-
tu ta daukan menditzarra. Ikusi beie gero euren gogo-
ko begiakaz Anboton atzean, beren sorbaldatik (burutik
ezin dabelako) Durango-aldera begira, Lekanda deri-
txon mendi ikusgarri bat, Gorbea andian betiko laguna.
Eta iru mendi onen begirakunaak alkar bat egiten da-
ben tokian, ikusi beie Elizatxu bat: itxastxoriak lango
zuria, antxiñako eremutarrak legez bakartua, arrano-
-antzeko aize-zalea, baserrietako neskatilak iai-egunetan
legez lau lau baina garbi ta polito apaindua; beren
teilatuko urak alde batetik Bizkaiko itxasora ta beste-
tik urr-arteke ixasora ioten dabela.

Onezkero batek baino geiagok esan izango dabe euren artean: (casko da; ez geiago ezer esan; orixe da Urkíola.»

Eta asko edo naikoa ezpalitz, ementxe banan banan agertuko neukez, baso-eliza orren magalpean bizi direan erriak: Durango, Zeanuri, Otxandio, Mondragon, Elorrio, Arabako *Villa Real* deritxon uria, erri oskoltxoak nora eztireala ¿baina zetarako aitatu?

Eztot gomuta zein urte zan; badakit, orregaitino, urte a dandarrez eroan eben odaiak, antxiña urtu lurrundu ta bigarrenez da eungarrenez odaituta dabilzana.

Urte atantxe Bagilak amabi eguneko bizi osasuntsua ta madaritsua eukala, Mainari ezkerreko aldean itxita gora ta gora ta gora, arnasa-oska, atsen emen da atsen or, Peru ta Maria, atso-aguratxuak, euren birloba bakar Antontxugaz ioazan.

Euron atzetik aldatzean zear asi-orduko, ondo izango da nortzuk zirean, nundik etozan, zetara ioazan da beste zer edo zertxu iakitea.

' Eurak eta euren aurretiko asabaak Zeberio-ingurukoak zirean. Peruk, lentxuago izan eban makalaldi baten, agintsari bat egin eutsan Urkialoko Done edo San Antoniori: emaztea ta Antontxu lagun artuta, beren Elizara ioango zala, baldin gaiso atatik osorik urteten baeban.

Osatu zanean, oso osorik egon ezarren, ezaban urrengo urterako itxi gura izan agintsaria betetea.

Txoriak txioka asi-orduko, koipatsua iaten iarduen Peru ta Mariak Antontxugaz, iai-eguneko iantzita, euren errana lagun ebela; ta eguzkia baino lenago eldu zirean atso-aguraak eta umea *Zeberio-gana* deritxon

mendi-ganera. Perun burutasun bategaitik bera ta bil-lobatxua bardin iantzita ioazan: kapela bat, atzetik goratua ta aurretik teilatu-antzera edatua; txilindun txupinak, kaltza odolezkoak deritxenak, garriko arrea ta abarka orratzetik arakoak. Biak eroen eskuman makila bana ta ezkerrean txartesa dingilizka. Maria gaurko edozein atso arratiar legez iantzirik egoan.

Goiz beranduan, amaikaak baino lentxuago, eldu zirean Ainibarro deritxon auzotegi batera. «Aup», deadar egin eban Peruk, eta errekarengo etxean sartuaz aemen gara gu. ¿Inor bizi da emen?»

Deadar onek suetean lo egoan txakurra irartzartu *then*. Txakurrak zaunkaka urten eban atarira, ta beren atzetik atso pipa-artzaila igar igar gor bat agertu zan.

—Aiko Peru Zeberio, esan eban Peru ikusitakoan. Ameneko Mari neure lobatxoa bere. Orra polito. ¿Zer dakazue?

—Tzekoa: sendo zagoz oindiokarren.

—Eztagoz etzean; solora ioan dira. Badakizue, ar-laiorran diardue-ta.

—¿Bizkor dagoz Beltxior da?

—Orain amaka ta erdiak edo... noz datozen ikusi ta... Euren etorrereak esango dau noz dan bazkalordua.

—¿Etzoaze bat ori bere Urkiolara?

—Nire kontuok o... Eguraldi ona dan guztian, ba-karrik ni ementxe, suari atxit egin da, ziri edo mara, neutzat bere beti dago zer-egina. Erdu, baia, aurrera. ¿Zer artuko dozue?

—Ur-ardao gozatua, besterik ez.

—¿Zer?

—Ura.

—¿Sua? ¿Zingiraren baten larrapast eginda iausi al zaree?»

Peruk eskuaz igarten emon bear izan eutsan egarri zireana.

Bake onean bazkalduta gero, Beltxiorrek lagun egin eutsen Zeanuriraino. An osterararte alkarri agur eginaz. gartzainadi baten sartu zirean atso-aguraak eta umea.

Mainariko erri eskola ikusi-aurretixuan, igaro bear eben aldatzean, Peru beranzko aldia gomuta ebala ioan: nekez, osta osta, ezin geiagoan, iru ilebete aurreragoko alborengoan pisua iaso eziñik. Maria, beren arpegi gartzaiña zimel-antzekoaz, ganeko gonea garrian batu ta eskontzaga zaneko gona gorri gorri bat agiri ebala, Ixaka txaka, etxe aldera doan idiskotxu bat legez, ebüen.

Antontxu barriz, Ixakurkumeak legez asi izanarren, gero unean unean itanduten eutsen batean Aitaitari, bestean Amamari «¿Non dago Urkiola? ¿Noz elduko gara Urkiolara?»

Azkanengo atsenaldian, munatxu baten iarrita egozala, Maria Peruntzako pipakadeari pauta pauta su emoten egoanartean, Antontxu ¡jume gaixoa! Amaman altzoan loak artu eban.

Senarrak pipakadea erre ta emazteak pipea ustu, pipontzian sartu ta pipontzi ta tunda ta arrat e)3a tutuloa sarpan edo barruko sakelean gorde ebazanean, Peruk, esku biakaz lurrean erdi sartuta eukan makilakontran burua ebala, arrain arrain da apal apal «gureak egin dau Mari», esan eutsan emazteari. «Peru Lariztarra, arean bere larrean gora karraka karraka erbi bat eskuakaz koixuriko Peru Lariztarra ¿Urkiolara ioateko oboen oboen, ezin igonik? Mari: gureak egin dau.

—Orrenbeste bere ez: baia ezkara, Peru, amazortzi urteko oilasko-oilandaak.

—¿Zetarako eregi eiedauez (au da barri barria), zetarako mendi-goren gorenetan baso-elizarik maitagarri ta zaletsuenak? *Asentsio* bat Zeberiokoa dagoala goi goian, inor eztoa ko¿íadeagana-ta. ¿Baia Urkiolako San Antonio? Beronek parkatu daidala; baia beratxoago balego, astean astean, esaterako, etorri leitez gure auzotegiko Pantxi ta bere. ¿Zetarako dagoz arranoen abiak legez goian olango Elizaak? ¿Inor ez ioateko ala?

—Ai Peru, Peru ¿eztok gomuta Abadeak sarri ta askotan esaten deuskuna? ¿Zerurako bidean aldats latzak eta pendizak eta pikeak dagozana? Baso-Elizaak, Peru, zerurako bidean dagoz. Ez artegatu; berantza gatozala atsedengo gara; onezkero laster izango aida. Urrengo pipakadea bertan. Tira: bat, bi, iru... aupa.»

Peru, agin meaztuen artetik barre zoragarri batek urteten eutsanartean, ceaup» erantzunaz, Mariak lagunduta, iagi zan.

II

Urkiolako elizondora eldu ziranean, Peruk makilea ta txartesa beera egon zanean, ((laztantxu, esan eutson umeari, tira ona».

Makarpetik oratu ta iasota eukala, giza-gaisoak orduantxe ezautu eban, ordurarte baiño obeto, besoetan baiño biotzean indar geiago eukana. Marik lagundu bear izan eutsan umea goratuta eukiten.

—Laztantxu: begiratu ara urrunera... gorago., goi goi goi goian dagoan mendiari.

—Onantza dator gorri bat, sutan. Ai! Polita da.

—Ori ez. ori odaia da. Beerago. ¿Zelan ezarri euskun abadeak biori autsa Elizan? ¿Eztakik? ¿Bekokian? Bada bekokian auts andia, geure ardiak eta bildotsak karraka datozeanean ataraten daben antzeko autsa, dauka mendi batek. Ekarri eskutxu ori. An. Axe da Gorbea. Ta beren bekokiko odai astun lur-zale inkakorrari, odai baldarra esaten dautse itxasaldean. Aren beetxoan dagoan mendi urten urten bati, auzoko Pantxin bekokia lango urtenari, Lekanda deritxo. Ta bien bitartean. Amamak artoa garanduteko ipinten dauen gisako altzo zabal zabala ¿eztakusk? Arrabako zelaia esaten iako. Zelai orretakoxe beratzetara etorten dira bedarra iatera San Lorentzo-egunean bei andi bi, Santoenak. Elizpetik. burdinzarea zurakaz estalduta, beste beirik ez legez igiten dira. Begiratu orain obeto. ¿Eztakusk Lekanda-barrenean etxe-aldra bat, atso-agurak pipakadaak erreten bailegoz lango lainotxoartean dagoana? Ainibarroko auzotegia da. Antxe bazkaldu dogu Beltxiorregaz da.

—¿Izeko gorra non dago bada?

—¿Izeko gorra? Lo, maitea; eguzkia ostendu da-ta. Laztintxu ¿eztakusk aor berberton mendi soil soil ori? Orixe da Anboto. Orretxen andiko aldean dago Durango, tronperria: erri ederra.

—¿Zeberio baino andiagoa?

—Bai.

—Amama: aiko sosoia kantetan. Sosoia gura dot. kolkoan eroango dot-eta». Au esanaz iatsi zan umea.

—Orrek etxakik, maitea, geure burdien txirrinken kanta motela baino besterik. Neuk erosiko ioat biar San Antonion kantea dakian sosoia. A izango dok mutila!»

Gero Elizan egotaldi eder bat egin eben. Zelan edo alan sartu zirean iluntzean, ostatur, Eliza-atzeko base-
rri-etxe baten.

Egun andietako aparia amaituteko eukela, Peruk, rxori-kerizea langoxe begi txiki txiki ta argiakaz, beren etxeko bei ardi ta bildotsen barri emon eutsen ostatu-koai; ta ganera otseinen izena, Zeberioko basoetako egur-muetaak, eta onen antzeko ezgauza asko iakin era-
gin eutsezan.

Umea bitartean loak ar^u eban. Mariak begiak txi-
lotuta eukazan; da arako etxekoak erdi-aspertuta ego-
zala igarri ebanean, «'tira, Peru, esan eutsan senarrari,
biar bere eguna dago. Berandu da. Umea loak artu dau.
Nik eztot Lrrun bekanekoa; eure begiak bere oera be-
gira dagoz. Tira, Peru.

—Ez bein, Antontxuk esan bear dauskuz gauza-
ak eta.

—Gero biar goizean Tx?t_xik ira tzar tuko gauz.

—Antonlxu, Antontxu: aiko emen soso kantaria.
Antontxu ¿zelan esaten dausk iri Aitaak?

—Laztantxu», erantzun eban umeak, kurtseluko
argi ketsuari arpegi emon eziñik.

—¿Zelan da, maitea, arako Peru ta Marian ipuiña;
sakristauak ikastetxean irakatsirikoa?

—Bein, munduan asko legez, Peru ta Maria bizi
zirean.

—¿Zer geiago?

—Peru ona zan; Maria, gaiztoa.

—Tira, naikoa da-ta, esan eban atsoak.

—Aurrera. Laztantxu. Orain doaz basora.

—Basora ioan zirean, da azpigarria kortarako egin euen, da txoritxu bat etorri zan kertz-adarrera, ta «ixio txio txio» egin euan.

—¿Zer esan eutsan Peruk?

—¿Zer gura dok, txoriíxoa?

—¿Eta txoriak?

—Txio, txio, txio, txio».

¿Zer esan eutsan Mari gaizíjok?

—Ken ken, barritsu ori.

—¿Eta txoriak?

—«Txio, txio, txio, txio».

—¿Zer egin euan orduan Mari gaiztoak?

—Arri andi bat artu...

-¿T a?

—Ta iaurti...

-¿T a?

—Ta buru buruan io...

—¿Ta. Laztantxu?

—Il», esatera ioiala, barriro loak artu eban Anton txu.

Iagi zan orduan Maria, umea besoetan ebalá; ta Peru bere iagt zan.

—*Gabon... gabon; ondo lo egin... bai zuek bere; gabon gabon* alkarri esanaz, bakoitxa bere etzatokira banatu zirean ostatukoak eta ostatuzkoak.

III

URRENGO GOIZEAN

Done Antoniok urtean urtean Urkiolako goialde ederra erakustera ekarten daben eguzki goiztarrak, leio-ko irrikietatik sartuaz, egun onak emon eutsezanean, Peru ta Maria ta Ánl'ontxu bigarrenez Elizaratu zirean.

Orduko, bideak betean etozan gizon da emakumaldrak andiak: Arabatik, Bizkaiko erri aldenduenetatik, eta Gipuzkoako alderdi askotatik bere, ezin banatuala.

An batu zirean txori-erritar kaliza nabardunak, Ondarroako itxasgizon lepo-zabal zarata-lagunak, Otxandioko errementari ardao zuri-zaleak, Lekeitioko nire asaben adiskide, torretxoriak legez *txo txo txo* Durangon zear igaro zireanak; Arratiako ule luzedun nekazale arto-ialeak; Ernani-aldeko sur-luze matrailagorri begi-zoli *izketa goxo goxoarekin* ALA JAIÑA ta ARRAIOAK EZPAITU ezpanetik dingilizka legez daukezan ibiltaunak. Erdaldunik etzan agiri. Augaitik orduko batzaldiak, gaurko batzaldi ta batzar geienen aldean, zeru-usainekoak irudien.

Meza nagosia asi baino ordu-erdi lenago sartu zirean Elizan Peru ta Maria ta Antontxu, ta ezeben aurreratzea damu izan. Amarretan txerpi edo azitegia baino zarratuago egozan Meza-entzuleak. Euren artean lapurrik bere ezin sartu eitekean.

Arrezkerokoak dira inolinakazko Mezatxuak. Orduan Abadinoko *sakristaua* (itaurrean ibilteko mutil galanta), beren nabarreko lagun batzukaz, zan Meza guztia kanta edo eresten ebana. ¡Arek zirean gedarrak eta arrantzaak! Peru ekanduta edo oituta egoan Elizan deadarrak entzuten, beren errian bere morrosko eder bat zan eresle edo kantaria-ta. A ta guzti bere. Mezea amaitu zanean, Mariari lenengo lenengo eurakaitik berba egin eutsan, esanaz: «¡Arranoa! ¡Mutilok-o bular sendoa dauke!»

Sermolaiari ezeutsan Peruk *ain ain ain zera* eritxi. Eztakit nik irakurle guztiak baetedakien zer esan gura daben onek. *Zera* esaten da miinak barbarik emon ezin dabenean; baita bildurrak edo lotseak edo aziera onak

miin-ganean dagozan berbaak iaten dabezanean bere. Peruri ostatuko senar-emazteak gora andia egin eutsen sermolariagaitik, edo askok esan oi dabenez, zeruetaraino ipiñi eben: Aramaioko semea zala, Elorrión egoala *benefisiau* edo orretariko, gizon argia zala, gizon laua, gizon prestua, Jangilea, Elizaz kanpotik guztizko barregarria; baina Elizan, bein irakastegira igonezkero, arriari bere negar eragingo leuskeona.

Eztautset baina irakurleai Perun berbaak iakiteko era ona galdu eragin nai.

Bazkaritarako iarri, ian-aurreko arrena edo eskaria egin, da gero Peruk,

—*Amio*: Urkiolatarrak zeuen Done Antoniogaz da baso-Elizeasaz da... arrotxuak beti izan zaree; baia zeri bere badaukazue —esan eban.

—¿Zer bada, Peru? —erantzun eutsan barrezka etxeko gizon gazte Elorrio-aldekoak.

—Geure aldean bere sakristau guztizkoa dago, baia... ¡Arranoa! ¿Eliza guztia beera eteiatorku?, esan deusat Mari gureari. Neu bere gaur ez, baia... arako... eskondu nintzan aldian... a... bular andikoa nintzan. Bada ¿Zeberion entzutea eukiko dozue? ¿Zelan ez? Bada Zeberioko Elizpetik —Elizpe ederra dago, Urkiolako onen aldean galanta Elizpea—, bada andixek santzo; ta gizona, aurreko mendian dagoan etzetik Marik entzuten euan nire santzoa. Baia *amio*: nire aldean bular ona, sendoa, ederra, indartsua dau emengo sakristauak. ¡A da mutila! ¿Elorriokoa eteda ori bere?

—Ori ez; ori Abadinoko sakristaua da. Ikaran deritxon etxeko semea, palankari andia.

—Agiri dau.

—Ta entzun dozue zelan eresten daben. Badaki berak bere. ¿Eta zer diraustazu sermolariagaitik?

—Gizon *majoa* ori bere. Baia ni, Elorrio, arteza naz, ardatza langoa la egi-zalea; ta ilteko nago, onezkeror ordua da-ta. Irurogeta amazazpi urte, gariak ereiten direan ilean, izan dodaz. ¿Gitxi deritxazue?

—¿Gitxi ostera? ¿Nok leukezan?

—Baia aurretik ¿ezta? izateko, izanda ez. Bada ilteko nago ta egia esan bear da. Aramaioko seme, zure erriko abade ori, gizon gajanta da, ta ederto egiten dau; egia da; baia ezta *ain ain ain zera*. Arrainena bere eztau esan-da. Urkiolako gauzak bai, ondo egon dira: emendik igaro zana ta barri guzti orrek zeatz da garbi garbi erakutsi dauz; baia ni beti lenera: arrainena, gizona, arrainena. Ta politena bera da. Ganera eztau esan non il zan bere.

—Bai, Peru.

—Ona, bada; estulaldi bat etorri iat eta orduantxe edo aren baten esan izango dau; ostean nik ikasteandirik eztot egin, baia... kontu nigaz. Ankak daukadaz indargatuta ¿baia burua ta begiak eta onek?»

Onetan orretan bazkari ederra ian eben, da biaoa deritxon bazkalosteko lotaldi eder bat egin ebenean, ostatukoa ordaindu ta bost edo seigarrenez Done Antoino ikustera ioan zirean.

IV

EZTABAIDEA

Arratsaldeko elizkizuna amaitu zanean, elizaurre aurrean asi zirean albokari bi, atabaldun bat lagun ebela, *Aita San Antonio-n* soñua ioten. Lastertxura urten

eben Elizatik dantza-tokira, lerro edo erreskada bitan, sei gizon andi baltzez iantziak, txapelak eskuetan ebezala.

Ordurarte alako gauzarik ikusi ezebenak, *San Antonio* Urkiolakoa bera etorrelakoan edo ekarrelakoan. buru-utsik egozan; da arako atzetik etorrena nor zan ikusi ebenean, purrustadaka ta barre-santzoka abia zirean.

Euretariko batek, atzeko aldean egoan mutil koskorlxu bati, itandu eutsan: «Aizak, gazte ¿nor dek, or bizi bizia datorren San Antonio aundi gizen ori?

—Abadinoko Piela da, erantzun eutsan mutuak.

—Erri, esan eutsen lenengoak lagunai: Abadinoko Apezpikua omendek; eskuan muin egin ziagun.»

Ain zuzen bere, Abadinoko bertakoak zirean Ernaitarren ondoan egozan gazte batzuk. Eta onen arteko batek, sendoenak, txapel txikiari bira osoa eragin, da ezkerreko belarria txapel-egalpean ebala, destainazko estul bat eginda, «Abadinon gero... (beste estul bat)... edozetarakoak dagoz.

—Bai Ernanin ere.

—Ezer nai izanezkero, lekutan zara guztiok.

—¿Baina ze uste dek ik? ¿Berreunen kontra lau astea?

—Etorri banan banan neugana, agiri zareenok.»

Bitartean besteak bere ezegozan isilik, Orduantxe, batak *ziri* ta besteak *mara* iarduenartean, iakin eikezan nortzuk zirean aldi atan Gipuzkoako ta Bizkaiko ukabilkari, makilari, palankari, pelotari, sermolari, santzolari ta koblakari entzutetsuenak. Gipuzkoatarrak bizkaitarra! *dxi dxa, dxi dxa, dxi dxa*; bizkaitarrak gipuzkoatarrak *ji ja, ji ja, ji ja* berba egiten ebela esan eutsen.

Arteratu zan onetan Píela bera; ta nekez, ur-txakuj asarratuak baino bere nekezago, banakatu edo berezi ebazan auskari ta destainariak.

Baketu baino gerotxuago, mutil sur-zapal, belarrietatik dingilizka keriza bikoitxak eukazan batek, keriza-azur bat atz-artean artuta, Ernanitar baten atzean isil isilik egoala, «azur azur» esan eutsan beren ezterriako mutiltxu bati.

—Mamin mamin, erantzun eutsan onek.

—¿Nori nori?

—Orretxeri.

Ta au esanaz mutil lotsa gaiztokoak, keriza-azurrari atz-artean laban eraginda, Ernanitarra belarri ertzean io eban. Asi zan Ernanitarra, io goiak eta io beak, bizkaitarrakaitik edozer esaten: asto batzuk zireala, ezetarako balio ezebenak, ustelak, baten kontra zazpi egonezik arpegi emoten ezebenak...

Baiarduan ak oraindiño bere, Markiñako kalean bertan asiriko gizon batek, besotik oratu eutsanean. Zarrata andi barik ioan zirean biak sasi-ondora.

Beste alde askotan bere ezegozan lo. Ezta makila guztiak bere ezegozan geldi. Lazka andiagorik egun argitan ezta sarri ikusten: bear bere ez.

Barriro sartu zan Piela euren artean; sartu zirean abadeak bere; ta Jaungoikoak dakian moduan, bigarrenez bakeak egin zirean.

Iarri zan Piela porkera-artean, Pielen ezker-eskumatarea abade batzuk; eta onen alboan, Elizatik buru-utsik urteniko sei gizatoak.

Sakristaua. Peru Zeberio goizeko murrusakaz arrituta eukana, zaragi-ondoan iarri zan, pitxar erdi-zuri erdi-ori andi bat eskuetan ebalá. Agertu zan ogeta iru

urte inguruko morrosko eder bat, ezkerrean txapela ta eskuman usaindun lora-bedar-txortea ebazala; urreratu zan porkera-ondora ta makur makur eginaz «Aurrekua» esan eutsan Pielari. Eta Pielak belarrira «gero, ondo egin gero; kanpotarrak bere badagozda» erantzunaz, asi zirean albokariak aureskurako soiñua ioten, aureskulariak emoniko mandatuari barre eginaz,

Gero iakin zanez, aureskulariak albokariari «luze ta oilar-auska ta guzti» esan eutsen.

Esan eikean aureskulariak beren oiñetan eukazala egun atan Anadino ta Bizkai guztiko izena batean, Gipuzkoako entzute ona bestean.

Guztiak egozan iñoizko aditasunik andienaz berari begira. Albokariak luzaro egon zirean asierakoa ioten; eta euren gogoa kontuan artu ta arpegiari begiratu-etzkerero, biri biak matraila biribil gorrietara putz egitera igon ebela esan eikean.

Aureskulariak lenengo dantzea amaitu ebanean, abadinotarrak ujuika edo lekaioka asi zirean. Urten eban sakristauak erdi erdira pitxarkada araaaz, da aureskularia edaten ipiñi ebanartean, txapela gona gora iaurtiaz «Eguzkian azpian dantzari oberik badago, datorrela», esan eban.

Eztabe zortzi-amar urteko mutuak, *komedianteren* batek erdira deitutakoan, urteten, Urnietako mutil lerdin lirain sotil batek, aupadea entzunda, urten eban baino ariñago.

V

ETORKIZUNA

Eguzkiaren azpian dantzari asko dira, esan eban Urnietarrak erdiratueran. Neronek egingo det naiz aureskua, naiz Bizkai-dantza, naiz ezpata-dantza; eta dirurik baldin badago, atera *señolea.*»

Aureskulariak taup taup eukan biotza, ankaak dart dart, begiak zabal zabalik, baina, biotzeko zauskadaren bat ikusi nairik legez, aurreko gauzarik ikusi eziñik.

Urnietarrak esaniko berbaak entzun ebazanean, lau arnasatan iru berba onek urten eutsen: *¿Dirurik euki ez?*

Beragaz batera beste berrogei gitxienez asi zirean deadarrez. Auresku-tokian bertan sartu zirean, uiolurak legez, gizon da emakuma, zaar da gazte, guztietariko lagunak.

Ango moltsoa, ta lazkea, ta nastea, ta zaparradea iruditu al izateko, nai-ta-nai-ezkoa da arrautzak iribiaten dagoan atso bat, edo bol bol bol dirakian lapiko edo eltze andi bat gogoratutea.

Orduan bere arteratu zirean Piela ta Abadeak *¿baina, nok an ezer entzun? ¿Nok inor ezautu? Igon eben urki-adarretara amalau urte inguruko mutil bardingoak, ta goizaldean txoriak legez —batak esan, da besteak barre—* iarduen.

Eldu zirean onako baten inguru ataraxe Peru ta Maria ta Antontxu. Umeak, ikusi ebazanean urkiadarretan dingilizka egozan mutuak, berak bere araxe ioau nai ebala esan eban. Peruk orduan «Laztantxu, esan eutsan: itzat geure besoak dozak adarrik onenak. Ator ona». Au esanaz oratu eutsan kaltzerpetik; eta Mariak eta berak eusten eutsela, beren sorbaldan iezarri eraginaz, «Ikusi ondo ta esan guri bere zer dagoan».

—«jEeeene! asi zan Antontxu: odoletan dago bat surretati. jEeeene! makilada bat artu deu buru buruen. Aiko an goizeko Abadea. Amama: atsoak bere alkar ioten dabilz.»

Peruk orduan albokoai itandu eutsen zegaitik iar-duen, arek burruka; eta egia iakin ebanean, urren zan otzara bat bekoz gora ipiñi ta beren ganeratuaz, asi zan agura gaisoa berba egin nairik, esku batean kapelea ta bestean txartesa ebazala. Uste uste barik otzareak oben egin eban, da Peru gizagaisoa dangino ta auspaz lurrera iausi zan.

Urki-adarretako mutuak au ikusi ebanean, igesi doan baten gisan, arin aringa iatsi, ta Peru inguraturera ioan zirean; eta lazkan ebilzan gizon-piloak, zer egoan ikustearren, euren aldraak meaztu ebezan.

Peruk buruko ariña baino besterik ezaban izan, da biren artean zutundu ebanean, negarra begietan ebalá, berba gomutagarri onek esan eutsezan ingurukoai:

1. «Gizonak ¿Zer da au? ¿Zer dala-ta diarduzue makilaka alkar austen? ¿Zer dozue, olanik asarraturik egoteko?

2. ¿Ama baten semeak zaree? ¿Zanetan erbesteko odola sartu iatzue?

3. Gazteak: entzun ilteko dagoan agura euskaldun, maite zauezan oni. Egi utsak urtengo dau nire aoti.

4. Zuen arerioa eda etsaia beste alde orretan dago; Gorbea baino arago bizi da.

5. Egunen baten etorriko da erdalduna geure artera: axe izango da gure arerioa.

6. Adiskideak, erritarrak, anajeak: alkar maite izan eizue. Gure Erri maite au, ezurteko sagarren antzera, arrak iota dago.

7. Iaungoikoan ordezko Buru bi daukaguz bizkaitarrak: Erroman bata, bestea gaur Erdalerrian.

8. Gure artean ezedodago berentzako emaztegei duinik. Erdalerrira ioan da ezkondutera-ta.

9. Zuek bere, Gipuzkoako euskaldun añaje maitagarriok, Napparroako Errege euskalduna itxi ta Burubila erbestera ioan zaree.

10. Etorriko iakuz agintaritzat gure odolik eztaukanak.

11. Euren eztabaida ta gora-berakaitik, zuen semeak euren odol garbia ezerezagaitik isurtera ioan bear izango daue.

12. Gure ekandu ta oitura ederrak eguzki bagako loraak izango dira: zimelak, usaingaak ta eldu baino lenago igartuak.

13. Beste bizikera bat, beste ekandu batzuk mendo, edo eztitu, edo txertatuko dabez gure Errian.

14. Gure berbeta gozo, bakar, zaar, santsu au beste berbetatxu nastau batzuk matasatu nai izango daue.

15. ¡Ardi gaisoai Azerikumai bularra emon bear izango dautsek.

16. Txakurren zaunkatzat entzunak izango dira gure esakeraak.

17. Eliza askotatik atarako daue, Iaungoikoan kontrakoa bailitzan, Iaungoikoak gizonai emondako euskera garbi, erru-bagea.

18. Guraso zaarrai suin-erran lotsa galdukoak legez, erbesteko berbetaak ikastetxeetako «ateak itxiko dautsez gureari: ta txakurren aurretik basakatua ibiltan dan antzera, basorik baso ibiliko da euskerea.

19. Eztau iñok esan al izango beren Errian bizi danik.

20. Ikastetxeetan bizi nai izango dau ta irri egingo dautse erdaldunak, irri euskaldunak eurak, irri euskaldunen Aita-ordeak.

21. Gurasoak: asizuez maiterik zeuen semeak.

22. ¿Zetarako? Urrunetara eroanda alperreria ta dongakeria ikasi daien, da onantzean ezautu eztaizuezan, da ezautu etzaiezan.

23. Erein gogoz artoa ta garia; sartu arduraz lurrean zugatz-landara emokorrak.

24. ¿Zetarako? Erbesteko patariak etorri ta irun-tsi daizuezan.

25. Gorde ondo, ta Elizako ke zuriz usainduizuez zeuen asabakandiko oitura ta izkunte maitagarriak.

26. ¿Zetarako? Erdalerritarrak euren gogo iluna zeuen ekanduak ilten argitu daien.

27. Pilotu pilotu, basoartean izerdian izerdiz egiñiko ondasunak; eta zeuen etxaguntzakaz batera eroan eizuez ibai-ondoetara uriak egiteko.

28. ¿Zetarako? Euretatik arrotzak erbesteko basamortuetara bultzaka bultzaka bota zaiezan, edo zeuen odol len garbia moroenaz nasta daizuen.

29. Gazteak: larogei urteko bizitza-goienera eldu dan aguratxu onek, igaroriko zelaian dakusazan atsegiñak baino atsakaba geiago dakusaz etorkizunekoan.

31. Legeak, erbestea ondatuta gero, Erri au ondatutera ekarrikoak izango dira.

32. Euskereak, bularretik dagoan emakuma erkin, zurbil, makar, gaisoki, mengel, laru, makal, argal argal argal bat irudi izango dau.

33. Laztantzua: ator ona, aingerutzua ori. Begiratu zerura.

34. Iaungoikoak, mendebalari putz eraginda, ekatx ondagarriren bat bialduten dauskunean, artu egin bear izaten dogu, atzera ezin bota izaten dalako.

35. Zerutiko naibage ta aísakabai arpegi ezin emon leioe; biotza emon bear iake, bertan barruan naikari ta atsegin biurtu daitezán.

36. Baia zerutikoak ezarren, lurrean erneriko zorrigatxak ostikopetu leikez.

37. Atzo erakutsi neuazán mendi orrek, eta Aizkorri, ta Oiz, da Urbasa, ta beste geure geure orrek, laztantzua neurea, etxeko txaltxua baizen maite izan eizak.

38. Euskaldunak. ¿Eta zuek alkar makilatu ta gorrotau ta il?

39. Bide batetik etorriak zaree, eguzki-bidetik; eta seiaska edo kuma baten aziak.

40. Odol bat daukazue, berbeta bat, Erri bat, Ama bat. Bera maite badozue, alkar maie izan eizue.

41. Zuen arerioa izango dana, mendi orren atzean bizi da.

42. Banoa ni neure gurasoen azurrakaz neureak bat egitera.

43. Zuen azurrak lurperatu dabezanean, eztaitezala gureak euren igeska asi. Agur.»

Berba onek entzueran, lenengotan irri-barrezka baziuk egonarren, geienak begi bustiakaz ikusi eben Peru igarlea, Antontxua ta Mariagaz urrunduten.

NI ENAZ ILGO...

i IRAINDINO urte asko eztala, Eskozian apezpiku edo Obispo bat ebilen beren Elizteria (Diócesis) ikusi ta aratuten. Baso baten ibili ta ibili galdu zan, da gautu zanean txabola bateko atean oles egin eban.

o

o

Emakuma batek zabaldu eutsan atea, ta gogo onez igitu eutsan aparti-izki bat. Apezpikuak umeai palagu bana eginda gero, emakumeari esan eutsan:

—Zuek, txarto zagozenik irudi ezarren, larri ta es-tualdiren baten zagozena agiri da.

—¿Egongo ezkara bada? Aita zaarra daukat erio-tzea bularrean dabela, ta ilgo dana siniztu nai ez-da. Eriotzea aitaturten iakan bakoitzean, «ni enaz ilgo» eran-tzuten dau.

—¿Ikusi daiket?

—Bai pozik».

Sartu zan Apezpikua gaisoen gelan, da asi iakon onei berba-erdiakaz osoa esaten.

Agureak, zetan iarduan aditu ebanean, al eban ado-rerik andienaz esan eutsan: *Ai enaz ilgo.*

—Baina, gizona ¿nok eztaki guztiok il bear dogu-na? Zure eri edo ondoez au, zeure urteen astuntasu-naz... a...

—Enazela ni ilgo; ezin izan leike-ta.»

Ezekian Elizgizon iakintsu ak agurea zelan zuritu.
Orduan onek esan eutsan: *¿Katolikoa zara?*

—Bai, gizona.

—Orretaraezkero, oraintxe iakingo dozu zegaitik ilgo enazan. Ni *katolikoa*. Lenengoz launartutera (komulgatera) ioan nintzanetik ona, beti izan naz Ama Birjina guztiz donearen gogokoa edo zalea. Egunean egunean eskatu dausat enaiala abade barik ilten itxi. Ta *katolikoa* bazara *¿*uste dozu, Ama samur onek ezlaustala entzun izango? *Ni enaz ilgo.*»

Iagi zan orduan arrituta Apezpikua, ta kolkotik kurrutze eder bat atarauaz, «egia da, ene semea, esan eutsan. Ezaz ilgo, abade barik. Ona emen Andra Mariak bialdu nai izan dautsun abadea. Elizteri onetakoxe Apezpikua naz.»

Au entzueran, agura gaisotua asi zan pozezko negarretan Andra Marian izena goratuten. Autortu eutsazan Apezpikuari beren bizitza guztiko uts egitetxuak; eta txabola txiki atatik zeruko lauregi ederrera ioan zan beren arimea.

Guztiok, Andra Marian bitartez, izan daigula erioztako orduan laguntasun bardiña.

ZERUTARTUA

/ ESAREO eritxon eskutizketari (eskritore) batek diñoanez, Zister-ko Bakartegian bizi zan, zeruko Erregina guztiz maite eban bat. Beren arren edo eskari gartsuetan, sarri erakutsi eban Andra Maria ikusteko gogoia ta gutarra.

Gau baten baratz edo ortura urtenda, zerura begira sarri legez inkesaka edo zispuruka egoala, uste uste barrik agertu iakon emakuma argitsu ta ikusgarri bat, esanaz: «Tomas ¿zelan eresten dakidan entzun nai dok?» Baietz erantzun eutsanean, asi zan eresi edo kantuan emakuma agertua; ta Tomasek zeruan egoala uste eban, ;ain zan bigun, gozo ta eztizkoa, berak entzuniko eresia! Eresia amaituta batera, ostendu edo ezkuta zan.

Nor etezan iakiteko gurariaz egoala, agertu iakon Bakartarrari beste emakuma bat, lengoa baizen argitsua ta ikusgarria; ta au bere eresten asi zan. Beren atsegina euki eziñik, nor zan itandu eutsan Elizgizonak.

«Lengoa Katalina izan da, ni Inés naz; bata ta beste gu gara Iesusegaitik odola emonak, eta zeu atsegindutera Andra Mariak bialduak. Eskerrak emoizak, da igitu Ia ingira ai mesede andiago bat artuteko.» Au esanaz ostendu zan au bere.

Geratu 2an Bakartarra Andra Maria ikusteko len baino bere gutar andiangoaz da inkesaka, bularra geldi euki eziñik.

Lastertxura argitasun bizi bizi bat ikusiaz batera ta oska oska biotza eukala, laungoikoan Ama bera, ain-geruz ingurutua, lengo emakuma biak baino ezin esan-alako argitasun andiangoaz, agertu iakon, esanaz: «Neure laztana, maite naualako pozik naukak, eta ire guraria egin nai. izan ioat. Ikusi naik. Entzuik nire eresia bere.»

Asi iakon zeruko eseri ederrak entzun eragiten; da Bakartar zorionekoa atsegiñen atseginaz adorebagatu ta 3urreratu zan.

IPUIN POLIT BAT

l-< ILDOTS bat egoan bein beeka, miñak eta naiba-geak eroan eziñik: deskeila zan.

—Neure bildots maitea, erantzun izan iakon: badakust eure burua gordeteko gordegarri gitxiegiatz egiñikoa azana. Bidebagakotasun au ondo izango da zelan-bait ondutea. ¿Gura dok oiñetan erpeak eta aoan agin gogor triskatekoak euki?

—Ez, erantzun eban bildotsak: eztot nik izan nai abere odol-zaleen antzekoa.

—¿Nai dok eure aginpean *merenoa* euki?

—Ez, merenodun abereak iguingarriak dira-ta.

—¿Zer gura dok bada? Adarrak bekokian eta sorburuan indar geiago ipiñiko dauadaz, nai izanezkero.

—Ez olakorik, Aita; bada orretara-ezkero akerra baino auskariagoa izango nintzake.

—Baina besteak kalterik ez egitea nai badok, euk bere kalte egin al izatea nai-ta-ezkoa da.

—Ori olan bada, esan eban bildotsak inkesaka edo zizpuruka, itxi naizu, ene Aita ona, nazan langoxea; bada kalte egin al izateak kalte eragiten dau. Zuk ona ta otzana egin nozu, ta naiago dot ona nazala il, dongea nazala bizi baino.

IPUIN ANTZEKO GERTAEREA

i 1 ROZKOAR neskatila bat egoan, oraintxe ogei urte-inguru Portugaleteko urian, geure adiskide batzun etxean otsein.

Gizon bat ebilen uri alantxe kalerik kale, besapean kaiola andi bat ebalá. Kaiolan kanario batzuk eukazan, ondo menduta eurak. Txoritxuak umetatik ekarren, Ugazabak esaeran, kaiolatik papertxu batzuk musturrean edo mokoan edo pikoan atara, ta Ugazabari eskura emoteko mendua.

Orozkoar neskatileak, beste asko legez, kaiolara urreratu zanean, ikusi eban, txoriak atarariko paperetan % lantzean bati esaten iakala: zaartzarorarte ilgo etzana... zorioneko izan bear ebana... seme-alaba galantak ezautuko ebazana... ta onelango *igarkizun* (?) batzuk. Atara eban sakeletik zortzi maraiko diru bat, eta kaiola-iaubeari emonaz, aoa zabalik egoan txoriai begira.

Que salga Garibaldi, esan eban txoridunak. Garibaldi-n izeneko txoriak papera Ugazaban eskuetan ipiñi ebanean, asi zan au esaten:

El Horóscopo te anuncia...

Neskatileak orduan: ((Ene, esan eban, zorginak dabilz. Igarri egin dau. OROZKOKOA nazala dino.)) Ta ikaratuta arin aringa etxera ioan zan neska papaua.

GERTAERA ANTZEKO IPUÏÑA

A STEGUN baten Meza-bitartean, Mezea erazofen egoan mutiltxuari gurari bat agertu iakon, nai-ta naiezkoa ta leku ezkuluetan izan ezik egin ezin leikeana. Abadea altaran isteko egoala, beste mutiltxu, bat ebilen, gaztetxuagoa, batera ta bestera, altarak ikusten.

Meza-mutilak beste oni zinuz beragana deituta, beren lekuan belauniko gelditu eragin eutsan. Urten eban mutuak Elizatik, *Aitearen* egiteko bere asti barik. Abadeak arik lastertxura, *Dominus vobiscum* esan eban. Mutiltxua abadeari arpegira begira isilik egoan. *Dominus vobiscum* abadeak bigarreanean, da mutila isilik. Irugarreanean mutilari begira abadeak *Dominus vobiscum* esan ebanean, mutuak «*Dominus vobiscum* tripalakaz kalera ioan da» erantzun eban.

URTE BARRI EGUN BAT ERROMAN

I

i ETARA doaz orrenbeste mando-burdi, zetara orrenbeste zaldizko ta oinezko, zetara agura ta ume, gizon da emakuma, aberats ta txiro begien aurrean daukagun enparantza andi orretara? ¿Zetarakoa da enparantza ori? ¿Nor da mando-burdi eder orretan zutunik doan gizon lodi ori, buruan erinotzezko aroa ta eskue-tan makila-ertzean oilar-irudia daroazan ori?

Itandu eutsan ume ezer ikusiriko batek, asko ikusiriko agura bati. Eta agureak:

Burdi orretan doana *Alipius* da, Erromako uri-zaina. Enparantza andi orrek *Coliseum* dau izena: erio-tzea bizi da bertan. Gizon onek orrako dauken poza, bageuka zerurako lurrean bizi gareanok, bati bere elitza-kiguz goiko ate arek zarratuko. Goazan barrura.

II

¿Nontzakoa da an gure aurrean dagoan iarleku urrez apaindua?

—Alipius-entzakoa.

—;Ene! ;Au zaratea! ¡Au azkortasuna! ¿Zoratuta aldagoz gizon guzti onek? ¿Nortzuk dira burdinaz ian-

tzirik eta ezpataak eskuetan dabezala agertu direan morrosko orrek?

—Ezpatariak, Erromarren berbetan *gladiatores*.

—¿Zetara datoz?

—Alkar iltera ta alkar ilaz Erromar odol-zale onen biotzak atsegiñez betetera.

—;Nor eteda orra beera iatsi dan buru-murritu, zorroz iantziriko gizon itzal, zerbait esan nairik edo esaten. ezpanak alkar ioten darabilzan-ori?

—Eriotza gogorrek begiz iota daukan zorionekoren liat.

—¿Zer da esku-artearen darabilen makila bikotxa?

—Lurrari zerua edegiriko kurutze agurgarriaren irudia.

—¡Ene! ¿Zegaitik inguratu dabe gizon ori ezpatariak, il gura baileben? ¿Ezer esan aldau? ¿Zer dala-ta txingorra legez asi iakaz iolastegi onetako ikusleak. iarri-lekuetatik arriak atara ta gizon orri iaartigiten?

—Zeruko mandatua dakarrelako. ¡Issssss! Berbetan asi-da-ta.

—¿Zer dino berorren erdera bastoan erdaldun orrek?

—Entzun ondo. «Ase zaitzeze bein edo bein gizon-ilten ikusteaz. Gaur zortzi gomutan izan dogu, egiazko laungoikoa ezautu ta gurtuten dogunok, beren Semea lurrerau ta gugaitik iaio zan eguna. Ezeikeozuez emon deabruari berak zerutiko odol baliotsuaz garbituriko arimak.»

III

¿Nona da or lau gizonek lepoan daroen gorputza?

—Ezta gorputza, gorpua baino; atzo enparantzan agertu zan-kurutzedunaren gorpua. Eguzki-aldetik etorririko bakartarra izan eida.

Telemakos eida u izena ta G-reziarren berbetan *gudai amaia emoten dautsena* esan gura dau. *Honorius* agintariak ezpatarien guda edo alkar-ilteak aurrerantzerako debekau eidauz. Ezpatarien odol-usaina leoi-entzat eta Erromarrentzat baino eztitsuagoa da zerutarrentzat iolastegi orretan Iesusegaitik il direanena.

APELES-EN ATZETIKOAK EUSKALERRIAN

H RDALERRIETAN, euskaldunen izena gitxi edo asko zabaldua dagoan errietan, pelotaritzat, probalari edo indarketaritzat, argin ontzat, itxasgizon erri-metzat... berba baten indartsutzat eta langiletzat gaukez, mendi eder onen artean ta azi gareanok.

Bestelako arazoetan barriz ezkauez iñoiz aintzat artu.

Itxi daiguzan aitatu barik beste gauza asko, ta aita-tu daigun bakar bakarrik *pintore* edo antzetzarien arazo ederra.

Arazo onetan euskalduna gauza-eztzát daukanak, ez-taki euskaldunak direanik Etxenagusia, Ginea, Guiard, Zuloaga, Larrea, Elorriaga, Barrueta, Lekuona, Losada, Aranburu, Segi... ta beste asko.

Lauko edo laurka eder bat dago erakusten Bilboko ispilutegi baten. Lekeitioko bastertxu bat dago antzeratuta, nasa barria; eta bertan besigu edo errosela-saltzaila bi, otzarea lur-rean daukela. Euretari-ko bata lur-rean erdi-iarrita dago, arrain bat eskuetan dabela. Zutunik dagoan saltzailleak, beste tokiren baten dauko beren gogo- a. Erosleak, merkeago gurarik dagoana, arpegian dau ezaun. Umetxu bat dago beren alboan, ederto antzeratuta au bere, atsoa bera baizen ondo ezarren.

Adituten dabenari entzun dautsagu: ezin siniztu bere egin leikeala, ikusi barik, ain urte gitxitan onenbesíe aurreratu leikeala.

Lan eder au egin dabena ogei urteko mutil bat da: *Julian Ihañez* de *Aldekoa*, Lekeitioko semea; onetara nadoa, Euskalerrriari izen ona geitu bear dautsana.

IZEN ONA

I< EIN Sua ta Ura ta Izen ona alkarregaz ioazan. Banatu ta galduteko bildur zirean, da otu iaken galduezkero zelan alkar aurkituko eteeben iakitea. Suak esan eban: «Zuek aurkituko nozue kea darien toki guztietan.» Urak esan eban: «Ni, toki zingiratsuetan aurkituko nozue.» Eta biak batera Izen onari itandu eutsen: «¿I, adiskidea, nun aurkitu al izango augu?» —«Ni, erantzun eutsen Izen onak, bein galduezkero, galduta nago betiko: enau iñok aurkitu al izaten.»

EREMUTARRA

I

JAKITUNTZAT beren burua eukan eremutar batek, ^
Iaungoikoak gizonakanako daukazan uste asko ezin aditu edo ulertu ebazalako, beren biotzean deabruak zirikatuta sarri esan eroan, etzala bidezkoa edo zilegia edo gauza ondo egiña Iaungoikoak sarri onakaz da gaiztoakaz egiten dabena: bada onak atsakabe ta ezbear-artean estututen dabezan orduan, gaiztoak ondasunetan nasai nasai ta erara bizi dira.

launak aingeru bat bialdu eutsan, berak baino bestek ikusi ezin eikeana.

Agertueran, aingeruak esan eutsan:

—Ator neugaz: launak bialdu nau, i toki askotara eroateko, euretan uste bardinezak eta zakonak euk ezautu daiazan.

—¿Nor az eu?

—Ni naz gizonak aditu ezin dabezan-uste ta erabagien Aingerua.

Aingeru au altsua zan, ezer ezegoan berak egin ezin eukeanik; au gora-bera, iñok (eremutarrak baino bestek) ezaban ikusi al izaten.

II

Lenengo sartu zirean-ostatuan, iaubeak arrera ona eginaz, ian-edan eder oparoa ta naierakoa emon eutsen. Eremutarrak urregorritzko edontzi eder ikusgarri baten edan eban ardaoa. Etxe-iaubeak, edontzi a eskura emon eutsanean, berba onek esan ebazan: Eztago munduan edontzi eder au baino naiago dodan gauzarik.

Urrengo egunean, ostatutik urten-da gero, arrituta gelditu zan, arako aingeruan eskuetan urrezko edontzi ederra ikusi ebanean.

¿Zer? Uste eban beren artean. ¿Aingeru batek iñori ondasunak ostu?

Eremutar gizagaisoak gogamen onek buruan erabilzanartean, ezaban gomuta laungoikoantzat eztagoala inoren ondasunik, guztiak direala berenak. Inurriak, egi geiagoaz, deskeila egon leikez euren abiatik ataraten dabezanakaitik; bada gizonentzat legez eurentzat bere egin dauz Iaunak baratzak.

Eremutarrak, ostararian arrera ona aztu eziñik, edontzi ostua gomuta eban baktotxean, bide-lagunagaitik esaten eban beren barruan:

«Au ezin izan, leike alde oneko aingerua.»

III

Urrengo gabea, Aingeruak ostatu txar batera eroan eban. Arpegiera ilun iluna ipiñi eutsen, da oea bere, arrerea edo txerea lakoxen izan zan: txarra.

—«¿Nora etenakar onek?» esan eban beren artean. Sartu zaneko artu eban urteteko gogoa ta garra. Pozik erantzun eutsan baietz aingeruari, urteteko esan eutsanean.

Aingeruak urten-orduan, lengo ostatuan osturiko edontzia beste ostatari oni emon eutsan. Eremitarrak au ikusitakoan, len baino bere arri ta zurtuago, beren barrurako esan eban:

¿Zer da au? ¿Onari kendu ta gaiztoari emon? ¿Au da arteza izatea? ¿Zelako aingerua eteda mutil au?

IV

Irugarren gabean eremutarra ostatu apatz zabal ugari batera eroan eban aingeruak. ¿Nok esan zelan artuak izan zirean? Ostatariak euren pozkarirako olloak il, lukainkaak lapikoratu, artxo edo arkume bat edo besteri narrua eratzi ta beste ianari asko gertu ebazan.

Eremitarrak beren artean: ((oraingoan aingeru edo dana-dalako onek eztau begi txarra euki. Au baino ostatu oberik zeruan, beste tokitan ez.))

Urrengo egunean, urten bear ebenean, ostatariak mutil morrosko eder bat emon eutsen biderako laguntzat edo aurretikotzat.

Baioazan irurak aurrera ta aurrera, ta eldu zirean zubi goratu estu batera. Mutuak biotz on az erakutsi nai izan eutsen beeko aldean isiltxurik ioan errekazto bat; eta orduantxe aingeruak bultz egin-da errekaztora buruz bera gotzi edo bota eban.

«Au geiegia da» esan eban asarrez eremutarrak. Ostuteari asko eritxi ez ¿da inor ilten asi? ¿Ta nor ilgo, ta au? ¿Mutil zintzo mardo on, mesedea baino egin eztauskun au? ¿Ta aingerua dala? ¿Ta launa-gandikoa?»

Ezeban gomuta eremutarrak ostatariak oiloakaz edozer egiteko eskubidea euki baeban Iaungoikoak gizonakaz eskubide andiagoa daukala; osterantzean beren gogamenak etzirean ain itunak izango.

V

Egun atan muker muker ibili zan eremutarra, lagunari berbarik bere egin nai ezeutsala. Arratsean ostatu barri baten sartu zirean; da ezeutsan arrera txarra egin. Ostataria arpegi argikoa zan, da arrotz guztiai oe garbia ta mai ugaria gertu izaten eutsezan. Ostatariak seme bakarra eukan, ume umea bera ta negar-samarra. Eurak an egozala, ume onek gaberdi-inguruan negarrez etxeko geienak iratzartu ebazan. Iagi zan orduan aingerua, ioan zan zapladatxu baten umeagana ta samatik oratu ta ito eban.

«¿Zer egin dau ume errukarri onek, era onetan itoteko? esan eban eremutarrak beren barrurako. Ezin izan leike launagandiko aingerua, Iaunak maite dabezana umeak geiagoko бага itoten dabezana. Au alde txarreko aingerua da. Iges egitea izango da onena.

VI

Aingeruak, aurrera artuaz, ezeutsan itxi iges egiten. «Entzun, adiskidea, esan eutsan. Iaungoikoak igana bialdu naiok, erabagi ezkutukoak euri adierazoteko ardurez. Aspaldion iagok ire gogoa ingiraz beterik. Nik oraintxe erakutsiko dauat, Iaungoikoa zuzena dala, euk ulertu edo aditu ezin dauazan iazoera edo gertaeretan bere. Beren errukitasunak eta zuzentasunak, ik uste izanezarren, beti alkar ondo artuten dabe.

—Esaizu zer edo zer, aingerua; bada iru egun onetan naukazu, siniztu eziñik, zu Jaunak bialdua izatea-ta.

—Lenengo ostatuan urrezko edontzia ostu izan dot. ¿Zegaitik? Ostatariak lurreko ondasun oni lotuegi eukalako biotza. laungoikoa baino sarriago gogoratuten eban ondasun au, ta sarriago goratu daian beren biotza, kendu dausat beeko lokarri au.

Gero ikusi nok edontzi au ostatari donge edo gaiztoari emoten. ¿Zegaitik? Lurrean egiten dabezan medede-apurak lurrean euki daien eurentzako saria; bada beste mundura-ezkero eztauke-ta.

—Ori badakust eta badazaut eta badakit. Baina zubi-ganetik iaurti dozun mutila dot gomuta.

—Arratsalde atantxe beren ugazaba ilgo eban gazte arek. Nik zubi-ganetik errekaizora eratzi ta ilaz ¿badakik zer egin dodan? Batetik ostataria eriotza gogor batetik atara edo iarein; bestetik otseña bera, ugazaba il bear ebana, zeruko bidetik biotza aldenduta eukana, barrero arteztu ta zeruko bidean ipiñi; bada zubitik beera ioala, damututeko ta parka eskatu ta iaristeko astia izan eban-da.

—Ori bere [tira! ulertu dot; baina orregaitino bere, arako seiaska edo kuraan ito dozun umetxu errukarria...

—Ago adi puzkatxu baten. Atzenengo ezaturiko ostatari onek, seme au euki-orduko, guztiz maite eban laungoikoa; ta beren Izena goralduteko, eskekoai on egin, beartsuai lagundu, naibagatuak poztu ta beste onbide asko erakusten ebazan. Seme au izan ebanetik gora barriz, sarratu iakon biotza ezeukientzat, beartsuentzat, naibagatuentzat eta laungoikoantzat; bakar bakarrik beren seme bakar onentzat eukan edegita. Ondasun guzti guztiak onentxetzat nai ebazan. Eta gizon onen bio-

tza edegiteko giltza launaren eskuetatik artuta, etorri naz zugana. ¿Badaki zein izan dan giltz ori? Eriotzea. Umea ilaz, gauza bi lortu edo eskuratu dodaz: bata, umea bera zeruratutea; bestea, Aita bera Iaunganatutea. Sarri bialduten nau Iaunak seme bakarrakana: sarri eukiten dabezalako eurakan gurasoak biotzak itxita.))

Eremutarrak, ulertu edo aditu ebazanean Jaungoikoaren uste edo erabagi ilun sakon da ezkutuak, eskerak emon eutsazan Iaunari biotz biotzetik.

BATXI GUZUR

I

Apalaurrean

A IZURDI-mendi-sorbalda-ganean luze luze etzunda, artadi itzaltsu edo gerizpetsu baten adarpean, txori baketsu askon txioakaz pozkor pokortxu, aldauri bai dago, oillo loka batek txitak euki daroazan antzera, lau etxe beren magalpean daukazana. Aldauriari *Satika* deritxo. Beren lau etxeak *Satika goseaskoa*, *Satika beaskoa*, *Satika nagosia* ta *Satikatxu* dabez izenak. Uda ta negu, zein euri zein aterri, nai eguzki galdatan nai lei-antziarra buruan dabela, bai soloak galgarau-eske dagozanean da bai soloetako galburuak etxera begira egotorduan, Satikak beren leio illunak, begi baltz eder batzun gisan, itxasaldera begira euki daukaz; eta itxas-ertzean, Aizurdipeko *Santa Katalinak* argi-mutilla eskuetan daukala, erri polit polit polit bat dakuse: erri garbia, arraintsua baiña arrain-sunda bagakoa; *leku itua* baiña arnasaz da adorez betea; erdaldunen begikoa, baiña bizkaitar utsa; erri ikusgarri, Elizarako[^] erri maitagarria: neu iaio nintzan erria.

Labandu beiez gizonak euren miiñak, iaioterria bururutzen iakenean; euki beiz bakotxak beren erriko mendietako karatxak urre-mamintzat, erroiak usakumetzat, urretxindorren kanta zolitzat beren erriko asto zaarren arrantza gortugarriak. *Bakotxak* ordu onean *beren opilari su* egin beio. Ta nik neureari su egin

dautsadala iñok esan-orduko, noan noan ur-ertzetik aldatzean zear, gora ta gora, Aizurdi-mendi-sorbaldaganera.

Sei edo zazpi umekondo egozan artadipean: batean txilioka, bestean soiñuren bat ioten, bestean orra edo ona... beti iolasean da zerbait egiten. Zaarrena zazpi-zortzi urte-inguruko neskatilatxu bat zan, eragiña ta bizkorra, edo, beren Amak esan eroana esateko, mutilla egiten asia. Onen urrengoa bost urte ta erdiko mutil bat zan, beronen nebea, Kose Kusto izentzat eukana: au zan Aman kutuna. Aitak neskatilla zaarrentxuari egiten eutsan begi argiena. Esatea da, Aitan antzeko alabaak eta Aman antzeko semeak izaten direala seme-alabarik zintzo ta men da zoritsuena. Au egia bada, Kose Kusto ta arrebea bene benetan zintzoak eta menak eta zoritsuak izan bear eben: alabea Aita bera zan; semea, Ama lakoxe arpegi-zabalkote, begi-urdir, buru-andi, arto-zale utsa. Neskatillea izaten zan beti nagosi: nai etxean Aitan aurrean, nai artadian aparika edo maiñaka euren kontura iarduenean. Mutillak ezaban gogoz eroaten bera nagosi ez izan bearra. Egun bi edo iru aurrerago negarrez Amagana ioan zan baten, isilduta gero, Amari esan eutsan ea andi eginda nor izango zan zaarrago: bera ala Iñesatxu (au zan neskatillean izena). Amak barreka «Astokilo, esan eutsan, bera beti zaarrago.»

—¿Eskolara dxuaten banaz be bai?

—Eskolara dxuanezkero, ez.»

Eztakigu aurrerantzean zer gerta edo iazoko zan. Ordurarte beinik bein Iñesatxu zan Satikako ume guztien nagosia: dendaka edo dendarika iolastu bear baeben, bera izango zan saltzaillea; oillo oilloka iñarduezkero, bera izaten zan oillo lokea edo Amalokea;

idika, bera zan itzaiña ta itaurlaria; Eliz-inguruka, Abadea; aureskuka, Píela. Berba baten: neskatillea izaten zan edozein iolasalditan guztien Buru; Kose Kusto urrengo, ta beste ume gaztetxuagoak batean burdi, bestean oillo, bestean *erroskera*... Iñesatxuk nai ebana.

Kose Kristok Eliz-inguruka *Txomin y Kolente* kanta edo eresten buru-utsik ibilli baiño naiago izaten eban aureskua egiten iardu. Dantzan ezaban iñoiz gogait egiten: gogoa aspertu baiño askozaz lenago gorputza eio edo nekatu ta ankaak sortuten iakazan. Ta bera zenbait gogotsuago, beren arrebea ainbat nakarrago edo gogo bageago egoten zan. Aureskua egitea zanean, Iñesatxu izaten zan Piela ta ganera txistularia. Aureskurako deia asiaz batera, nebea ain gogoz artasika ikusirik, isilduten zan, naikoa zala esanda. Mutuak orduantxe, len baiño bere alegintxuago, berak soiñua io ia berak dantzan egiten eban. Arratsalde atan beste onenbeste iazo iaken. Aureskulariaren ekiñaz asarratu zan neskatillea; ta, arako ota-suskurrak sutan txinpartak ataraten dabezan baiño bere sarratuago, asi zirean biak alkarri esaten:

- Arro putza.
- Gangarra.
- Mokoti.
- Negarti.
- Beeko zale.
- Baita i barriz Atorra zaar.»

Au entzun ebanean, atorra zaardunak seiña beeganean itxi ta ederrak emon eutsazan neba dantzariari. Onek besteari atorrako dindirri batetik oratu ta tarratada andi bat egin eutsanean, «ene kaderaak arin egizu» esanda, arrapatata iges egin eban, arrebea atzetik iarraika ebala.

Eldu zirean onetan soloetako langileak; eta barre gogoz egin eben, ume biak alkarren leian arin aringa ikuseran. «Maridxena, atzetik dandarra daridxena» esan eutsan Amak Iñesari; ta onek kurrukaz da amurruz, atorrea erdi erditatik etenda, Aitari belarrira esan eutsan: «Aita, Kose Kustok matxingarratza dxan dau.»

Aitak orduan «Txotxo» dei egin eutsan dantzariari «Kose Kusto, ator ona. Kose Kusto, gero bidzar gero ezaiz etorriko gero Ipestarrera, Santidxago-eguna da baiña.»

Noiz edo noizko baten agertu zan Kose Kusto: atzekatxu, nakar, gozaga, gogo barik eta esku biak sakeletan sartuta. Aitak urreratu zanean, irri-barrezka kaiskarreko txiki bat emonda, ukabilla surretara eroanaz, «ik, txotxo, matxingarratzak dxan dozak», esan eutsan.

Au entzueran asi zan barriro Kose Kusto igesi, ta etzan gelditu, beren osaba Batxi, solotik gora etorrera, ikusiarte. Onen esanen esanaz sartu zan aparitara

II

Batzi azaletik

Iru debete aurrerago eldu zan Satikara gizon bat, amalau urte eukazanetik itxasoak austen ibilli ta beren barririk iñoiz bialdu ezebana. Etzan bera Satiarra. Amaika urte eukazala, Arratiako baserri batek ekarri eben, ume zurtz gelditu zanean.

Turubia Satikako, emakuma egillea ta arrastaria, maratza ta gizagiña, Arratiarra bera, ta gazterik otsein edo ogipeko izatera etxetik urtena, zan gizon onen edo ume aren izekoa. Beren aizta alarguna il zala jakin

ebanean, ioan zan iaioterri edo aizorrira; argi ta garbi antzau ebazan beren aizteak eukazan zor-arturenak; eta arek itxiriko ume zurtza semerzat artu ta beragaz bizi izatera Satikara eroan eban. *Batiste* zan ume au Arra-Liatik urteeran, *Batxi* biurtu eben illebete igaro-orduko.

Ordurarte Batxik egiñiko gauzaak lau berbatan esan leikez; bada neska-muil gaztetxuak ela andragizon zaarrak, geienak beintzat, suetetik kanpoan ez-tabe esateko gauza andirik egiten: umeak gurasoakan da atso-aguraak seme-alabakan eukiten dabez, ez bakkarik elikatura edo ian-edana, baita entzutea ta izena bere. Ume guztiak amalau edo amabost urterarte izaten dira UrJia edo Berendia-n seme alabaak; irurogei urtetik gorako atso-aguraak barriz Urlia edo Berendia-n Aita ta Ama. Eurenez, ez batzuk ez besteak ez-tabe ez entzuterik ez izenik eukiten.

Batxin amaikagarren urtetik amalaugarrenerarteko gertaera edo iazoerak gitxik eukezan gogoan; andik aurrerakoak berak baiño bestek ezekizan; da nai-tanai-ezkoa zan, iakin nai ebazanak, berari entzutea.

Berari barriz (iñogaitik txarto esatea ezta ondo ta isilik egotea oba da baiña) beinik bein arpegira ezarren, Batxi-guzur esaten eutsen; da beren esakera guztiak egizat artu izaten etzireana, ezizenak berak agiri dau.

Lekeitioko kaleetan da Izpasterko Eleizaldean da Gardatako ingurumarietan ikusi ebenean gizon bat. arpegi guztia, ezpanak ezeze, bizarrez beteta; kaltzaia-ke lodi astunak eta narruzko oiñetako zoru-Iodiak eta musturdun txota baltza ta alkondara-ordez ingeles-bandera-antzeko txamarra bat soiñean ebazala ¿nok esan baso-aizeak aren iaiotetxea arnasaz bete ebenik? ¿Zer dan arpegi sona edo argia ez eukitea! Batxi, barru

barrutik beinik bein, ezekian iñok nor zan, beren lengosu Kose Satikak bere ez. Arpegia ikusiaz beste bagarik asi zirean esaten: protestantea zala, eriotzaren bat eginda igesi etorri zala, masoi-arpegia eukala, pirata ibillirikoa zala ¿ta zer ez?

Lenengo barritan, diru asko ekarrela zabalduaz gorabera, biotz bat ezin irabazi izan eban: amabost egunen barruan iñok baiño ezaun geiago egin ebazan, adiskiderik bat bere ez. Ain ze Lekeitiotik Murelagako

bidean dagoan auzotegi baten, Oietan, Maiatz-Paskoz egiten direan irugarren erromeri-egunean, Batxik, txapel musturduna eskuetan ebala ta ingeles berba onekaz Lekeitioko Arranegitar neskatilla bati dantzarako mandatu eginarren —*Du dxu laik tu dans uit mi*—. neskatileak atzerantz oinkada bi eginda, lotsa andi barik esan eutsan Batxiri: «¿Zer dakar beronek? Ezkara txakurrak, zaunkaka asteko.» Batxik lagun-aldrara ioan zanean, esan eban: «neskatilak eurak mandatu egin bear izango deuste, ni dantzan ikusteko.»

Andik illebetera, Donian-goizean, Izpastertar batzukaz ioan zan Lekeitioko enparanza edo plazara, aspaldiko orde z gona-dantzea ikusteko asmoaz. Beren isilik urreratu zirean lagun bi emakuma aurrekulargana; ta eskatu eutsen, mesedez atara eiel dantzara Satikako *indianoa*. «¿Ene! Bakit nor dan, erantzun eutsen neskatileak. ¿Orrako orregaz onako neu? ¿Ontxe gogorrigo! Diñuena egidxa baldin bara, oba leuke orrek Elizapera dxuan da ur-berinkatu-ontzidxan dzanga ein da gero Elizan sartu.»

Itandu eben gero Izpastertarrak nortzuk zirean birreskuak; agertu iakezan bi; ta esan eutsen, aurrekuko neskatilei Izpastertar mutillak dantzara ataratearren, mutillen kontura izango zala danentzako gosari eder

bat, San Pedro-goizerako: ardao zuria, makaillaua piper da guzti ta ganera gaztaia edo iko *mela*uak edo zer edo zer. Neskatilla geienak ontzat artu eben Izpasterarren guraria. Asi zan dantzea: aurrekuak ederto egin eban dantzaurrea; laguntzat atariko baserritarrai egin eutsan oi dan txeratxua, ta ordurarte guztia ioan ondo. Atzeskuak bere ezaban txarto egin beren egokia, ta txaloak bere entzun ebazan; baiña arako birreskuen erdian Batxi-guzur ikusi ebenean, txistu batak, txistu besteak, erdi-gortu eben Batxi gizagaisoa.

Neskatilean arpegia ikustekoa izan zan, Batxi urre-ratu eutsenean. «¿Zer? esan eban. ¿Nora dakarre ber-rau, Maridxa Talakon arpegi onegaz? ¿Neuk orreri eskua emon? ¡Bai ta zera be! Nik dxantzarako eztot nai morokil-usaiñekorik, eskuetan ankilla pintaua eukiarren; nik neu lakoxe arrain-usaiñekua nai rot. ¿Zer dakarre eurok? Onen ankaak itxu-soiñuan obeto dxantzan ingo leukie.))

Bitartean geroago ta txistu geiago entzuten zirean.

Bafxik, ingeleskadaak esateko gogo bagarik, gorri gorri eginda, iges egin eban dantza-tokitik.

Onetariko arrera txar asko egin eutsezan Batxiri.

¿Ta guztia zegaitik? Irudiagaitik; nor irudian iku-siarren; nor zan ezekielako; azal latza eukalako. ¿Zein sagar garratz ezta azal onekoa izaten? ¿Da zein sagar gozo, esaterako txarbea, sagarrik berankorrena ta gozoena, ezta izaten azal-tximur íspilduna? Azaletik barrua ikusi nai daben begiak, sarri egongo dira illargi bagako gau illunetan legez.

Ikusi daigun, al daigun giñoan, Batxin barrua, azala ikusi dogunezkero: azala baltzerana eukan, begirakuna astuna; bekoki txordo edo illuna; ibilkerea,

alperrak lanera eroaten dabena lakoxea. Azalez onez-
kero badakigu nor dan.

Izalez... urrengo agerraldian berak beren barrua
agertuko dau.

III

Batxiri lagunak

Batxin gertaera edo iazoeraak beren aotik entzutearren, gaurik geienetan batu oi zirean Satikan auzoetako gazte batzuk eta eurakaz batera atso-agura banakaren batzuk bere noizean noizean bai. Ara baturiko gazte geienak euken ezizentzat euren ialetxe edo oiñetxe-izena: Urabilla, Batiz, Eleuntzeta, Urkitza, Beiña, Ikaran, Santa Katalina ta besteren bat. Onetxek zirean Batxiri lagun egiten eutsenak. Guztien artean samen lagundu, zeatzen iarraitu, izena goratu ta bera ta esakereak ikasi ta zabalduen ebazana Urabillan: mutil galanta bera, baba-Iastoa legez gazterik azia, dantzarako aurrerea, laietan da araketan da bedar ebaten ibilteko bere atzerea edo atzerana ez; gibel andikoa; goi-ariña, askon eritxian beintzat; eta egia esateko sinizkorregiak goi-arintzat euki bear badira, lumazko burua eukala edozeiñek esan zeikean. Batxi amar bidar aitatu-bagako egunik etxakon igaroten Urabillako morroskoari. Aspaldion ebilen Kapro, zorioneko Kapro, nor etezan aturau eziñik.

Batxiri zelan edo alan ikasi eutsan ingeles-kanta edo eresi bat, *O Susanna* deritxona, goiko Amerikatarrena ta Inglaterrako itxasgizon geienak buruz dakiena. Beren modura euskeratu ta *O Susanna* barik *Ai Kapro* izentzat ipiñi ta edonun eresi oi eban Ura-

billak: etxean da soloan, bakarrean da lagun-artean, edonori aspertu eragiteko beste bidar.

Batxiri entzun eutsan bein, Lebrefuelen (1) edonok erabilten dabela esku-ganean zer edo zer, taiu edo irudiren bat, narruan bertan ezarrita: itxasgizonak, ontzia nai ankillea; zapatariak, oiñetakoa; laborari edo lugiñak, atxurra nai burdia, nai lurra landuteko beste tresnaren bat: bakotxak beren bizi-bidea ondoen iragar-teko irudia.

Ta Urabillari Amari osturiko buruko-orratz bategaz jasast! jasast! odoldu eban ezkerre, Batxik ankillea legez, burdi bat idi-buztarri ta guzti antzetuteko ustean.

Beren gurasoak txutxu egiten eben Batxigaz ebille-lako: maian iezarten zan guztian, asten iakazan batean Amama, bestean Ama, bestean biak batera, zirika zirika, lagunagaitik txakurrenak esaten. Batxin lengosua bere bein baiño sarriago esan eutsan umee-gia zala, aregaz burua bat egiteko; amazortzi urteko mutuak ezabela berrogei urteko mutil zaarrakaz batu bear. Zeinbat esanago ainbat biztuago -egiten iakan Urabillari Baixiganako garra: suari gerta ten iakana; txikia danean aizeak amata egiten dau, andia danean barriz bizkortu ta geitu.

Illuntze atan iñoiz baiño luzaroago egon zirean Batxin lagunak berari itxaroten. Sei bidar gitxienez esan eutsen Urabillari, Batxin eske ioateko.

Esanen esanaz zuritu eben da ateraiño eldu zan; baiña Kose Satikari eutsan lotseak antxe lotu eban gure mutilkoa. Zelaíean da adi gelditu zan ate-on-

(1) Liverpool.

doan, giltz-zuloan batean belarria, bestean begia ebazala. Ona *emen* berak entzuniko esataldia edo autua.

(*Kosepa-koipek beren koiñatu Batxiri.*) Maalen guria itxusidxa edo ezaiña dala esan dabeneri gorantzidxak emon, Batxi. ¡Surra daukala alakua edo olakua! Surrak emongo deusk. ¡Bai, egon ardura barik! Dxuatia baiño eztago Doratio mandaziñenera ardautan, surra ederra daukala norberak-eta. Emakumiari bidxotzera begiratu biar dxako. Maalen guriak barriz, ez aitzia dodalako baiña, bidxotza iñok ez lakoxia dauko; ta sakela edo ziskua edo diru-zorrua... ikusi nai neuke zein arpegi ederdu berbaldunek dauken ugaridxagua.

(*Kose Kustok Kosepa-koiperi.*) Ama: Iñesatxuk ontxe be azur da guzti dxan dau kerexia.

(*Kosepa-koipek.*) ¡Bakizu nor zarien zuek, batau ta bestiori? Atorra zaar da prakerre. Eta zueri antxiña-kuenta esan biar dxatzue: «Atorra zaar da prakerre, asarre nintzuan bart bere.»

(*Iñesatxuk.*) ¡Beronek dxaten dau ba edozer da edozelan, zurru ta purru?

(*Kosepa koipek.*) ¡Euk egin biar dona burua bat txikidxauagaz, ganera mutila berau izanda? ¡Euk? ¡Urdaila baiño begidxak andidxago daukanazan dxatun orrek?

(*Kose Kustok.*) Onek barriz niri, atzo baiño lenagoko egunian, arto-zatidxa kolkotik ostu neuri ta dxan gero.

(*Kosepa koipek.*) Bai, txotxo, onek edozer iri; eu az, eder ori, arto-zatirik asko-ta. Urrenguan ez kolkuan gorde, barrurago baiño. Dxa, dxan; mutillak buruan be estiak eukitten dabez-da.

(*Kose Satikak.*) Kosepa, esan dot lenago be: bialdu ekidazuz umiok lotara, entzun biar eleukiezan atsokeririk asko entzun dabez eurok, da guk entzun nai eztoguzan umekeriak ugari entzun doguzalako. Tira, Ixotxo, lotara; bestela atzetik daroiaan makaillau ori katuari emongo dxentsat.»

Onenbestegaz ioan zirean gora Ama-*seme-alabak*: Kosepa Koipe, ume biari beso banatatik oratuta; Kose Kusto, begiak bustirik ebazala; Iñesatxu, musturtuta.

Ta arako Batxi ta koiñatua mai-ganera begira, isilik eta bakarrik, ate-zulotik Urabillak ikusi ebazanean, umeak gabaz legez, kantetan edo eresten uxatu eban Kose Satikari eutsan hilldurra; ta onetaraxe agertu zan eurakana.

Ona emen ingelesen *O Susanna*, Urabillak *Ai Kapro* biurtua.

Ai Kapron alaba maittia lalaralala,

Ai geure Lusiana maittia lalala.

O Susana, oillotxua nok ni;

Ai Kapron alaba maitia lalaralala.

Kosepa, Urabilan zaratea entzun ebaneko, goitik asi iakan esaten: «Buru-andi ¿iñori buruko miña egi-tera zek akar? Ez asko txarrago etorri azan bidetik atzera baiñua, min luziori; euk sur ederra badaukak, gordeik ondo, etxak iñor bila dxuango-ta.»

Berba onek entzunaz, *susunkordan* geldittu zan mutil mandataria, zer-esan ezekiala.

Batxik orduan, urteteko gogotuta egoala ez esatearren, lagunen batek zetako edo atako bear izango ebala atxakitzat ipiñiaz, iagi ta atera-bidea artu eban.

Ate-brinbeletik kanporako egozala, Urabiliak, beren buru-bagakotasuna agertuaz, lagunari belarrira berba onek esan eutsazan: «Batxi, gero... entzun dodaz gero kontuak. ¿Maalen, e, Maalen? ¡Maalen plautiri! ¿Badakizu zer diñuen? «On-bila, on-bila, bonbilla.» —¿Nor iabilk on-bila; mutil, ez txar-bila bere?— Nik neuk... u ¡jara! egidxa esateko, Alkatien aurrera eruan da be eztakit ezer, diñuena baiño besterik: baiña Maalen-bonbilla esango-tse, zugaz-ekzonduten baldin bada.»

Eldu zirean onetan lagunakana. Euren artean iazozana agertu-orduko, ondo izango da gauza batzuk oar-lutea: 1." Batxiri Urabillak Aitari legetxez berba egiten eutsala: zuketan beti, iketan iñoiz bere ez.—2.^a Batxik gazterik edo mutiltxutan Arratiatik urtenarren, Arratiarren antzera *mutila, iabilk, koipea...* berba egiten ebalá, *mutilla, dxabilk, koipia* Satikarren erara esan barik.—3.^a Kosepa-koipek Urabillak esaniko guztia ederto aditu ta belarriratu ta gogoan artu ebalá.

Gutzizko arrera ona egin eutsen Batxiri lagunak. Anpor andi bi eukezan alkarren aurrean; da euretan iarri zirean, Batxi erdian artuta.

«¿Zetan gengozan atzo? Middlesbrotik Lebfuelera ninoan ¿ezta?, esan eban Batxik.

—Batxi, erantzun eutsan Urabillak: Eluntzeta ezeizan atzo emen egon; da oba ixango da, zeuk nai bozu, txiki txikitatik astia.

—*Very well* (1).

(I) Gutziz ondo.

IV

Umetako ikasteak

Very well esanda gero, Batxi, pipea bedarrez bete ta zurezko arrast bat isiotakoan, edu onetan asi zan beren gertaera edo iazoeraak esaten.

«¿Badakizue, mutilek, zeri esaten iaken kuku-sagarra ta kuku-balea? Bada ni kuku-sagarra lako muti-ko gorri gorritxua ta kuku-balea lakoxe tartain tartaine nintzen, Izekotxuk Satikara ekarri nenduean. Amaka urte neukazan. Nire gorputzek eta arimeak ezirudien amakakoak, batera iaioak bere ez: gorputzari ezotsezan iñok ainbatuko bederatzi urtetik gora: arimeari harriz amalau edo amabost urte edozeiñek emon euskeozan. Izekotxu ta biok or bide zaarrean beera buruen otzara banagaz, sagarra edo gartzaina edo lurrak ekarrena saldutera ioaten gineanean ¡arek zirean egunak! Gaur bailitzan gomuta dot: bagatoz etserantz beste batzukaz da abade bigaz topez tope egin genduen ortxe solo-goinean; geitu ostien da asi iatezan *dotrina* gutzie goikoz beera ta azpikoz ganera ta atzekoz eurrera itendu ta itendu. Nik, ez neuk esatearren baie, utsik bere egin barik erantzun neutsien. Abade batak (Jaungoikoak zeru en euki daiela) Aitearen egi euen arritute, Izekotxuk esan euenean nik eneuela ordurarte eskolan oiñik imiñi, nekien gutzie zala sutondoan etsean entzun da ikesarikoa. Gero ni aurrera ninoala, Abadeak Izekotxugaz luzero egon zirean berbetan. Eztakit zer esan otsien. Urrengo astelenean Lekeitioko eskola barrien sartu nendun Izekotxuk. Izen geizto asko ezarri ostezan mutil lagunak: Satika, Arrati, Batxi gurea (au zan, Izekotxuk Batxi gurea esaten euden, da agaiti); baite abotxa bere, ao txikie neukelako, esaten osten.

—Nik entzutía daukadanez, esan eban Urabillak. *bira-bira* be esaten eutsuen, Batxi. Bein erderaz *Kerdua* edo *Kredua* esaten zengozala y *la vida perdurable* esan-biarrian *bira-bira perdurable* esan eizenduan da gero *bira-bira* maisuak eta guztiak.

—Eztakit ori, baie urte ta erdi (inguru orixe) eskolan egin neuzanean, meisueri *bira-bira* emoten notsan, edo lau ta esku.

—Lengo egunian urte bi esan zenduan.

—Urabila, nai urte bi nai urte ta erdi, badakit beintzet urte bete baino asko geiago igaro etzana.

—Batxi, esan ia arako *esamiñetako* dxazoeria, Alkatia ikaratuta geldittu zanekua.

—Gabon-eurrea zan. Odeiak egotzi-ala edur, ieusi zen egun atan; biregarrotan bere kolkokadea koiu (?) neuen orduen. Besteak baino belutxuago eldu nintzen eskolara. Meisuek, Izekotxuri mandatu bat bialduarren, uste euen enintzela ioango ta larri egoan. Eskolara sartu nintzanean jaren poza! Abadeari ta Alkateari belarríre zer edo zer esan otsen; da burutik beartzetara ondo aitu osten guztiek. Alkatea asi iaten lenengo lenengo; erderarik ezekien berak gitxi baino; baie arrokeriegaiti, ala eztakit zegaiti, erderaz asi iaten. Nik barriz erdera ura legez ikesi neuen, da erantzuten asi nintzen *zarta, zoria, zarta*. Alkateak buruegaz baietz esaten euen beti; baie begietan igarri notsen: ezeuen nire erderarik ondo ulertu. Beste batzuk bere edozer itandu ostien: liburuak ezeukezanak bere bai. «On neure ssndxia», esan euen Abadeak, eta ortiko ta emetiko ingurumari guztiek arakatu eragin ostezan da uts baten koiu ezin izan nendunean, «dxausiko az ba,

polit ori; bestela, igarten bok, neugaz bazkalduko dok gaur» esanda, itaune auxe egin euen. «¿Nundik sartzen da Elizara?» Neuk neure artean: «emen lakioa dago.» Egon nintzen luzerotxu Alkate-makileari begire, guztiek egozan aoa zabalik neuk zer-esango; ta onelantxe erantzun neuen: «Eleizako gizategira baktexek al deian lekutik sartu ten gara; Eleizara bertara barriz Bataiotik: eztago beste aterik.» «¿Zelan izan leike ori?» esan osten berak; eta nik orduen: «Esate baterako, gizon batek sartu gure deu San Krispiñen anaikide edo kofradien, da San Krispiñen lagun onek batu deitezala Goiko kaleko ardantegi edo taberna zarrean. ¿Onegaiti esango dogu ardantegi orretara doazan guztiek direala San Krispiñen anaikide edo kofradikoak? Ez. Eleizea bere anaikide bat da, eta batzarrak egiteko etxe andi batzuk deukiez, Eleiz-izenekoak onek bere. Doala bat etxe orretara. ¿Elizan sartuta dago? Elizeagaiti batzartokie edo gizategie artuezkero, bai; Elizagaiti anaikidea edo alkartasuna artuezkero, ez. ¿Eleizako anaikide orretan (benetako Elizan) sartuteko zer da egin bear dana? Bateatu.» Au esan neuenean, Abadea etorri iaten neu nengoan lekure ta mosu egin osten. Gero esan otsen meisueri: «Au entzunezkero ¿zer geidxago entzungo dogu? Ni baiño geidxago az, txotxo. Ator ointxe neugaz» esanda, bazkari-tera eroan nendun.

—Batxi: emen diñue ze lengo eguneko esaeran arratsaldian ixan ziriala *esamiñak*.

—Ori beste urteren baten izengo zoan, Urabila. Ni, ez neuk esatearren baie, lotsaturik: nengoan. Abadeak ian bere gitxi egin euen egurdi atan: neuri begire egoan beti. Azkenean eskupeko ederra emon da gero, esan osten (etxat eguno bere aitzuko) argiegia

nintzela, ta iltea nai ezpanendun, eskolatik ainbat goizen urteteko. «Arimia geidxegei azi dxak, esan osten beren berbakeran, gorputza gitxiegi; ta itxi eikezak liburuok eta dxuan ai itxasora, eta andi egiñarte, ez libururik gomutara ekarri. Andi egindakuan, neuk egingo aut, euk nai bok, Eleizgizon, neure kontura; urte bete naikua ixangok ik, bestiak sei edo zazpi urtetan egiten dabena egiteko.»

Izekotxuri esan notsen zer iazo iaten; da, ondo gomuta dot, biok alkarregaz ioan giñean urira urrengo egunean, eskolako atarteragino. Ni beti legez barrure ioan nintzen; da Izekotxu abadeanera. Meisuek (Markina-aldekoa zan bera) ikusi nendunean, asarrez aitu ta esan osten: «Batxi: edo eu, edo neu.» Ni isilik nengoan, zer zan enekiela. «Batxi oiñartekuek be naikue jituguk: edo eu maisu, edo neu maisu. Eskola baterako geixegi gaituk bi. Atzo lotsatu egin nenduan: ez juat geixago lotsatu nai.» Nik esan notsen: «Jaune, ba, Jaune, eztot uste geuze txarrik egin dodanik.— Geixegixa beti da txarra; geixegi ikastie be bai. Goguez kontra sarri ikesten izen dok: euk nai eztuala, buru andi zakon orretan gauza asko sartu dozak urte onetan. Dana dala: edo eu, edo neu.»

Onek entzun neuzanean, batetik Abadeak esanikoa neukan gogoan, laster ilgo nintzena; bestetik meisuek seme-alaba asko ta etorri gitxi eukezan; da etxaten eder egiten gizeisoari ogi-bidea kendutea; ta mutilek, ¿zer egin neuela uste dozue? Txapela artu, ikusi-arte agur egin, ta gero Izekotxugana ioan nintzen. Eta ez-tot damu bere.

Itxasmutilletan

«*Ondo eginen pagoa, atondoan paloa*»; baie egizu egilean bere esaten da ta nik beintzet eztoz damu ondo egine: esan eban Batxik. Nik meisuegaitik egin nebana (eskola-meisu izateari istea) egin ezpaneu, eneuen gero izen dodan zoririk eta adu onik izengo.

—Batxi, gero geldi geldi geldi esan gero on dato-rrena, polita da-ta.

—Urabila, ez neuk esatearren baie, niri iazo iate-zan geuzekaz liburu eundi bet egin lei. Apurren baten ibili nintzen arrantzale Lekeition, marie erdiko, lenengo egun batzuetan baino ezpazan bere. Sartu ta urren-go astean marie osoa emon, ostien —gero esango dot zegaiti— eta geiago bere emoteko egozan, neuk arrantzuan lotu gure izen baneu.

—Esan i-a Batxi, zegaitik urten zenduan, nai dan barria egin daigun.

—Itxasora-ostera abie-orduko, Izekotxuk, negué zala-ta, etxean euki nendun iru-ilebete edo lauten. Ude barrie ondo eldute egoala, Doniane-aurretuxen, Simon-gorriñ txalupen sartu nintzen, len esan dodan legez, marie erdiko. Neu geur legez sartu ta arik zortzi egu-nera atunetan asi giñean, edo. obeto esateko egalaburre-tan; bada lurak lenengo lenengo dakazan ikoai iko-lorak legez, itxasoak lenengo lenengo dakazan atunei, egulaburrek esaten iake. ¿Ta badakizue zegaiti?

—Batxi, esan eban Urabillak; emen diñue ze geu be ezkariela Otxandidxon dxaidxuak, egalaburra ta egaluzia zertzuk dirian ez dxakiteko.

—Tire ba. tire ba. Badakizue ¿ezta? nik esan bearik ezteukezue ta eurrera. Lenengotan loa neriola iointen nintzen, baie gero ¡¡Abe Marieü egunek txirristegin-orduko, Batxi gora Jagiten zan. Banenbilen da banenbilen, etseti kaira, kaiti munduen atzenera, munduen atzeneti kaira, kaiti etsera; ta olantxe ibili beti. Lenengo egunetan sartu-barrie nintzen da, maite nenduen baie, isilik ibili bear ¿zer ba? Baie gero txalupen etsekotu nintzenean, mutilek, guztiek egoten zirean neuri aora begire. Amuek lengoen ordez barriek asmeu neuzan, atunetako birrari edo firu sendoak baltezketu neuk eragin notsiezan; da beste onelangoxe asmo batzukaiti, nire besoak inder asko euki ezarren, marie osoa emon ostien. Simon gorri etzan pozik gelditu; bada semea euken, da semeak sei ilebete itxesoaan eroanarren, marie erdiko baino etzan; baie tire... Auske bere sarri egin gendun Simon gorrin semeak eta nik; baie tire... au bere ezta esakizuntzet artu bear.

—Batxi ¿zelan zan arako olezko atunena?

—Aotik kendu deustek atune, Urabilla. Gizonak legez marie osoa ipiñi ostenean, esan notsen neure burueri: «Batxi. —¿Zer?— Ik eztekok gizonak beste inder besoetan; baie beste inder batzuk dekozak ik. Gizonak gorputza nekatuten dauden artean, ik burue nekatu bear izengo dok.» Asi nintzen orduen geure guztiek ondo aitu ta arakatuten. Beste geuze askotan barrieztasune sartu lei, baie asi geizen lenengo ertz bateti: karnatati. Karnatea esaten dautse Bizkaian...

—Baxi, ezkariela Otxandixotarrak.

—Baie, Urabilla, au eztakizue: Donostien *beita* esaten iako emengo karnateari. Emen *malutea*, Arratien *mokoloa* ta *kapatxa* bere bai esaten iako, atunek koixuteko amu-ertzean ipinten dan karnateari. Ta ementxe

asi nintzen burue austen. Goizalde baten bat edo bi ezeze beste guztiok lo gengozala, *dapa*, bat batera itzer-tu nintzen da iretzartu neuzan lagunek. Mutilek, esan notsen ¿gure dozue artu? Konkortute egozan, au entzun ebenean. Ames bat euki dot. Atunek koixuteko kapatxa edo maluten ondoan beste zerbait ipiñi bear zala, atzo buruek emon osten: burutasun onetxegaz loak artu nendun, da gero... baie artez berba egin bear da.

—Batxi, esan gero Simon gorrik esanikua be.

—Baite ori bere, Urabila. Gizonak, esan notsen ¿txoriek koiuteko, zein da biderik onena? txorie. Kaiola-txoriek kaiola-txoriekana, larratxoriek larratxoriekana ta txirriskilek txirriskilekana, lendik erretta ezpadagoz, itsu itsurik etorten dire: lika-puske bat adarrean ipiñi ta gero kolkora kaiolatxori ta larratxori ta txirriskilek. ¿Ezta egié? Usategi batera usoak urrunetik etorri deitezan ¿zein izaten da eroakarririk onena? Usoa: benetakoa edo antzeraturikoa. ¿Ezta egié? Oiloak arrezek egiten asteko ¿zein izaten da egikarri-rik egokiena? Arreutzea. Ta agaiti baserrietan abizarie iminten iako oiloari abien, eta bera izeten da arreutze utse karez beterikoa, eta alan oiloa igerri bari-rik legez arreutzek egiten asten da. Atunek koiuteko ¿zein dala uste dozue karnatarik onena, abizairirik egokiena? ¿Mokoloa edo malutea? Ez. ¿Zein bada? Beste atun bet.

—icDemonimes demonimesa» esan euen orduen Simon gorrik. Txo, Satika ¿lo dagozan gíxonak onetarako iratzartu dozak? ¿Uste dok itxasuan liorrian lez dala? *Mokoloa* diño berorrek, *mokoloa*. ¿Zer dok ori? ¿surrak eridxonian dagozala lo eitia? —Baie Simon... —¿Zelako Simon? Satikako soluetan garidxak

urteteko garidxa ereiten dan lez ¿uste dok, atunak uretatik atarateko, atunak erein biar diriala? Egala-burra ezta gero artaburua. —Simon, esan notsen, Simon: besterik ezpalitz bere, mokoloa edo malutea urrunetik ezin ikusi leike, atuna barriz, zurezkoa izan deilela ur-azalean egon, daitean da *Santa-legua-ti* ikusiko leukie ta gero... —Egidxa, esan euen batek. —Ezta egidxa,. guzurra baiño, erantzun euen Simonek.»

Eta alanik batak esan, besteak erantzun, eztabaida gogor bat euki euden. Simon gorrik nire aldeko agurea zuritu ezin izen eunean, erramue goratu ta iotera ioan zan. Nik au ikusi neuenean, sartu nintzen euren artean, da esan notsen: gizonak, nigaiti eztoz gure asarratu zaitezzen. Banue ni. Auxe esanda, *blaust*, itxasoan must egin da urpe edo mustuger asi nintzen. Gero iakin neuenez, guztiek arritu zirean, da baketu bere bai.

—¿Da etziñian itto, e?

—Esango ioat, Urabila. Atunetako txalupek, aizea eukiezkero, aizea bera baino bere bizkorrago ibilten dire, burutasuna legez bizkor. Neu uretan sartu te batera, iaurtu eben txalupea neure bile. Nik ikusi neuzanean, eurei ikera bat emotearren, must egin neuenerrentz. Eldu zireanean, Simon gorri bera, zaarra izearren, beragaiti must egin neuela ta, uretan sartu zen neure bile: beste gizon bi bere bai. Ni andi ia ordu-laurenera azalera urten da burue atara neuenean. nigandi urrun egoan txalupea. Bat edo batek ikusi bear izan nendun, da itota urdaíle puztute agertu nintzelakoan, neugana etorri zirean; nik bigarreanean bere must egin da ordu-lauren bairio luzeroago urpe ibili ta burue agertu neuenean, etzan txalupea agiri. Orduen esan

notsen neure burueri, «Batxi: astiro astiro goazan». Uger da uger ¡A zan uger egitea! Egun da erdi barru eldu nintzen Bermeo-ondoko atxarte batera. Urabila, enintzen ito.

VI

Zorgindu ebenekoa

Batxi, esan eutsan Urabilak, ito ez ¿baiña ikaratu edo estutu edo larritu edo keixu ixan edo (eztakit zer esan be ba) egingo zifian orraitifio?

—Urabila, bide-erdi-ingurure eldu nintzenean. ol andi batzuk aurkitu neuzan, da, ez nekatuta nengoalako, gose nintzelako baiño, euren ganean ordu ta erdi igaro iatazan.

—Zigarrotxu bat edo beste erretako astidxa ixan
o
zenduan orretara-ezkero.

—¡Asto kokoloa! ¿Zigarroa difio?

—Ori baiño gauza andidxagorik entzun deutsuteta...

—Enekien zigarrorik erreten, bestela nundik edo andik eskuratuko nendun ori bere. Urabila, Lekeitiorako leia edo priesatxue dauket eta neuk esango dot esateko daukedana.

—¿Berandu ezta izango Lekeitiorako, bederatzi-dxak be badira-ta?

—Kokolo orrek ¿zer difio? Oin enago Lekeitiorako, orduantxe baiño. Onetara bagoaz, eztot ifioiz amaituko ta ago isilik.

Banago zuren ganean, alkondarea erdi-usteldute neuken da ¡part! urretara iaurtigi nendun, da gizona

¿nok esango leuke? nire aragi zurie ikusi, euenean, txibi-azurra zalakoan, ainbat tximino txiki etorri iatazan. Au zan bat, bestea ondiokarren andiegoa: bero berotan irakiten legez gelditu nintzen. ¿Badakizu gero udako gauletan zelanik atsoak egoten direan *txui* orain, *txut* gero, nai ta bere lorik egin eziñik, ardiakaz egon ezinda? Onetaraxe nengoan ni zur-ganean lo-gure ta egin eziñik, ardien ordeztximinoiak *pik* orti, *pik* emendi egiten eustiela. Zeinbat eta artuago ainbat geiago etorten iatazan. Gordinik ian nendun bat edo beste, baio, mutilek, ezta ona. Ordurarte etxatan gogorra etorri: neuk kaltzerpean neuken sue ta ez gitxi ¿ta zer egin neuen? Artu esku bategaz arrian bat edo bi, txikiak izanezkero, ta beste esku-aldeko kaltzerpean apurtxu baten euki ta egosita urteten ostien. Gauza gozoagorik ostatuen bere ez arean. Gaurrarte egongo nintzen ni bertan, baie etxerako gogotxue etorri iatan da goizaldean izarra begiretu ta non nengoan gitxi bat gora-bera igarri ta tximinoiari agur eginde, geldi geldi, abuzil bat eguerdi-eurrean legez, errialderantza etorri nintzen. Amárrale zirean ni Lekeitio-ondora eldueran. Ni orduantxe sartu neitekean, baie neuk atara neuen kontua: «Batxi, alkondararik eztaukek, ire kaltzari onezkero kaltzerdiek imiñi lekioe izentzat, eta etxak eder egiten erdi-biloizik kalerik kale ioatea». ¿Ta zer egin neuela esango zeukie? Amaikak ioarte, ur-goreari kaian sartuteko begira egoten direan ontzi andien antzera, ni bere eskolako mutiltxuek uger egitera etorriarte begire egon nintzen.

Agertu zirean eskola-mutilek alako baten, iaurtigi euezan txapelak gora goraka, ondartzara edo aretzara eldutakoan, da txapelak iausi zirean tokietan erantzi edo biloiztuta, bata baino bestea ariñago uretara sartu

zirean. «Ia Batxi, ortxe az ba» esan notsen neure burueri ta lau besakadatan, egin kontu, eldu nintzen euren urrera; must egin da must-uger sartu nintzen euren artean. ¡Mutiko gaisoak! ¡Aren ikarea ta izue ta estualdie! «Igarabiria, igarabiria dator» esanda, biloiz biloizik, egozan legez, ioan zirean mendiraiño igesi. Nik orduan makur makur eginde, aretzara ioan da mutiltxuen alkondara bi edo irugaz neutzat bat eginde, uretan sartu barriro ta kaira ioan nintzen.

Eskola bateko ume, *Jesus abezean* dabilzanak, ez-tabe esaten goiz osoan, ni ikusitakoan esan zirean beste *ene*. Atso guztiek egozan aitearen-ka ta ene-ka. ¡Ene semetxua! Illarra atzo ixan tzan aremaitakuetan. Lekitto guztian zabaldu ra. Otoidxo lakoxe baloi andi bategen iruntsi auana.

—¡Ene bara ta ni! Satikak neure semien alkon-daria dakar soinian, da egingo neuke baloiak iruntsi dabela neure semia be. ¡Ene bara ta ni!

—Erdu koitaru ori, gurian, etxe probia ra ta, Kaun-goikuen grazidxa baiño besterik eztogo baiña.

Zer egiten neban bere enekiela legez, eroan nin-duan beragaz atso batek. Emon osten iaten, aldagarriak bere emon ostezan da lotara bialdu ninduen. Urrengo egunean neure elizkarietara ioateko egozanak neu ikustera etorri zirean. Edozein txalupa-iaubek eroan gure izen ninduen beragaz; baie nik, neure alde urten euen agureari dei egin de, esan notsen: Ioane, nai zor nai lor, txalupe barri bet egin dozu. Aste ta erdi barru zorrak garbitu ta nai beste diru eukiko dozu. ¿Zelanik, iakin gure izengo dozu? Egin deiguzan zurezko atunak sei edo zazpi. ¿Guztia bere zer izango da? Amar errealen gora-beera.»

AsLe ta erdi barru, itxasoko atun guztiek geuri begire egozala esan zeikean. ¡Mutilek! Beste txalupe zaar bat, Madalena-ondoan ustelduten bedartzan egoan bat, zelan edo alan azpi erdiekaz ipiñi ta arraiña ekarteko geure atzetik eroaten genduen. Andiki bat ezkontuten danean ¿zelan egoten dira alherrietako oilloak sandxea edo txandea artuten andiki-etxera sartuteko? Alantxe egoten zirean atunek, geure amuetan katigatuteko astia artu eziñik. Eta beste txalupe guztiek utsik.

¿Zer esango zeunkie egin ostela ni erritik kanpora bialduteko? Zorginek neukezala edo zorgine nintzela asmau ostien. Egun baten banator, itxaso-erdie atun biurtute neugez nekarrela, ta oiña nasan (Nasa, erderaz *molle* (?) da, Urabilla) imiñi neueneko, Simon zaararak mutiko batzuri (onek orduko egozan txapelkada arria besoetan ebela) esan otsien: «Txo, bota ardura barik arri orrek Satikari arpegira, miñik ezteutse egingo-ta, zorgiña ra-ta.»

Neure buruaz bakeak egiteko (bestela nor edo nor ilgo neban) erritik kanpora iges egin bear izan neuen.

VII

Batxi izena ostuta

Batxi, esan eutsan Urabillak, zuk naidxago izango dozu gugaz baiño neuk dakidanATEGAZ egon, da oba ixango da bakotxa beren abira dxuatia.

—Urabilla ¿zegaiti diñok ori?

—¿Esan-biarra dago? Maalen-plautiri sartun da zeuenian.

—Galduak gozak orduan. Ointxe ezin ioan neikek etsera.

—¿Zer ba?

—¿Zelan esan dot eskuz gura gajne arrain koiu neuzala, arako egun da erdien itxasoan egon nintze-nean? Bada orduxean itxas-kabra andi bat etorri iatan esku-artera ta euxe agiñekaz da al neuen moduen ezarri notsan lepo-ganean, ezpi-ondo ondoan: 1864, BATXI.

Ta gizona, aitzuta neuken nik; eta goizeon, gaur oero, gaur goizeon banago Aizurdipean arrainetan. da *ara* ots basten eroan iaustek kordeleta urrun, amora emon nik beti, tceuk gogaituko dok, arraine, nik baino lenago», emon nik amora, errie errie errie; ta ordu-erdi garreanean, ito izengo dala uste izen dodanean, ala ala txakurre lango itxaskabra eundi ikaragarri bet koiu dot. Amue ataraten da zakaltza austen nagoala, begiretu dotsat lepora ¿ta nok siniztuko leuke ikusi barik? Ezpi-ondo ondoan 1864-BATXI izena lepoan dauela itxasoak eusten ibili dan arrainari ¿nok esango otsen Batxin eskuetara etorri bear euela? Zakatza eusi ezpanotso, gizona, bustenganean ipiñiko notsan neure izena ingelesak esaten ostiena: 1894-BASKISH; baie orduko il iat eta etsera ekarri-bearrean Iparragirreko Kosantoneri bialdu dotsat, txikitako lagune bere bada-ta.

—¿Orrek zer dauko zer-ikusi Maalen-plautiri ona etortiaz?

—¿Euki ez, ostera? Iparragirren sarri egoten dok ori, ikusiko ioan arraine, ta bertakoak uketu gure ize-narren, arrainek antxe agertu izengo ioan nire izena, ta aor suak arturik etorri izengo de ori, berorrenzat ekarri eztozalako.

—Aulan bai. Orretaraezkero Maalen or dagan artian ¿ezin etxera dxuan zeikez e?

—Eztok etxura.

—Orduan-a, Santa Katalina, egon gaixan beste pixkaten, ontxe dator politetna ta. Batei ¿Zumaidxarrena ta Ingalatierrakua ta Donostiakua ta eztatoz ontxe?

—Lelengo lelengo Zumaidxarrena, gero Donostiekoa ta gero Ingalaterrakoa ta alanik.

—Tira ba.

—Lekeitiotik zorgiñ-izena arrika lepoan ezarri-ostenean, ibili ta ibili ta ibili (orduen ez egoan bide barririk) Ondarroaraiño enintzen gelditu. Nire ustea zan Donostiera eldu ta andi Frantziera edo norabait gizon egitera ioatea. Ondarroako zubire eldu nintzenien, ardategi-batera. Mutilek, arpegien igerri bear izen ostien dirurik eneukena; ta an egozan mariñel batzuk esan ostien:

«Lekaitioko itxas-sapuu: ire urdailliin aspaldidxon ezta gauza andirik sartu ta beste ordu betiin jan barik baengo, abadii etorriko litzake oliaziñoiaz, da artuik ze o zer, il baiño lenago, geure kontura, koitau orrek».

Mutilek, eztozu, Ondarrutarrak langorik ikusi. Adiskide askok baino Ondarrutar arerio batek sarri mese-de geiago egiten daki. Alkar ikusi eziñik egozan orduen Ondarrutarrak eta Lekeitiarrak, eta a ta guzti bere errukitu ta gura neuen beste sagardao ta ogi emcn ostien. Ni orduen oker-samarra nintzen, da eskerrak emon-bearrean ¿badakizue zer esan notsien? «Agur, Apostoluek». Eta au esanaz arinketan asi nintzen zubien zear. Atzera begiretu neuenean, bost ukubil ikusi ta zemai, andiek entzun neuzan. *Zemai*ek esateko gure errien *amenazuek* esaten da.

—Lenago be itandu neutsun Apostoluak zegaitik esaten deutsen Ondarrutarra! Lekeitiarrak.

—Ortozik sarri ibiltan direalako.

Gau-illunean eldu nintzen Zumaiara ta txalupa baten barruen lo egin neuen. Goizean goizeti eguzkiez batera ioan nintzen bonbo batera. Bonboa esaten da gure itxaserrietan Galiziarren *jaludió*, ingelesen *vessel-gaiti*. Patroiekana ioan da esan notsen ia ezeuken nieztat ogibiderik. Nor da nungue nintzen itandu ostean, enotsan esan gura izen Batxi Satika nintzenik, osterantzean eztakit zer iazoko zand-a. Txotxo-tzat artu ninduen. Iru ilebetea nik irepaziriko diruegaz Lekeitio barri bat Satikan egin leike.

—Lenago Bilbo esan zenduan, on Lekeitio.

—Gizona, asko gitxiago bere ez.

—¿Ainbeste diru zelan?

—Batetik *pleit* onak (gaur galdute dago *kabotajea*). bestetik *kontrabandue*. Urabilla, nik orduen, neuk gura izenezkero sartuko nendun kontrabandue, sartuko nendun karabineruen begi begitik, eurak ikusi barik.

Bagatoz bein Baionati Donostiera ta Iaungoikoaren asarreak, aberastasun larregi gura genduelako, putz eginda bota ginduzen Amen etxera, itxasoan erdi erdira. ¡Alakorik! Orduko aizetea ta ekatxa langorik eztau gizonen begik ikusi. Gure ontziek masta bi eukazan da biek zati zati egin euskuzan aizeak; da geure buruek osorik atara gura bagenduzan ¿zer egin bear izan genduela uste dozue? Artu urrezko erloio edo orduari ederrak eta ¡part! itxasora, artu diramantezko belarritakoak eta ¡part!, artu eskuturretako baliotsuak ederren ederraz begiratu ezin lekioenak eta ¡part! Orduen itxasora ieurtigi genduzan aberastasunek emen

pillotuta balegoz. beste munduren baten zagozela uste izengo zeunkie.

Ta au egin ezpagendu ondora ioango giñean. ¡Urabila! ¿Nok esango leuke nire mosuko bizar erdigorri erdi-uridin onei begiretute, nik onenbeste aberastasunegaz neure burue itxasoari erosi neutsela?

—¿Zelan etorri ziñean ba liorrera mastak zatitu ta eukiezkero?

—Ori etzan gauza gatxena. Aizea eukiezkero, edo zer egin leike, baie guk aizerik ez. Gizonak ezekien zer-egin. «Ia Bizkai, esan osten patroiek, ia Bizkai, guk eztegu asmatzen nola demontre juun lezaken Donostira aize gabe ta arraunik ere gabe. Ia Bizkai.» Nik orduen esan notsen: «neuk esaten dodana egiten bada, ogetalau ordu baiño lenago Donostien sartuko gara.» Neuk gure nebana egiteko esan ostenean, eskatu neuen iketza ta ezegoan, arrasta edo su egiteko *posporoa* ta ezegoan. Gizonak, esan notsen orduen, zuek gurago izango dozue Donostiera ontzi erdiaz eldutea, ontzi osoaz itxasoan gelditutea baiño ¿ezta?

—«Zer esanik ere etziok» erantzun osten batek. Bada (nik orduen) bada ontzi erdiegaz Donostiera elduleko, beste ontzi erdie erre bear da. Ezostien au ulertu, baie an egozan zortzi beso neuk esaten neuna egiteko, zabal zabalik.

Kareleko ol guztie kendu genduen lenengo, zatitu bere bai, ta zatiek zuzitu ta ezkotasuna edo ur guztie kendu, alkar igortziez sue egin, da gero ipiñi genduen bela eeundi bet oerako txanoa legez beera begire. ¿Eztozue iñoiz ikusi, mutilek, komediantek Lekeitiora datozanean, zelanik ipinten daudien Eliza-aurrean *globo* bat eta dingilizka iru edo lau katukuma; ta zelan sue

egiten daudien, da ke guzlie globoan sartute, globoa gora ta gora zeruetan ostendu edo ezkuta-arte katukumak lagun dabezala ioaten dan? Geu giñean, egin kontu, katukumak; neu *homediantea*; ontzi erdie egurtu ta sua egin da beren kea bela andi baten barruen sartute, zerruko aize-puzkarik bere ezegoala, ziri zara ziri zara Do nostien sartu giñean. Orduen patroiek ukabillaz belaurue iota, «Txotxo: eo alde txarrekoa, eo Batxi Satiki aiz i», esan euen.

VIII

Artzaiñak asarratu, gaztaiak agertu

Donostiako iazoeraak esaten asi ta batera zarata bat entzun eban Batxik beren etxe-inguruan, eta isilik eta adi ta zurt egoan zer etezan ezekiala. Madalen Plautiri ta Kose Satika zirean atea edegi ta urten ebenak.

Batxi ta lagunak orduan, euren arnasea zurrust egiñaz, gerizea batu nairik, geldi egon zirean. Arek ostendutakoan, Batxik etxeratu bere nai eban, ez bere bai... ¿Baeteekian berak barruak zer eskatuten eutsan?

Koseparen ekiñak baiño Kose-ren astuntasunak ardua geiago emoten eutsan. Izan balitz bera esku-zabala... diruaganako aiñ itsutua izan ezpalitz... diruaz edegiten eztan aterik, samurtuten eztan biotzik, baketu ta baretu edo iabalduten eztan aserrerik eztago ta etxeratuko zan; baiña... zer edo zer aaztu bailitzakion. beera begira ta atzazalak iaten egoan.

—¿Onan egoteko gara, Batxi? Goiazan, goiazan etxera ta lotara; ta nigaitik-i lorik egin nai ezpada be... ¿guztia be zer ixango da ba? Bidxar iru sermo entzun-biarra: bat Elixan, bi etxian: aor nun dirian iru. Etzi

beste iru ta or konpon. Tira, Batxi, perretxikotu barik: edo atzera, edo aurrera. Ogei esanda dxuango gara. Bat... bi... iru...

—Ogei, esan eban Batxik, irri-barrezka zutunduaz. Urabilla: umea gizondu teko, urte asko bear izaten dira; gizona umetuteko, gau bat izan da naikoa.

Aurrera: datorrena datorrela. Urabilla; ori ate orí ta ikusiko dogu Kosepak zer diñoan.»

Lagunak orduantxe etxera bidea artu eben. Urabillak io eban atea ta auzoko txakur guztiak itzartu edo esnatu zirean. Kosepak ez eban itzartu zaneko ezaugarriarik emon. Bigarren ean ots egin ebanean bere, txakurrak bakarrik erantzun eutsen. Irugarrenez atea io ebanean, agertu zirean ezkerreko aldetik Madalen Plautiri ta Kose Satika.

—Iparragirren eidago ostate ona: biar dabenak, antxe eskatu, esan eban Madalenek.

Eta Madalenek: «Urabilla ¿i nor azan badakik? ¿Badakik toilla zer dan, itxasoko arraiñik bastuena? Axe baiño be bastuago az i.»

Urabillak barriz destaiñaz eresi eban:

Madalen Busturikok
gabian gabian
errondia darabil
bere portalian.

Onetan agertu zan Kosepa ta buruko zapia lotuten ziarduala, esan eban.

Eztogula guk iñor biar: geu gara gu naikua. ¡Orrutz! Iparragirrera egunez ¿da gabaz Satikara? Eztogu biar gabontzik.

Urabillak orduan astiro astiro ta burua okertuta:

Ai Madalen Madalen
Ai Madalen Madalen

Kosepak berari: Urabillako buru andi, orra banai-dxatok, aurreko agin andi prantzes-txirritxirridxen agin andidxok kenduko dauadaz. Oxuadi eure etxera, astoko; "a kantaidxok antxe eure arreba papu-andiri Batxik eka-rririko kanta ganora bakua.

—Batxi isillik dago, esan eban Batxik berak.

—Baita geure kortako idi ta txalak be ixilik dxago-zak. Entzun dozue Iparragirren daguala ostatu ona ta eztaukagu zer-esan geidxago. Kose, neu be eugaz naid-xoiak, Madaleneri lagun egitera.

—Orrek esan nai dau ze (iarrantu eban Urabillak) emen-e Maalenegaitik euki dabela Batxi, lengusua da-lako ez.

—Orrek esan nai dau ze i-lako umiakin dabillen gi-xona ezuala gixona; ta ezabela ezkondu-teko asmorik artu biar, txori-abidxatan ibilli baiño.

—¡Aunetxek emon dxeustak ontxe ogeta amaika esku eskutik! Atzo be neugaz ebillen Batxi, araiñegun be bai, araiñegun-atxeti be bai; baita astelenian be, ara-ko Maalenen Ama neugana etorrita neuk dakidan gauza bat esan eustanian.

—Guzurra be berbia da, Urabilla.

—¿Da guzurra da, Madalen, atzo arratsaldian geu-rian egon ziñiala ta geure Amari zeuk esan zeuazala Batxik aureskua egiteko bidxar, neu ixateko neskaak ataratekua; ta atara biar zirianian Elixapian egongo zi-ñiala zeu? ¿Guzurra da?

—Lotsabaga lotsabagiori, ume gorri, baba-lasto. tentel...

Urabillak orduan, txapela erantzita:

—Esan geidxago be, Maalen. Bariak dxaniko surra ta azpillduriko zakatza baneukaz, beste bat edo batek daukazan antzera ;;nik entzungo neukez entzutekuald!
¿Ezta, Maalen?

—Txotxo: isillik ezpaago, musturreko bi emongo deudadaz txistua baiño ariñago.

—¿Musturrekuak? Esaten errezago ixaten da, Kose.

—Aor daukazak. ¿Geidxago nai?

—Gero zeuk be arpegidxa daukazu gero, ta neuk be ukabilla.

—Aor beste bat be.

—Gero zaarrago zara, baiña beste bein dxoten banazu...

—Baita beste birritan be, nai baldin badok. ¿Geidxago?

—Batxi: testigu izango zara: ira bidar dxo nau beronek lenengo.»

Oratu eutsen alkarri. Emakumak txilioka, txakurrak zaunkaka ta arnasa-oska auskari biak ziarduela, atarietara erdi-iantzita urten eben auzoak.

Matasa bat azkatutea baizen gatxa edo zailla izaten da auzka edo burruka bat adierazotea, batez bere tar-tean emakumarik badabil. Ukabilkada asko ta berba iraingarriak ugari artu ebazan aizeak. Ukabilkada osdunen artean konturakoena Batxik, bakeak egitera ioala, Urabillagandik arturikoa izan zan. Kose Satika, Urabillak beste indar euki baleu, Urabilla-lako biren bildur etzan izango. Urabillak barriz euki izan baleuz Kose-ren maltzurkeriak, Kose-lako lauri arpegi emon al izango eutsen. Urietako erloio edo orduariak pisu astun bi

dingilizka daukazala ibiltzen direan gisan, Urabillak bere beso banatatik Kosepa ta Madalen erdi-dingilizka eukazan, Kosegaz ekionartean.

Nekez berezi edo aldendu ebezan auskari biak. Batxi eroran eban beren adiskidea goiko bidean zear. Beste auzo guztiak gelditu zirean beste auskariaren inguruan.

Urabillak orduan, esker ona erakustearren, lagunari: Batxi, eztago ardurarik, esan eutsan. Satikan baiño obeto bizi izango zara Urabillan. Alkarregaz lo eingo gaur.

—Eskerrik asko, baia guztiek eztire i-lakoak. Urabillan txakurrik ezpalego, etxeakoak eurek zaunke egingo leuskite; ta oba da bakea. Geurkoa edonon igaroko dot: biar Iaungoikoak argi egingo deu.»

IX

Iretargia Batxiren begietan

Iretargi zuritan iatsi zirean bide barrira Batxi ta laguna. Eurak alkarri zer-esan andirik ezeukenezkero (bada Urabilla asten bazan zer edo zer isiltxurik eresi edo kantaten, besteak ezeutsan iarrantuten), geuk euren orde zerbait esan daigun.

Batxiren barrua azaldutea ezta dirudien baizen gauza erraza. Eguargiz aiñube edo toki laiotzean dagozan gauzaak, illatargitan bere illun egoten dira. Biotz asko iaio dira beti aiñubean egoteko. Beste batzuk barriz besoen eragikeran, ezaunen irribarrean da miñeko berbetan, egiñenetan baizen argi ikusten dira.

Oraiñarteko agerraldietan Batxik eztau berba gitxi egin, beren arpegia ezauna dabe irakurleak; onan da guzti bere, eztau iñok esan al izango zelango biotza eukan.

Gure gorputzeko odola zanetan zear gibelean .sartu ta birien arnasa-gorabereaz beaztunaz batera bizi al balitz, gizon asko biotz bagarik bizi al izango litzakez: Batxi bai beintzat. Alako gizonakaitik, iñor benetan maite izaten eztabelako ta iñori gorrotorik eztautselako, sarri esaten da: «biotzik eztauko orrek».

Beste bular askotan barriz biotz asko bizi dira, lurrak gozatuteko euria ta eguzkia bear izaten dabezan antzera, negarra ta barrea bear izaten dabezanak. Esaten baiake gizon askori alargun bat bizi dala iru edo lau seme-alabagaz, arrenean, sukalde su bagakoaz, gauza berorik egun osoetan sabeleratu ezinda... nai gizon basto ardantegi-zale batek emazte langille, maratz, berakatz-atala makillaka ausi ausi egiten dabela... nai txaltxu bategaz, seme bakarragaz legez, gozaro bizi dala agura iñor bagako bat, eta bera lo dagoala, motzaila edo ijitanoren batek txala ostuta, bizilagun barik gelditu dala... onako gauzarik entzunezkero, biotz askotatik begietara negarrak igoten dau. Entzun baleie barriz mutiltxu bati, sagar-lapurretan ibilli dalako, base-rritar gizatoren batek iarraitu dautsala ta orduantxe eskuia sapatzean ezarteko eukala, larrapast edo laban eginda iausi zala gizatoa ta bitartean mutiltxuak iges egin al izan ebal... onakoetan biotz andiak ezpanetara barrezka igoten dau.

Eguraldi ta biotz aldakorrakaitik esaten da:

Eguzkia ta euria
Martiko eguraldia.

*Negar da barre
txitxi-burduntzi.*

Negar da barredun biotzak biotz andia dabe euren izena.

Biotz andiko geienak izaten dira onegiak, eta onegi geienak elduten dira *egi* orretara onak izan baiño leenago. Azalduko dogu au bere, Batxik eta lagunak euren isiltasunaz astitutun gabezanezkero.

Biotz onegi guztiak eztira onak izaten. Neska zaar bi balegoz alkarri esaten «nor da gure artean gazteena», gazteentzat bat edo bestea eukiko gendukez, gaztetzat barriz ez bata ez bestea. Sarri izaten da gaztea gazteena baiño gazteago. Biotz ona beti izaten da onegia baiño obea. Biotz onegiaz ona egiteko, aza orritsu buru txikidunakaz anabakea egiteko egiten dabena egin bear izaten da: bare ta marraskulo ta osterantzeko mamu txikiak ianiko ta eguzki zargoritsuak zimelduriko orri edo ostoak, mutuldu edo mutildu edo soildu. Biotz onegiak, ukatu bear dabenean bere, eztabe ezer ukatuten. Eurontzat egiñak dira batera datozen esakune onek:

*Kanpo ederra, etxean gerra,
Kanpo ederra, etxean bela.
Kanpoan eder, etxe-kalte.
Kanpoan uso, etxean otso.*

Urabillako morroskoa, biotz onegikoa barik, onekoa izan balitz, beren oe-alde bat eskiñitakoan Batxik aintzat artu ezeutsanean, auxe gitxi bat gora-bera esan bear eban: «Adiskidea, nigaz lo egin nai ezpadozu, nik ezin or zear lagundu neizu.» Eta au esan bear eutsan, ez bakarrik etxeakoak arduratan eukazalako ta gazteentzat, batez bere, etxeako beroa ta argia, kanpoko otza ta

illuna baiño egokiago direalako; besterik ezarren an-txiñako esakune zaar onegaitik:

*Munduan nai dabenak
luzaroan bizi,
oilloakaz oera,
txoriakaz iagi.*

Baiña Urabillak ezekian ezetzik esaten, da, txakur-rak ugazabari legez, Batxiri zintzo zintzo lagun egin eutsan gau atan bere.

Berbetako gogoia eukan Urabilak, Batxik ezeutsan ez aurrerazpiderik ezta erantzuerarik bere emoten la-gunaren esate geienari.

Lau edo bost bidar esan eutsan au: «Gero ni Alka-tien aurrera eruango banendue, bakizue zer dxazo dan: Kosek berak iru bidar eskua ezarri deust.»

Iru bidar gitxienez beste berba onek: «Maalenek onezkero esan dau beren artian: Urabillak daukaz erruak.»

Urreneko txakurren zaunkari egiten iakena egin eutsan Batxik bestearen esanai: iaramon ez. Baiña ara-ko asi iakanean belarriak gozatu ta izena gooratuten, orduan Batxi gozoz adi egon zan.

Eztaigun galdu eurenik ezer.

—Zuk, Batxi, dana dakizu ta dxakingo dozu ire-targidxa zegaitik agertuten dan batzuetan, gaur lez. arpegi andi andidxaz; beste batzuetan, abadiak mutil-neskatillatxuari emoten deutesen Garizumako txartela legez, atala kenduta; beste batzuetan barriz ¿zelan iza-ten da bedarra ebateko edo maats-batzeko makets edo gurguilua? alakoxia; edo gaztaiari egaletik kenduriko azala letxe mee mee, kako kako ta zuri zuri. ¿Iretar-gidxa bat ezta ba?

—Bat da iretargie, ta beti arpegi-biribilkote arpegi-andie; ezta iñoiz bere argaldu edo makurtuten, loditu bere ez ¿baie badakik zer egiten dauen? Eguraldi on ona, egun onetan langoa, dagoanean, adurre dario-la, esaterako, egoten da geugana begire. Eguraldie aize-tara nai euritara aldatu bear dan egunetan, aizea ta eurie zerutik datozana badakik eta iretargi papuandie zerura begire geldituten da. Ta gero guk arpegi erdie baiño ezin ikusi. ¿Ulertu dok? Esaterako, neu naz iretargie ta iri begire naiagok, eta ik niri arpegi guztie matraille biekaz ikusten deustak. Aritu edo begiretuten baiot barriz Iparragirrera, ik orduen nire arpegi guztie ezin ikusi izango dok, surra ta alderdi bat baiño. ¿Zegaiti? Biredea emon dodalako. Bardin iazoten da zeruko arpegi-andigaz.

—¿Eta zelan da iretargidxa beti geuri begira ego-tia? Itxasondora bagoiaz, itxasondora bera be; mendira dxuanekero, bera be mendira; ta ni Elantxobera banoia ta zuk Motrikura dxuan nai badozu, aida edo era batera dxungo da nigaz Elantxobera ta zugaz Motri-kura. ¿Andidxa ezta au?

—Ezadi arritu: andiegorik ikasiko dok, nigaz baabil. ¿Badakik zegaiti dagoan ibiltaunari begire? Bateti eztok ori logure izaten, egunez lo egiten dauelako: ire-largieri esan leio zeruko *serenoa*. Bestetik kontu egin deigun odei-ertzean doala ontzi aaaundi bet; eta i agoa-la ari begire. Ontziti i ikusi al izanezkero, esango leu-kee euren artean: «¿Mutilko orren ikusgurea! Geldi geldirik dagoala, orren begie beti dago geure ganean.» Urabilla, ik eztakik mgeles-berbetea ta agiri da: ingeles liburuek diñoze ze iretargiek adikune edo begirekune bategaz ikusten dauela lureko ta itxasoko une andie; Ia une orretan dabilzan gauzek ikusteko, eztaukela zir-

kin egin bearrik. ¿Ulertu dok? Euk ontzie dabillega ikuseran ¿burueri eragiten deutsak, a ordu erdien ikusteko? Ez. Txori bi bide baten pekorotz-arteko artagarraneuk iaten dagozala, iñok arririk ieurtiezkero, bata bateti ta bestea besteti doazanean, ire begiek batzukaz Elantxobera ioazak ta besteakaz Motriku-aldera ¿eztok egié? Bada iretargiek, gu ikusteko, eztau zirkin egin bear.

—Eta une orren ertzera elduezkero ¿iretargidxak zirkin eiten dau, ala atzia ikusten dxako?

—Zelan dan: batean zirkin egiten deu, bestean atzea ikusten iako.

—¿Zeuk ikusi deutsazu sekula?

—Madaleneri arpegie baiño sarriago bai.

—¡Madalenen arpegidxa! ¡A ze ikustekua! Bariak dxaniko surra, plautiridxak sakatzetan, belarridxak udan be azkordiñ edo ozpel-eske, agiñak iñori kenduak dirudidxenak, begidxak barriz txalena bata, katuak egunez eukiten dabezan lakoxe txiki betule batua bestia. ¿Arpegidxa da a?

—Egon adi, neurea esan daidan. ¿Iretargien atzea ikusi etedodan? Nik ikusi eztodan gauzarik eztago.

—Neuk be bakit ori.

—Banaioak bein (Inglaterrako *Upland-en* zan au: gero esango deut *Upland* zer zan) banaioak, ioan, da ioan, da ioan, eurrera beti, ta beti iretargieri begire: amakak (gaubekoak) io ta Batxi ibiltan, io am.abi.ek; eta Batxi eurrera, io ordu batak eta ordu biek eta iruiek... eta Batxi Amaren atzeti akitika dabilen txalala baino bizkorrago. Bildur nintzen albizarra amata edo itzali ta bera ostenduko eteiaten; baie Batxik be-reagaz orduen bere urten euen. Urabilia ¿badakik zelan

egoten dan laratzuti beera dingilizka, esnea egosteko maskillotxue, barruti garbi garbie ta kanpoti kez da kedarrez edo i-iutukoz baltziturikoa? Alangoxea da iretargie: aurreti argie, atzeta gabaren Ama.

—Iparragirrera dxuanezkero ¿ikusiko litzakidxo atzia?

—Eztot uste; baie euk gura dok eta eurrera.»

Eta gure biotz andikoa ta biotz bagakoa Iparragirrera ioan zirean: bata iretargian garondoa ikusteko leian, bestea Iparragirreko neskatileari arpegia ikusteko gogotan.

ARABAKO EKANDU BAT

\ SPALDION bere askok aitzuta dauke emen gomutaratu edo oroitu nai dogun ekandua edo izkunea.

Doniane-goizean, datorren ileko 24-garrenean, Bitoriatik urteten eban Diputaziñoē edo Ekautak, erririk erdia atzetik ebalā, tanbolin-soiñu ta guzti. Zadorrako zubira (Bitoriatik ordu-erdi luzetxu dago zubi au) eldueran, aurretik izentauriko batek paper zuri bat iaurtigiten eban ibaira, esanaz: paper au atzera daiorrenean, kenduko dabez Arabako legeak.

Papera ezta iaurtu edo atzera etorri, baiña Araban eztagoz Arabako legeak.

Euskalerrian geure Lege Zaarra eukiteko ¿Zadorrako papera noiz etorriko begira egon bear izango etedosu? Ezkenduke nai.

o

LORA BI

i

\/\ AIAZLEN-EGUNA zan, esne-eguna. Erria zein zan iakin barik bere, ezautu giñaike egun onelan iazo edo gertarikoa. Elizondoan atsotxu bat egoan, iauregi bateko baratzañaren Ama, txibi-azurra baiño garbiago, berakatz-atala baiño zintzoago ta eguzkia baiño goiztarragoa. Zurezko aurki edo auki txiki baten ganean iarrita egoan, kaltzerdia egiten, aurrean otzara zabal zabal bat loraz beteta eukala. Lorak ekarri-barriak zireana euren ganeko garo-tantaak agiri eben. Eder da itxusi, txiki ta andi, usaindun da usainbako, lora guztiak egozan nastean; itxusi geien geienak pozarren, eder geien geienak deskeilla. Eder bat egoan gorri gorria bera, orri-zabala ta aróla edo aputza. Loren aroltasuna ta gizakumeen arrotasun edo arrokeria bat dira. Beren ondoan beste lora txatxar bat egoan, ikola, kakotua, zimela, erkiña, usaingea ta maluskaua. Loren ikoltasuna ta gizakumeen apaltasun edo umiltasuna bat dira. Lora ikolak, beren burua lora arol ondoan ikusi ebanean, uste eban berba gozo, mamintsu, zakon, ederrak entzun bear ebazala; ta isil isilik eta zur egoan nori zer entzungo.

Lora arolak lagun bati esan eutsan: «Au oteda gure anditasunari dagokion tokia? Pozez egon gera kalera etortzeko, baiño obe genuen baratzean geldi geldirik

egondu. ¿Eztitun ekusten lotsa gabeko belar auek? Azun-ostoa ere or zegon, gure soiñekoak erre naian. Or zegon aillorba-lore zakarra ere. Idien urdaillean bizi izateko jaio aizen ori ¿gure aldamenara ator? Emen beste bat ere, sasikoa da berau, Aita gabea. Urren datorren ingumari esan bear zionat, eraman nazala berarekin egan beste leku batera.»

Lora ikolak lotsaz ezeutsan au-gora-bera ez miiñari ezer erazo, ez arolari arpegira begiratu.

Eldu zirean onako baten loradun atsoagana iru emakuma, ondo iantziak, ondo edo... ederto beintzat; arpegia autsez beterik euken, eskuturrean errosario-garau ikusgarriak, eskuan Elizarako liburuak eta minean edo erdera utsa edo erderazko euskerea.

—Maria Antonia, esan eutsan batak atsoari.

—Dama ederrak ¿zertarako ari dira neri gaitzizenak jarten? Nere izena Mainton da, al dedan gauza guzietan serbitzeko. Lore ederrak ditut, berok bezin ederrak ez; baiño eztute oberikan arkituko gure erri ontako baratzetan.

—Amandre, guk nai genituzke lorerik *aromatikoenak* eta ostorik *bistosoena* dutenak. ¿Badaki? *Hijas de Maria* gera ta gure Amaren aldarea ederki *adornatu* nai genuke.

—Gauza oiek eztakit zer diran; baiño nere loreak daramazkiten damak, apainduko dute, beste iñortxok baiño ederkiago, gure Ama Mariaren aldarea.

—¿Zeinbat balio dute?

—Nik amabika edo dozenaka saltzen ditut. Ara nola. Nik ematera, erreal bat eta erdi *dozena*, erreal bat ere bai; berok antzera berriz bi erreal: au baiño gutxiago ardit bat ere ezin izan litezke.

—¡Amandre! ¿*Antiojoak* aldauzka loreak ikusteko?

—¿Zergatikan dio ori?

—Lore abek eztira ez *karne* ta ez *peskado*.

—¡Damatxoak! ¿Baiño ze uste dute? ¿Zer esango lukete errikoak, berok bezelako dama aundikiak erreal bigatikan beron ezpain gozoak izketan nekatu dituztela, jakingo balute?»

Atsoak ondo ekian gazte aren barri. Euren aberasatasuna ta errikoen zer-esana argitara ataraezkero, alako emakuma buru-ariñak, buruko gatz-apurra soñekoetan urtuten iakenak, beti lakirion iausten dira.

Iruren artean sei amabiko eroan ebezan. Lenengo amabikoan sartu zan gure lora aróla.

Ezeban goiz txarra izan atsoak Maiazlen-egunekoa.

Aren ondoren beste emakuma batzuk etorri zirean lorak erostera. Eguerdi-inguruan ezeukazan otzaran bedarrak baiño, euren artean gure lora ikola ta beronelako zimel ziztriñen bat konturako artuezik.

Eguerdi-inguruan beste atsotxu bat, marroiz rnarroa iantzia, urreratu zan Maintongana, lamaiko edo lauko bat eskuan ebala. Maintonek, bedar da bar, lora-muskin batzuk emon eutsazan: euren artean gure lora ikol, zimel, tximurdun, ziztriña.

II

Eldu zan illuntzea. Erriko etxe geienetan apaldu ta sua amata edo itzali eben. Gizon da emakuma, zaar da gazte, eurrez ioazan erritarrak Elizara, Maiatzeko loretara. Isildu zirean txiliñak. Mutil-koskorak Elizateetan egozan, gizonak botateko eukezan zigarro-ondakiñak artuteko gertu ta ernai.

Asi zan zarataka Organoa. Andra Mariari berariz egiñiko altaran argiak isio ebezan.

Goiko aldetik erderazko *Venid y vamos* kanta edo eresi eben. Asi zan Elizkizuna, asi zirean loraak.

Abadeak bigarren arena esaten ziarduala, torreko txilinak *aremaidakoa* iota gerotxuago, eldu zirean goizeko iru neskatillak, *Kirris karras* andiaz ioan zirean altara-ondoraiño. Maintonen laguna, arako lora ondakin bat edo beste lau maraiko baten erosi nai izan ebana, egoan iezarrita altara-aurrean; da, txiroak edo diru-bageak oi dabenez, andikiak ikusi ebazanean, iagiaz, beren iartokia eskiñi eutsen. Iru emakuma andikiak, lotsa andi barik, itxi eutsen emakuma zaarrari, iagi ta bee-ganean iezarten. Begiratu eben altarara ta *jaren* poza! eurak ipiñiriko lora ederrak zirean altarea geien apainduten ebenak.

Ain zuzen bere, goizeko lora aróla ta ikola alkarren ondoan egozan: ontzitxu eder baten barruan bata, beste barriz muna-bedar da iia-arteetan batu batu eginda, burua erakusteko lotsarren.

Argiak isioten asi baiño lentxuago urreratu zan atsoa altarara; ta beren bedar-txorteari mun egin da Andra Mariari samur samur begiratuaz, lora ederren atzeko aldean itxi eban beren eskintsaria.

Lora-usain gozoa artu ebanean lotsarren esan eutsan Mariari:

«Nere Ama, nik ere diru geiago iduki banu, lore obeak eskeiñiko niozkan.»

Lora ederrak beingo beingoan ezautu eban itxusia, ta ezautu ebaneko asi iakon berba-ernariak esaten:

«¿Ze aizek ekarri au onera? ¿Elkarrekin biziak algera, *nere* ondoren beti ibiltzeko? ¡Utikan! ¿Erri ontan-

ko zaldiak ezaldute orain belarrik jaten? Enazazu, ukitu, kirastu orrek.

—Badakit ernen egoteko jaioa enaizena ¿baino zer egingo det, ekarri egin naute-ta? Barkatu, laguna.

—¿Laguna ni, ire laguna? ¿Noiztik onera? Eziezakala itzik ere neri egin, zakar, itsusi, saturako ere balio eztekan orrek.»

Onenbestegaz isildu zirean loraak eta asi zan irakastegitik abadea Mariari egun atako loraak eskinten. Andra Mariak orduan begiratu eutsen lora eskiniari ta bat batera zimeldu ta usteldu zan lora ederra. Lora ikola ta bedar zimel lagunak barriz, lureko bedarkik tztaukan gisako usain gozo gozoa zeruraiño bialduaz, Andra Mariaren biotz samurra poztu eben.

Ezta esatekoa zelango zauskadea artu eben neskatilla arro arek, euren loraak igartuta ikusi ebezanean.

Biotz biotzetik urteniko adorea bear dabe Mariari eskinten iakazan loraak; osterantzean euren usaiña zerrura eldu-orduko, ikoldu ta zimeldu ta igartuten dira.

PB AK AMAN DA PRAKAMAN

J-dun erri, euskeraz ederto egin oi dan baten, Aita-seme batzuk bizi izan zirean, alkarren antz andikoak sgikeretan da arpegieran, ganera izen batekoak eta ezizen bardiñekoak.

Semea gaztetxua zanartean, Aita *Prakaman* zan, semea *Prakamanixu* edo *Prakaman txiki*; semea gizondu ta Aita aguratu zireanean, semea zan *Prakaman*, Aita *Prakaman zaarra*; Aita üdakoan barriz, semea geratu zan ezizen osoan iaube bakar. ¿*Aritxa* ta *ospala* zer direan nok eztaki? *Aritxa* ta *aretxa* esaten dira Bizkaian, Gipuzkoan *arilza* deritxon zugatzari: batzuk edozein zugatzi esaten dautse *aretxa*. Ospalari espala ta sozpala esaten dautsenak bere badagoz,

Onenbestegaz nai baiño obeto adituko dabe gure irakurleak ipuin au.

Aita-seme onek alkarren antz andikoak izanarren, baeukezan orregaitiño bakandu edo ezbardinduteko zerak: biak zirean berbaldunak edo barritsuak, miin labanekoak, eta edonogazkoa eukitekoak; edo, bizkaitar zaar askok esaten dabenez, lagun-abarrekoak. Au gorabera zaarra etxe-zalea zan, kaleratia gaztea; Aita beargiña, semea zuri utsa. Au langintza edo ogi-bide asko ikasten asi zan: arotz, argin, dendari edo iostun; da azkenez lepoa azi ta urdaila nasaitu ta Aitari ziskua

edo sakela estututen asi iakanean, itxas-gizon egin zan. Prakaman zaarrari semean itxasorateak urteak asko laburtu edoetsazan; bada aritx sendo, soin andiko, luzarokoa zirudiala, bat batera, gizagaisoa. goizerik gaberakoan, makurtu ta lurreratu zan. Gazteak, sei ille-bete geroago Donostian il-barria iakín ebanean, oiñez errirako bidea ariu eban, Aitak errape ondo betea itxi ebalakoan; baiña titi batekoa izanarren, zulo andikoa izan zan bera ta uste baiño lenago agortu zan.

An ebilen gero Prakaman nun eztegua ta antxe, nun batzarra ta barruan, nun mondxorra ta (langillea izan ezarren) aurrerengo. Emakume-artean bere lotsa andi barik sartuten zan; da emakuma askok, atan neska ¡zaarrak, lotsa gitxiagoaz ezeben eurakandik bialduten.

Euskalerriko barri eztakienak izan leike esatea ¿noiz batuten dira emakumak, gizonezko barik, ian-edanetan? ¿Orren griña txardunak dira? Eztira, ez, griña txarrekoak. Euskalerriko emakumea baiño bearigin edo langilleagorik eztakigu beste zein Erritan aurkitu al izanso dan; ekandu onetakoak dira: etxerakoak, goiztarrak, edozein lanetarako soskoak edo indartsuak eta maratzak edo esku onekoak. Euren buruari lotsea emoten dakielako daukez euren arteko batzarrak eta bein edo beingo ian-edantxuak: ondretan edo Elizkari-ostean da Ama barri bat ikustera doazanetan. Emakuma bat, seiñ egin-barria, sendatu ta urrengo iaiegunean, beren aide ta auzoak (andrazkoak guztiak) ikusi daroe; ta ogi-ardaoa, beste zer edo zertzugaz, alkarregaz artu oi izaten dabe. Onako batzarrak euren izen egoikia dauke: Markiña-aldean *batiua*, Arratian *balaiua*, Txorierrin *Andra-ikustea*, Gipuzkoako erri batzuetan *maTtopiila*, Napparoko batzuetan *atso-opiia*.

Onetarikoxe ian-edanetara bere Prakaman barrezka barrezka sartuten zan. Onakoetan beti egongo zan irribarrea ezpanetatik dingilizka ebala ta edozein andrazkori, neska-zaarrik azurtsuenari bere, berba loi?ingarriak esateko ger tuta. Neska zaarrai neskatillea ber nan esaten eutsen; atsoai andrea; zaar zaarra bazan, Amandre; neskatillai Donian-loraak. Seiñ barrian Amari barriz esango eutsazan ortiko ta emetiko bedarren osagarritasunak, urrunetako gurasoak umeak zelazan azi oi ebezan, da beste barri asko. Umeagaitik barriz usakumea, luma bako txitea, ego bako aingerua, udabarriko goiza... ta onen antzeko berba laudugarri ta eregu-garri asko esaten ebazan. Eta (au iñoiz aaztu barik) iñor baiño lenago asten zan Prakaman esaten: umeak Aitan antza, Aman surra edo Aitabitxin begiak eukazala.

Maian iezarritakoan, beti ian da edan egiten eban Ama barrian izenean, da bazkalapari orde. Atso batek baiño geiagok erakusten eutsen Prakamani bekoki illuna ta mustur zorrotza; ta euren eskuan egon balitz, edo atetik edo leiotik laster kanpora urten bear izango eban.

Onakoxe batzar edo *batzeme* baten, bera baiño goizago elduriko atso batzuk, asi iakazan Ama barriari esaten: «Praiske, gaur ez jako parkatuko, badator, alper, zuri, itxi, baldan, gogaikarri orri. ¿Zer ba? Beti «au egingo neuke ta ori egingo neuke» ¿ta sekula egin ez? Egin daigun bein, da bigarrenien egin-bierrik ezton egongo.

—Orraitiño zuek barru-tzarrekotzat naukezue. Neu ikustera datorren gizona, gizon bake baketsue, iñori txarrik egiten eztakixena, ogi-ardao puska bat ez emetiarren ¿kanpora jaurtiko etedogu ba?

—Praiske: ori gizona bada, geure garitzako txori-jagolak be gizontzat euki leikez. Zu geldi geldi egon. Neuk egingo jitudanaz emengo bierrak. Ekarridczue buztarri bat arin, kumatik (seiaskalik) seiña eroaizu batek oera ta kuman buztarrixe batu batu eginde ipiñiko jonagu, Praiske. Baiñe arin ibilli, an dator-da. ¿Eztakutsue an, mota-barrenien? Aren urdaille zime-lago etorriko da, zimelago... Juun adi eure bidien. Ixotxohiori.

—Mari Andres, isillago, entzungo dau bestela,

—Gero iñok eztau gero barrerik egingo. Barre-gura danak, ointxe santzo egin daixela.»

Arik lastertxura sartu zan Prakaman atarira. An egozan mai bi alkarren aurrean, biak zamau zuriz ederto iantzirik eta pitxarrez da ogiz da iakiz oparo arkoldata.

Prakamanek, eskuaz txapelari ikututxun bat egin-da, «Jaungoiko santuek gaur lazkoxe arratsalde on asko emon daiguzala guztioi; batez bere geure etxeko andra neure eskola-lagun Praiskeri, beren seme usekume sein-barri erreka-ondoko lora ederrari, ta Ama-semiek goratutera etorri garien guztixoi. Aur dago, Mari Andres be, beti lazkoxe galanta.

—Bai emen najagok ni beti lazkoxie; i ba, Prakaman, ezaz ba beti lakue.

—Mari Andres da ni auzo onak, alkar ondo artzekuek, izen gara beti.

—Txikixe intzenien gaur baiño zintzuago in tzen: bai puske bat. ¿Eztok gomute zelan ene senar zanagaz argintzue ikasten asi intzen? ¡Ai! orduen gaur baiño gerrixori bigunago eguen.

—Mari Andres beti izen dot nik Balentzietako laranjak lazkoie: azal-mingotsa ta barru-gozue. Berba jatzak eta bixotz leun leune euki deu nitzet Mari Andresek. Praiske: zeure ta jaixo-barri onen osasunerako ta guztixon onerako ardao-tanta bat edan daigun.

—Orretarako bai, esan eutsan Mari Andresek; edateko obie az i, gorputze makurtu ta lanien izerdixe aterateko baiño. Seiñe nun daguen begiretu be egin barik..,

—Mari Andres, ikusi ezpaneu be ¿zer? Semie galanta, Altara nagosiko aingeruek lazkoie berna-lodi-apu-gorri, ederra izengo dana jakiteko, Amari begiratutie baiño eztago; baiñe ez uste izen, au gora-bera umie ikusi eztodanik. Aur dago, ederrori, kuman batu batu eginde. Suurrien Aite berberbera da, bekokixen da ezpanetan Ama dirudi, ta Aitite lazkoie gizon galant lepo-zabala izengo da nire ustez.»

Au entzun ebenean, atso-neska guztiak asi zirean algaraka; bat baiño geiago egozan saiatsari oratuta, barrean barreaz arnasa artu eziñik.

Orduan Mari Andresek atara seiaska edo kumatik buztarria ta Prakamani begien aurrean ipiñiaz, esan eutsan:

«Prakaman bat,
Prakaman bi,
Prakaman nor dan
Ezetz igerri.»

Amen daukek ire seiñe. Begiretu ondo. Eure Aita be olakoxe barritsue zuen, da ezta mirari: ARITXEK
OSPALA BERE ERIKJE

PIZTIEN INDARRA

\l OK esango leuke pizti batzun soiña edo gorputza, zein txiki ta ziztrña dan ikusirik, ain indartsua dala?

Ardiak edo arkakusoak, lurrean ozta agiri dan pizti kaskar onek, kana beteko gora gorakak egiten dauz. Gizonak, beren gorputza 900 ardiren bestekoa dala konturatu-etzkeru, 900 kanako akitia edo brinkoa egin bear leuke. Ta onen beste kana eztauke Euskalerriko terrorrik andienak, bata besteen ganean sei ipiñita bere.

Erle batek, bera baiño 15 bidar aztunago dan gauza bat, tatarrez irago daike. Gizonak, erleak aiña indar beren giñoan eukiteko, 120 arroa tatarrez eroan bear leukez.

Euliak, gure sakeletako orduari edo erloioak *tak-tak* bi egiten dabezanartean, 600 egokada egin eidaikeez. Erlastar baten eztenak, iostorratza baiño txikiagoa izanarren, gizon mardo bat ill al dau.

¿Zelangoa eteda Lur-bira guztiko indar guztiak egin dabezanaren altsutasuna?

URKIOLAKO ABDAUDUNA

\ NTXIÑA, ugarazioak edo igelak arriakaz berba egiten ebenean, Anbotoko damea sortu baiño len-txuago, mutil zaar bat bizi zan Urkiolan. ¿Nor zan? ¿Zek ekarri edo eroan eban eremu atara? ¿Zein erritan iaio zan? ¿Sotilla ala itxusia zan, apatza ala zekena, mardoa ala makarra? Onek eta onen antzeko itaune asko aldaukez bat edo batzuk miiñ-ertzean, nok-erantzun euki gura leukeela.

Anbototik urrun urruneko baserri-etxe batekoa zan mutil zaar au, baltzerana, amesetan izan ezik barrerik egiten ezekiana, amazortzi urte eukazaneko alargun-antzduna, ez palanka-iokoetara, ez pelotaketarako zaletasun bagakoa, negu-txoriak lakoxe isilla, adiskide izatea zer zan ezekiana, gaztea izan bagea, edozein erritan erbestekoa irudi izango ebana: ona emen nor zan Prantzi.

¿Zelan egoten dira soloetan gerizea egiteko baiño bestetarako balio izaten eztaben zugatz, eztitzagako, lorrarik bere iñoiz agertuten eztabenak? Onetaraxe bizi zan, Ama il iakonean. Lobak ezeutsen iñoiz osabea esan, arrebaak nebea bere ez. Onen antzeko gizonak, besteak biotza dauken tokian, bigarren gibela aldauke; elitzakez bestela luzaro bizi al izango.

San Antonio-egun baten goizean goizetik iñori ezer esan barik, oi ebanez, igon eban Urkiola-ganera. Egun atan baiño gogo argiago ezaban iñoiz erakutsi; baiña ez uste izan gogaldi edo *umore* ona Elizarateak edo ardaoak edo dantzeak emon eutsanik.

Prantziri barrua zabaldu ta gogo argitu ta anak arindu eutsazana, ardaudunak egun atan baturiko dirua izan zan.

Iñoizko luzeena izan zan gau atako lorik egiñ-eziña. Ezin kendu al izan ebazan burutik Urkiolan ikusiriko diruak: izpia ta koipea ta gizena baiño besterik ezeukazan okela edo aragiagaitik zidarrezko edo urre zurizko diru ederrak parra parra. ¡Naparroan erdi duarik erosiriko ardaoagaitik odola dirutan kendu bear zala! Au egiteari ezeritxon txarto, berak ez egiteari baiño. «Egin daidan, ziñoan, zotalez da zoiz da arratalez, teilla-ordez arratalak ipiñita, etxetxu bat, urre biurtuko dana.»

Arik aste bira gizon bat ikusi zan Urkiolan, paras-mak edo armiarmak eurentzat legez, berentzako bizitokia berak egiten. Padarra zalakoan alberri askotatik ekarten eutsezan iakiak. Neguan baturiko olloak nai beste arrautza egiten eutsen: batzuk saldu, besteak zezin edo araki-ordez emon, besteak txitatak gordez, San Antonion iai-eguna eldu zanean etxea bete elikatura edo ianari ta edari eukazan. Ezaban iñoiz ikusi Prantzik orduan batu eban beste diru. Negua ioan da udea etorri, urrea gorri ta zuri pillotuten urte askotan bizi izan zan. Urkiolako inguru guztietan entzute andia ta ona eukazan Padarrak. Bakar bakarrik Urkiolako Donea edo Santua zan Prantzik beragandu ezin ebana.

Gau baten otu edo bururatu iakon gogortuta eukan diru guztia pilotu ta kopurutu edo zeinbatutea. Lenengo amaseikoari ikutu eutsaneko, *txut* esanaz, aoan sartu ebazan eskumako erpurua ta orrengo atza. Txapel zaar baten eskua sartuaz, bigarreanean asi zan dirua kopurututen; baiña alperrik: txapela ta eskua, bitzuak erre iakazan. Suetera ariñeketan urbila ioan zan gero, uraz diru aren berarizko berotasuna otzitu al izango ebalakoan; baiña alperrik. ¿Zer egin orduan? Lotsa gitxigaz Aita San Antoniogana ioan zan. Belaunikatu zan beren aurean, da erdia eskiñi eutsan santuari, baldin diru arek otzitu ta beren barruko kezkak baretu ta baketutekotan. Siniztu bere ezin egin izan eban beren begiakaz ekusana: papertxu bat *zeruko tanborra* legethez goi goitik altzora iausi iakon; da ordu bere atantxe berba onek entzun ebazan: *Batu orregaz, da berorrek diñoana egin.*

Amar urte eukazanean legez bizkor bizkor ioan zan Prantzi etxera, adurra ezpanetatik beera tantaka tantaka eriola, papera eskuetan artuta, erraz erraz kopurutu al izan ebazan diruak. Zabaldu eban gero papera, ta ona emen zelango berba osagarriak eukazan: *Ez iñori ezer onstu.* Dotriña edo ikasbide-orri bat zan San Antoniok emon eutsan papera. Bigarrenez, lenengotan baiño biotz obeaz, banan banan, aratu ebazan diruak; eta erdia San Antoniontzat itxi ta beste erdia eskekoai emoten asi zan Prantzi.

ERRALDOIA

J ONE Iñigo-gaitik esan oi eban beren lagun da seme Done Franzisko Jabiertarrak donetasunean erraldoia zala.

Zeruan, izar asko dagoz lurretik iñoiz ikusi ezti-reanak, beste asko ozta agiri direanak, eta agirian dagozanen artean andiera asko dagoz.

Doñeen artean bere auxe berau iazoten da. Batzuk lurretik eztazauz iñok; besteak lurreko errialderen bat edo batetik baiño eztira ikusten; besteak barriz lurreko edozein zokondotik ikusten dira.

Doala gizona lurreko basterrik bastertuenera, ta itandu daiala Loiolako erraldoiagaitik: edonun dakie beronen barri. Da iñungo zokondotan barririk ez eukitea gertako balitz, ziurtasun guztiaz esan geike toki atan eztakiela zeruko barririk.

Iñigo-k beren ardurapean artu eban Jesusen izena mundu guztian zabalduetea; ta arazo auxe itxi eutsen beren semeai il-burukoan. Iñigo-ren semeak, Euskal-errian eresi daroagunez, *Europar, Asian, Afrika-Amerikan* Jesusen izen gozoa adierazoeran, euren Aitalen andiaren izen goralditsua zabaldueten dabe.

Asko badira Iñigoren izena entzueran poztuten direan biotzak, askozaz geiago dira amurruarren taup

egiten dabenak; eta arek baiño onek, maite baiño gorroto dabenak, askozaz obeto adierazoten dabe Iñigoren erraldoitasuna.

Eguzkia iagitakoan, berari egun onak emotera txio-ka abiaten direan txoriak baiño zeatzago erakusten daben beren argitasuna, ordu beratantxe euren zuloe-tan ezkuta edo ostenduten direan aberetzarrak.

Euskalerrria: Zorionekoa Iñigo lango semeak daukazan Ama. Beste anditasunik ezpazeuka bere, nairoa zenduke Iñigo-ren Erria izatea, Erri zorionekotzat Lur-bira guztikoak euki zaiezan.

Poztu zaitetz guztiori, beren izena aiñ entzutetsua, aiñ argitsua, ain goratua ikuseran.

Poztu beite Gipuzkoa, Loiolan seaskea ta Azpeitin zeruko iturria emon eutsazalako; poztu beite Bizkaia, odolik erdia Iñigoren zanetan ipiñi ebalako; poztu beite Araba, Gebaratarren zanetako odolak Iñigoren zanetarako bidea artu ebalako; poztu beite Naparroa, Iruñako gazteluan odol-tanta batzun orde zeruko intz miraritsua emon eutsalako.

Beste Euskalerrri-aldeak bere poztu beitez, euren endako batek gizadi guztia Iaunaganatuteko egin dabezan lan miragarriakaitik.

Iñigo, geure Aita ta iagolea, geure Amaren Seme andia, maite zauguz, maite izan gaizuz.

Zeure Erria gorde eizu; zeure umetako berbeta eder-rrak eztaiala gure ezpanetatik iges egin; zeuk ain maite zenduan Jesus geuk bere maite izan daigula; zeure laguntasunaz sutu bei gure biotza, argitu bei gure burua, zeuk uste zenduana uste izan, da zeuk maite zenduana maite izanaz, zeugazko bizitza zorionekoa izan daigun.

BERARIZKO EKANDU BAT

1[^] ORFU-KO ugartean urtero larunbat edo zapatu done-egunean etxe guztietan ilten dabe bildotsa, ta gero iltzaileak etxetik urteten dau deadar ta zarata-artean, gaiñibeta edo aizto odoldua eskuetan dabela. Austria-tar bat eldu zan bertara onakoxe egun baten, da gizon bat eskuetako burdiña ikaragarriaz ikusirik, bera il bear ebalakoan belaunikatu ta parka eskatuten asi iakon.

Gaiñibetadun gizonak kalera ioatorduan, emaku-maak leiotik kanpora iaurtiten dabez urte guztian etxean ausiriko plater edo txaramel-zatiak.

Ekandu onek esan gura eidau, Korfu-tarrak onen-bestegaz guzurtau nai dabela askoren eritxi bidebagako bat: Judas Iskariote Korfú-ko Iskaria deritxon erritxu batekoa dala.

'AGUR MARIA" BATEN INDARRA

H MAKUMA elizkoi bat, neba bategaz eukiriko eztabaida baten ondoren, ain asarrekor ta barru txarreko egin zan, ze ziñez edo iuramentuz esan eban ezeutsala nebeari (Ama baten seme-alabak biak izanarren) parkatuko, eriotzako orduan bere. Aurrerantzean Elizara gitxitan da Altarako mai donera gitxiagojan ioaten zan.

Arik lastertxura gaisotu zan, makal makalik iarri arterainokoan. Abadeak egiñiko alegiñak gora-bera, ezeutsan ezetara bere nebeari parkatu nai beragandik izaniko iraiña. Dei egin eutsen orduan erri atantxe sermo edo berbaldigiñen eragoion elizgizon bati. Oni bere (ta beronek emoniko barri edo albistaak dira onek) oni bere ezeutsan iaramoten; da ekin, da ekin egonda gero, gaisoak esan eutsan, bera ildakoan beren illarri-ganean ezarri eiezala berba onek: «Emen datza emakuma bat, aspertuten edo kurrukea gordeten iakin dabena.» —¿Eta inpernuua? esan eutsan elizgizonak ¿elzara inpernuaren bildur?— Aspertu nazala gogoratuteak atseginduko nau ala ta oiñaze aren artean. —Bada parkatuteko adorea eukiteko ¿ezin arren edo erregu bat egin dozu? —Eskatuezkero bada- kit adore ori iaritxiko neukeana; ta eztot nai eskatu.

—¿Eta nigaitik etzenduke arren egingo? —Zugaitik nai beste.»

Orduan elizgizonak belaunikaturik *Brebiario-ik* Andra Mariaren irudi bat atara ta gaisoaren eskuetan ipiñiaz eskatu eutsan oni *Agur Maria* edo *Ave Maria* esan eiela. Asi zan emakuma kurrukatia *Agur Maria* esaten, ta esanaz batera inkesaka edo antzika edo zizpuruka esan eutsan elizgizonari: biotzez parkatut nai dausat eta neure barrua autortu gura neuke.»

Orduan elizgizonak gaisoaren pekatu edo obenak entzun da parkatutakoan, eskerrak emon eutsazan Andra Mariari, berak gaisoari eginikoakaitik.

IRU ISPILLU

H MAKUMA gazte bat, amazortzi urtekoa, buru-eritxia (¿zein ezta buru-eritxia, emakumea izan, da amazortzi urte eukiezkero?), beren erritik edo gura-soakandik urtenda bizi zan. Bein beren Amari egin eutsan guk euskeratuta darakuskun eskutitz au.

«Ama maitea: Izpillu eder bat nai neuke neure ianztoki edo *tohadorean* ipinteko. ¿Egingo dozu mesede bialdutea? Artega artega egongo naz beren begira.»

Arik egun batzuetara, gazteak Amagandik eskutitz txiki au artu eban:

«Alaba kutuntxua: Laster izango don eskuetan ik eskaturiko izpillua; ez bat bakarrik, baten ordeztu bialdu nai izan daunadaz. Lenengoan ikusiko don *zer azan*; bigarreanean, *zer izango azan*; irugarreanean, *zer izan bear donan*.»

Au irakurrita gero, gaztea gogarte edo *meditaziñoian* gelditu zan luzaro, zelango izpilluak izango etezirean igarri eziñik eta nairik. Aldiari luze eritxola egoan iru izpilluak noiz etorriko.

Iru egun igarota pendiz edo *balkoian* egoala ikusi eban gizon bat, zama edo *karga* polit bat lepoan eballa, beren etxeko atarirantz urreratuten. Arrapaladan, esan oi danez, ioan zan atera; ta gizon zamadunari itxaroteko bere arte edo *sosegu* barik, iatsi zan beera;

da ondo ekizan gauzaak itanduten asi zan: «noren izenean etorren, norentzakoa zan, zein erritatik...»

Beren gelaraiño eroan eutsenean, da bera bakarrik gelditu zanean, zoro bat legez barrezka noizko baten edegi eban kutxa dontsua. An egozan iru izpilluak, bakotxa banatan, paper lodi artan batu batu eginda. 1 azalean ekarrena edegi ebanean, bularrak ezin artu eutsan biotza zer etezan ikusiarte: izpillu polit bat zan, balio andikoa ez, baiña beinik bein, *zer zan* ondo era-kusten eutsana: gazte lirain ederra.

te Ama maitea» esan eban pozen pozaz neskatilleak eta izpilluari berari mosu egin eutsan.

Bigarren izpillua ataraten asi zan gero. Ezin esan leike gazte aren ikarea, izpillutzat buru-azurra esku-artean ikusirik, artu ebana.

Laster igarri eban zer zan Amak iragarri gura eutsana, ta luzarotxu egon zan bigarren izpillura begira, *zer izango zan* ikusten.

Irugarrena zer zan iakiteko ezeukan len gaiña gogo. Sedazko oialean batuta irugarren izpillutzat Andra Maria orban bagearen irudia bialdu eutsan Amak, *zer izan bear eban* ikusteko,

TABAKO A

A RABIIARREN irakurgeti batek landara onen asie-
rea era onetan azalduten dau.

«Mahoma Meka-rako bidean ebillen baten, oiñaz uste uste barik kikildu ta erdi-illik egoan suge bat lo-
katu eban. Mahomak eskuetan bizkortu nairik eukala,
sugeak esan eutsan: il-bearra zara, usegi bear dautsu-
dalako.

—¿Usegi? ¿Zegaitik?

—Zure endea ta nirea arerioak direalako.

—¿Ain arin aaztu dozu bizia neuri zor daustazula?

—Esker onik eztago mundu onetan. Alah dagoan
baimen ziur eldu da zure azken-ordua.

—Alah andia da ta neu naz beren Igarlea. Beren
izena ezta alperrik aitatuten. Il bear badot, il naiteala,
Eutsi eskua, usegi».

Sugeak usegi eutsan eskuan. Mahomak zaurian ez-
panak ipiñi, ta gero txu egin eban.

Txua iausi zan tokian landara bat sortu zan (taba-
kolandarea). Landara onek orri-artean iru gauza dau-
kaz: sugearen lupu edo berenoa, Igarlearen miña ta
zerurako autatuen sinizmena.

GABONKARIA

Euskalzalek.—Dran dran.

Mutiltxu batek.—¿Nor da?

Eusk.—Neu.

Mut.^¿Zer dakazu?

Eusk.—Gabonkariak.

Mut.—Ama, Ama: gabonkaria. Ekazu giltza, atea edegiteko.

Amak.—Txotxo: ezeiok iñori atea zabaldu, zer darraren edo zetara datorren edo nor dan iakin barik.

Mut.—¿Zelako gabonkariak dakazuz? ¿Gozozko sugea?

Eusk.—Gatx egiten iok orrek, benetako sugeak ezten edo sustar edo mistoaz baiño gatx geiago.

Mut.—¿Txilin da guztiko zaldi kartoizkoak?

Eusk.—Orrekaz noberak ibilli bear izaten iok, etxakiek ibiltenda.

Mut.—¿Tuntuna ta arratza?

Eusk.—¿Zetarako? ¿Belarriak gortuteko?

Mut.—*Trampa* biribil biribila, mandeuliak lakoxe urrumadea egiten dabena?

Eusk.—Orrelako gauzaak umeentzako izanezik etxuek balio.

Mut.—*Aita* ta *Ama* esaten daben andrakilaren bat.
Eusk.—¿Zetarako dok ori? ¿Eztakik euk esaten
Aitu ta *Ama*?

Mut.—¿Zer dakazu ba?

Eusk.—Albistak, ipuiñak, izkirimiriak, igarkizunak, íxirristadak, neurtitz edo bertsoak, zortzikoak musika ta guzti, Elizarako berbaldi edo iardunak, euskeraz obeto ikasteko esku-liburua, kondaira edo istoriak, ófda emengo jakingarriak eta generá edergarriak.

Mut.—Ama, iru Erregeak datoz.

Am.—¿Zer iakarrek bada?

Mut.—Denda oso bat dakarre aurten. Ekazu giltza, nai dogun beste gauza daukagu-ta.

Am.~Ate-zulotik ikusi daigun nor dan. Emen etxagok iñor. Erregerik ez eze otseiñik bere.

Mut.—Baiña egon bear. Edegi.

Am.—Emen paper bat baiño etxagok besterik.

Mut.—Ortxe esango dabe nun dagozan gabonkariak.

Am.—Ondo mutil polita da berau. ¿Zetan diardu beronek? Gernikako zugatz edo arboZa-azpian dago. Burutsik dago gizagaisoa.

Mut.—¿Berantz begira zetan dago?

Am.—Zer edo zer irakurten. Aurreko aldetxuan *musika* ta guztiko papera ta albokea daukaz.

Mut.—¿Zer da goiko aldean dagoan baltzune ori?

Am.—Ori laiño-artean legez dago, baiña Begoiña-ko Elizea dala esango neuke.

Mut.—Ikusi barruan zer daukan. ¡Eeeene! Lekeitio. An dago Elizea, an dago ondartzea, an dago kaia,

an txalupak eta an sareak eta sardiña-batzailak bere.
¡Onakorik!

Am.—Onezkero aratu daigun guzti au. Irakurri ea beste orrietan zer diñoan.

Mut.—Lekeitio, Gabonkaria, 1.000, 800, 90, 8, Apaltasuna, Iru Erregeak, Izkirimiriak, Arduaren ipuiak, Anka bateko egaztia, Jeslsen agerkerea, Bi berri txar. Aurtengo lenengo Txirristadea. Eresiak lesusí, Balzaldia, Igarkizuna.

Am.—¿Baiña nor da berau? ¿Azalean ezetediño?

Mut. Aaamentxe dauko izena: E-U-S-K-A-L-Z-A-L-E.

Am.—¿Nor etedogu?

Mut.—Beerago diño: *Astean asteango albisturia. edergarridun.!! Bizkaitarrez da Gipuzkoarrez egiña.*

Am.—¿Zeinbatean eteda berori?

Mut.—Sei makur edo *peseta* urteko.

Am.—Or diñozan gauza guztiak badakaz, ondo merkea da.

Euskalzalek (Beren artean). Siniztu nai eztabenak, irakurri daiala nire lengo urteko bitiztea.

ANKA BATEKO EGAZTIA

ITALIA-KO gizon eukitsu batek beren adiskide bate-gandik obari edo *erregalulzat* kulinka (1) andi eder bat artu eieban bein. Artuta bereala ots egin eutsan eskaratz edo sukaldeko otseiñari, ainbat ariñen da ondoen erreta maira ekarteko esanaz. Otseiñari, erreten eukan artean, biotza samurtu ta urdailla eskean asi iakazan; da etorkizunari begiratu barik, anka bat berentzat gorde ta anka bakarraz eroan eban urrengo bazkal-orduan maira egazti ederra.

Ona emen euren artean euki eben itaune-erantzuna.

—¿Da? ¿Bigarren ankea nun dau kulinka onek?

—Anka-bakarra izan da. Onetariko egaztiak anka bakarrak izaten dira.

—¿Baete? Biar goizean biok ioango gara itxasertzera, kulinkaren batzuk ibiliko aldira-ta.

Urrengo egunean ugazaba-otseiñak alkarregaz ioan zirean itxas-ondora ta luzaroege itxaroten egon бага, agertu zirean sei edo zazpi kulinka ta eurakandik urrunegi barik gosa (2) zirean. Ain zuzen bere anka bat

(1) Itxas-txori bat.

(2) Posar.

egazpian gordeta egozan. Otseiñak orduan pozarren esan eban: «ugazaba, aor bada kulinkak, guztiak dira anka-bakarrak.

—Bai ¿e? Oraintxe ikusiko dogu. Ixxxxo, ixxxxo.»

Au entzueran kulinka guztiak asi zirean egaz, da bakotxak anka biña erakutsi eben.

«¿Bat eta bat zeinbat dira?

—Bi, iauna.

—¿Anka-bakarrak dira kulinkak?

—¿Zegaitik etzeutsan gure kulinkeari ixxxo esan? Bigarren ankea, baldin baeukan, orduantxe erakutsiko eban ak bere.

—Urrengoan anka-bakarrik badakardazu, ixxxo esango dot; baiña zeuk zeure anka biak erakutsi ta kalerabidea artuteko izango da.

DEI BITZUK EDO IRUTZUK

1-íEIN munduan, asko legez, mutiltxu bat bizi zan, azkarra, bizkorra, zolia, eragiña ta azartua edo urtena. Ume umetatik sartu eben ikastetxe baten barruko. Jai-egun askotan ikaskide guztiak ioaten zirean Meza nagositara, nor edo nor zain edo iagola ebela.

Atarikoxe egun baten igon eban elizgizon batek irakastegira ta asi zan deiak edo deierak erakusten, edu onetako euskera mordoilloan:

«Dagoz *konforme* alkarregaz *Sakramentu Santu Matrimoniñukoa* artuteko, Eliza *Santeak* aginduten daben moduan, *Don* Antero Maria Mingolarra Egurrola, Markos da Manuela-sen semea *libria* uri onetako *naturala* ta *feligresa*, alde batetik; eta bestetik *Doña* Simona Martikorena Landaburu, Simon da Ana Maria-ren alabea, alarguna, Lariz-ko *naturala* ta uri onetako *feligresa*. Iñok badaki onen artean dagoala eragozpen edo *impedimenturen* bat Sakramentu Santua artutea galerazoten dabenik, etorriko da kontu emotera ogeta lau ordu barru Eliza onetako parrokoaren aurrea. Eta dira irugarren deiak».

Etixerakoan gure mutillak eskatu eutsan iagoleari *izenbakora*, ioateko baimena. Emon eutsan da ioan zan. Luzarotxu egon zan besteakana agertu barik, eta

jagolea beatzen ganean ioan zan non eteebillen ikustera. Iatoki edo *komedoreko* atea egoan ertza edegita; andixek egon zan ikaslea mutillaren adi, barruan egoala susmau ebanean.

Mutilla, mai-ganean otzarakada maatsa ikusirik, liburuari baiño abegi ohea eginda, mordo eder bat eskuetan artuta, asi zan esaten:

«Dagoz *konforme* alkarregaz *Matrimoniñua* egiteko neure eskuetako maats-mordoa ta neure agiñak. Iñok badaki onen artean dagoala eragozpen edo *hmpedimenturik...*» Eta geiago ezer esan barik asi zan mutilla maats-iaten. Iagoleari barreak emon eutsan au entzueran; da ezer ezpailitzan, ioan zan beren bidean, ikasia maats-zaleari ezer esan barik.

Arratsalde erdian askari edo lauretakoa artu bear ebenean, mutillen artean sartu ta ots egin eutsan iagoieak gure mutillari. Au erdiratu zaneke, irakasleak eskuetako zartea gora iasota, ezkerraz mutillari mokor ondotik oratuaz esan eutsan:

«Dagoz *konforme* alkarregaz *Matrimoniñua* egiteko neure eskuetako zarta auxe ta mutil maats-zale onen mokor-ondoa. Iñok badaki onen artean dagoala eragozpen edo *impedimenturik...* —Neuk dakit» erantzun eban, lasterko gero, salatuak.

—¿Zelako eragozpena dakik?

—Eztagoz *konforme* ezkongeiak eta ezin ezkontzarik egin leike eurak nai eztabela».

Au entzueran asi zan barrezka irakaslea, barrezka beste mutillak bere ta bataren zartea ta bestearen mokorrondoa, aurrerago alkar ondo ezautu izan arren, egu atan beintzat etzirean ezkondu.

ELIZ-MUTIL BAT

Gomuta eztoan erri baten mutiltxu bat bizi zan, mutilla izan baiño lenago umea izanikoa, umea izan-aurretik seiña edo aurra, seiña izan baiño lenago utsa.

Onenbestegaz ezautu eztabena beioa beren atzetik Eliza baten ondoko pelota-tokira ta begiratu beio ondo arpegira: baltzerana da, eztakigu baiña ala iatorriz ala udako eguzkiaren indarrez daukan masusta ondo eldu bakoaren antzeko arpegia; begiak, sagutxuak illunetatik erakusten dabezan langoxe baltz txiki dzirdzar egiten dakienak; anakak, erbien atzetik ibiltekoak; txapela ta kaltzak edo beste soiñekoak, Lekeitio-Ondarroetan da Bermeo-Mundaketan zortzi-bederatzi urteko mutil nekezaleen semeak erabilten dabezan erakoak.

Abadeari astean egunik aiña okerreri gitxienez egiten eutsazan: Mezatarako txiliña entzunarren orilulaurren geroago agertu, Eliz-gela edo Sakristeian soiñekoak ipinten lagundu-bearrean euliak eskuaz arrapatzen eragon, ardao zuridun bonbila ainbait ariñen agortuten lagundu... ta au gora bera maite eban abadeak.

Bein deitu eutsan onek beronen etxera eta nunbaist be erreta edoegoan, bada ikoak batutera adar-ganera bialdu ebanean, esan eutsan:

«Txotxo: iko-batzen egoan-arte guztian isildu barik kantetan edo eresten ekingo deutsak. ¿Entzun dok?»

Ain zuzen bere orduantxe azkureak emon eutsan da azka azka esan eban:

«Bai launa; baiña Elizako gauzarik izanezik-i. .

—Eresi-zak *Kyrie* ta *Gloria* ta onetarikoxeak».

Ioan zan adar-ganera, eskolara ioaten zan baiño askozaz pozago ta bizkorrago; ta sei edo zazpi iko ian da gero asi zan *Kyrie*, *Gloria*, *Credo*, *Sanctus*... ta beste gauza asko eresten. Isillunetxu bat sumaten ebaneko, asten zan abadea:

Txotxo: tira».

Ta txotxo asten zan barriro *Kyrie-ha*. Alako baten otu edo bururatu iakon gogamen erazko bat eta ioan zan ugazabana esatera.

—«Beti Mezea barik ¿nai dau *Ne recorderis* Pater Noster da guzti erestea?

—Bai, txotxo».

Asi zan mutilla: *Ne recorderis*... *Dirige Domine*... ta urrengo berbak eresten; gero *Kyrie eleison*, *Christe eleyson*. *Kyrie eleison: Pater Noster*.

Eta arren egiten bailegoan, iru edo lau iko ianda, *et ne nos inducas*... iarrantuten eban. Bost edo sei bidar egin eban onelantxe ta urdailla bete-arte atantxe ekingo eban, abadeak beren iokoa igarri ebanean esan ezpaleutso:

«Requiescant in pace.

—Amen». Eta au esaeran, urdaillari eskuaz ikutu eutsan, ikoak baketan antxe atsedeten egozala adiera-zoteko.

IRU LOHENGRIN

Gure irakurlen artean geienak ezaldakie nor zan Lohengrin. Wagner musikalari errime entzutetsuak egiñiko *Operetatik* batari onantxe deritxo. Elsa eritxon emakuma bat salatu eben guzurraz, beren neba gazte bakarraren eraille edo iltzailletzat. Beren izena garbi erakutsi nai izanezkeru, zaldun bat bear eban beren alde urtetekoa ta Mont-Parnaso-tik Graal-en zaldun bat, Lohengrin eritxona, ur-egazti eder batek atoaia (1) emonda ontzitzu baten agertu zan Elsa-ren aurrera.

Lohengrin baten orde z iru ikusteko era ederra egon da Mont-Parnaso ta Brabante baiño askozaz urreago; Lekeition.

Egun batzuk baiño eztira igaro, au iazo zanetik. Iru gizon potin baten ioan zirean arraiñetan. Eurak gitxien uste ebela, arrain andi ikaragarri bat ikusi eben zingo (2) txikiko une batetik urten ezinda. Ezeuken zegaz il; igesterik bere ezeben nai ta zelan edo alan soka bategaz lotu eben. Arik geroago asi zan arrian ori, nagiak kendu nairik bailegoan, gorputzari-eragiten; da arrantzaleak arri ta zur oelditu zirean euren buruak

(1) Zaga.

(2) Fondo.

Lohengrin-duta ikusi ebezanean. ¿Zelan iazo zan? Ona emen zelan iazo zan. Arraiña igiri edo ligar asi zan: da beren indarragaz, abantean (3) baiño asko ariñago. ebillen potiña. Gizonak zutunik etozan irurak besaketan edo besoai eragiten. Legorrean egozanak arrituta egozan, po Uñaren abiadea zetatikoa zan igarri eziñik. Ezta esatekoa batzuren da besteen arrigarritasuna, arraiña beren kabuz edo iñok zirikatu barik kai-barrura, potiña atoian ebala, sartuten ikusi ebenean. Arpoiagaz ill eban arrain au (baloi edo bale-antzeko ia iru kanakoa zan bera) iru Lohengrin-etatik bata; eta aragi-zatiak iruren artean ainbanatu ebazan. On dagioela.

(3) Remando.

BISMARCK-EN IAZOEBA BAT

I< ISMARCK-EK gaur daukan entzute andia artuten asi-orduko, 1851-garren urtean ostatu baten garagardoa edaten egoala, Prusia-ko Erregeren etxadiko baten kontra berba latzak entzun ebazan; da asarez esan eutsan miin txarrekoari: «Berealaxe emendik ez-pazoaz, garagardoa amaitu daidan legetxez eskuetako edontzi onegaz burua ausiko dautsut».

Besteak ezeutsan iaramon egin zemai garratz one-ri; ta Bismarck-ek, edontzia ustu ebanean, agindu ebanez burua ausi eutsan beragaz besteari.

Gero zaurituaren deadarrari iaramon egin baga., otseiñari arte arte itandu eutsan zeinbat zor eban edari ta edontziagaitik; ordaindu eban zorra ta iñok oratu barik kaleratu zan.

GUZURTI GUZURTAUA

I IRAINTXE amar, urte-inguru Rusia-ko iakitun bateg Notovitch-ek, argitaratu eban *Vie inconnue de Jesus Christ* izendun liburu bati. Asia-ko Thibet deritxon Urira ioan zala ziñoan berak, eta istarra ausita Bakartegi edo komentu batera eroan ebela; ta an osatuta gero, bertako nagosi edo Zama-buruak Issa edo Isa-ren bizitza estaria eukan liburu zaar bat emon eutsala.

Europa-ko iakitun askoren arieen ots andia egin eban liburu onek. Max-Müller deritxon ingeles entzute-tsuak uste eban Thibet-ko Bakartar Buddistak edo Buda-ren erlijioñodunak ziri ederra sartu eutsela Notovitch-i.

Beste ingeles bati Douglas-i Thibet-era bertara ioatea otu edo bururatu iakon. Onetarako artu eban beragaz adierazle bat eta Bakartegira ioan zan. Eskatu eban mesedez iatzi zeitela eurakana bertako *lama* nagosia. Ona emen euren arteko autua:

—¿Zu zara Himis-ko Bakartegiko *Lama* andia?

—Bai.

—¿Zeinbat urte da arazo au daukazula?

—Amabost urte.

—¿Ikusi dozu, edo zuk ezarren zure mendeko beste bakartar buddistak ikusi dabe Bakartegi onetan Europar bat, istarra ausita dabela?

—Ez, amabost urte onetan beintzat. Orretara zauri-luriko erbestekorik Bakartegian egon izan balitz, egikizunez Leh-ko Wazir-gana ioan bear izango neban; da eztot onetarako erarik izan.

—¿Zuk edo zure lagun bakartarren batek eskuratu dautso erbestetar bati Issa-ren Bizitzea? ¿Birregin da biurtuten itxi dautsazue?

—Bakartegian eztago orren eriko libururik; eta ni emen egon nagoan-artean erbestetar bat ez bati etxako emon gure libururik birregiteko ez biurtuteko esku-bidea.

—¿Badakizu Thibet-ko beste Bakartegi Buddistaren baten egongo etedan Issaren Bizitzearen ganeko liburu ori?

—Berrogeta bi urte onetan naz ni *Lama*, Buddisten liburu ezer balio dabenak beintzat badazaudaz; eztot iñoiz entzun liburu ori gure artean dagoanik, eta nire ustez ezta iñoiz-egon.

—Nicolás Notovitch Rusia-ko iakitum batek., Bakartegi onetan oraintxe zazpi edo zortzi urte egondakoak, diño zeuk eta berak Ejipto ta Asiría ta Israel-go erlijinoen ganean eztabaidea euki zenduela.

—Nik eztakit ezer ez Ejiptoarren, ez Asiriarren, ez Israeldarren ganean: euren erlijioaren barririk eztakit. Eztot iñoiz Erri onen ganean iñogaz auturik euki.»

Douglas-ek orduan irakurri eutsan *Lama* nagosiari Notovitch-en liburua, ta adierazleak aditu-eragin eutsanean, *Lama* asi zan esaten:

Sun, sun, sun, manna mi du. Berba onek Thibetaren mintzoeratik euskeratuta *Guzurrak, guzurrak, guzurrak baiño* eztira esan gura dabe.

Douglas-ek irakurri eutsazan gero *Lama*-ri berba onek eta asko poztu zan.

—¿Erbestekoren baten eskutik artu dozuz obarizat *erloio* edo orduaria, iratzargarri edo *despertadore* ta *lermometroa*?

—Nik eztot iñoiz artu olako obáririk. *Termometroa* zer dan bere eztakit.

—¿Issa-ren izena gorapen andian daukazue *Budistok*?

—Izenik bere eztazaugu, Europako *misioneroen* baizukandik entzunda izan ezik.»

Douglas-ek Europaratu zanean argitaratu ebazan Thibet-ko *Lama* nagosiaren erantzun onek; eta Notovitch guzurtia guzurtaurik gelditu zan.

ASTOKILLO-REN GAUZAAK

A STOKILORI iazoko etxakozanak! Albistari bat datiko eskuan: zein dan ezta agiri, baiña ezta euskerazkoa izango. Gosaria dakartse ta ondo begiratu barik «itxi or» edo aonakoxeren bat esanda, iarrai ak berenari.

Bera ezarren, beste bal egoan gosalduteko gogo obeaz aulki-ondoan: Txitxi. Ta arako morroe txartes-luze edo lebitaduna aldendu zanean, Astokilori ezer esan barik, *ixaka* aulki-ganera, *ixaka* mai-ganera igonda, zer etezan iakin nairik erratilloko iakia sumauten asi zan.

Txitxi, beren artean *or konpon* esanda, Astokillori aizea emonaz, gosalduten asi zan.

Astokillok barriz, albistarian begiak ebazala erratilloan sartu ebazan lauortza edo tañedora ta aizto edo gainñibeta edo *cuchiüoa*. Izena iora-bera eztago ardurarik: tresna zorrotza zan beintzat. Gaurko umeren batek atan ikusi baleu, *et et et* esango eban.

¿Nok eztau irakurten Astokilloren arpegian anoko esakcraren bat; *Zer da berau?*

¡Ez an egon bearra! Bestela pozarren esan al ízakion: «ikusik gazi-gazan zelan dagoan.»

Gauza asko batera egin nai dabezanak ikasi beie zelan bizi.

ERRI SINIZKORRAK

I JONE Tomas Aundiagatik esaten dute bein siniz-
^^^ terazi ziela idi bat egaz zebillela; ta esan zienean
nola izan zezateken ain jakintsu aundiak orrelako gau-
zak siniztea, erantzun zuen arrigarriagoa zala kristau
batek gezurra esatea, ezen ez jakintsu batek idia egaz
zebillela smiztea.

Erriak, edo Larramendik esango luken diarteak
(onela izendatu zuen erderazko *vulgo*), beti izan oi
dirade sinizkorrak, geldo edo tolesgabe edo buruariñ
edo txoliñak izaten diradelako. Eztakit nork esan zuen
lendabizi erriak aurra edo umea bezelakoak diradela.

Urrengo iru gertaerak adiraziko dute egi au.

Nere jaioterrian, Bizkaiko itxasuri batean, zapatari
bat bizi zan arnarrutsua, edo uri artan esaten dan be-
zela, lardfia. Ark, lagun-artean zegoelarik, esan zuen
etzekiela nola zan, baiño gau artan izarrak marketsa
edo abaraska edo ezti-abaua bezela agertuko ziradela:
baiña ortarako ziriko edo sedazko zapiak bear izango
ziradela, izarrak ala ekusteko.

Oskarbi izaitua zegoen gau artan Zerua. Berri ixa-
rra bezin arin zabaldu zan uri guzian zapatariaren jri-
tzia. .Asko irten ziran beren etxeetatik izarrak ekustera.
Batak *ai*, besteak *ene*, besteak *arraioa*, guziak zeuden

arriturik izar markestutakoak zirikozko zapiartetik ekuslen.

Bi ordu igarota, norbaitek begiratu zion, zapia utzi gabe, /orol-etako argian, ta argi aiek ere markestuak ziruditen. Orduantxe ezagutu zuten marketsa edo abaraska etzegoela ez izarretan, ezta lurreko argietan ere, ziriko edo sedazko zapietan baizik.

Beste gertaera au Malagan orain bost edo sei urte ezagutu zan. Tema edo apostu bat egin zuten bi buru-ariñek, *Imparcial* deritzaion Madrugo albistarian gezur aundi bat ipiñiezkeru, askok siniztuko zutela edo etzutela.

Albistari ortan agertu zan berria gutxi gora-bera onelakoa zan. «Malagan gizon jakintsu batek asmatu ditu egun auetan berarizko auts batzuek, sutara botaezkeru sardina biurtzen diradenak. Auts auek nai dituenak eskutiztu bezaio asmatzalleari Malagara, onlako kaletan alako etxetara.»

Laister kaskabarra bezelaxe eldu ziran Malagara eskutitzak, auts miragarri aiek eskatzen zituztela.

Beste gertaera au England edo Ingalaterrakoa da. 1749-garren urtean Montagu-ko *Dukea*, gizon farragarria ta gogaldi edo *umore* onekoa Ingalaterran bizi zan. Bigira edo *tertulia* batean esan zuen bein Duke onek Londres edo Londondarrak ain ziradela geldoak. ain buru-ariñak eta sinizkorrak non berak asmatutako gezur aundi batzuek iragarri edo paperetan agertu-ez-

kero, Teatro edo Biltoki bat bete bete egiteraino eramanez zitezkeja Erri aundi artako andre-gizonak. «Ezetz—Baietz—Ezetz—Baietz.» Tema edo apostu aundi bat egin zuten.

Urrengo egunean Londresko albistari ezagunenak iragarri edo *aaunzio* au agertu zuten:

«*Hay-Market Theatre* (Belar-Azoka-Biltokia).

Datorren astelenean, ill onen 16-an, norbaitek, siniztu ezin lezazkean gauza miragarri auek, egingo ditu. Lenbizi: Biltokian bertan dagoen bati eskatuko dio esku-makilla bat, oi dan gisakoa, ta berarekin edozein niusika-tresna edo instrumenturen ota entzun-araziko du. Bigarren: bonbil edo botella bat oi dan gisakoa ta edozeinek ikusmiratu lezakeana mai-gaiñean mundu. Bigarren: bonbil edo botella bat oi dan gisakoa berak, bonbil artantxe sarturik, eresi edo kanta ezagun asko entzun-araziko ditu.

Bonbil-barrenean dagoen-artean, nornai gerturatu edo urreratu liteke, amarru edo *engañoxiii* bat ere eztagoela ekusteko.

Aulki aundietan jarririk daudenak, aurpegia mozorroakin estalirik egon dezazke, ta neronek, berak nai baldin badute, esango det nor zein dan.

Ikuskizuna arratseko sei ta erdietan asiko da.»

Astelenean ordua baiño lenago bete zan Biltokia. Aulki aundietan Londresko *lord* edo jaun eta *lady* edo andrerik agirienak zeuden; beste ezer-tokietan berriz edozein mota edo gisatako andre-gizonak ageri ziraden.

Ordu-erdi igaro zan, eta etzan agiri mirarigillea; ordu bete ere bai, ta etzan agiri. Asko etsipen edo

desengaño aundiarekin irten ziran Biltokitik. Beste askok berriz iruditegi edo *escenariora* joan eta agiri zan guzia puzkatu zuten.

Montagu-ko Dukeak Biltoki-jabeari eman bear izan zion kalte guzi aien ordaiña; baiña apostu edo tema irabazi zuen beintzat.

Iru gertaera oiek aski dira adirazteko zein sinizkorra, zein geldoa, zein aurra dan diarte edo *vulgoa* errialde guzietan.

IGARLA BAT

I GAZ gure irakurlai erakutsi geutsen, Atenasko Ikas-tetxe andiko irakasla batek 1884-garren urtean iragarri ebala amairu urte geroago Turkia ta Greziarrak alkarregaz izateko gudua edo gerrea.

Au baiño bere enlzutetsuagoa da Creta-ko Ugartean aspaldion bizi dan beste igarla bat. Siligardo dau izena, Vyzari deritxon uri txiki baten iaio zan. Berrogeta amar urte daukaz gaur da erririk erri ibiltan guztiko zalea izan da. Rethimo-ko urian luzaro egon da arrantzoan edo arraiñetan. Auxe izan da beren iolas bakarra.

Orain urte bi Cretako gizonak Europako Erri andiakaz egiune edo traioan ebilzan-artean, Siligardok edonori esaten eutsan: «Guztia izango da alperreko gauzea. Neguaren erdian matxiñada barri bat izango dogu: Grezia-ko gudari edo gerlariak etorriko iakuz, baiña eztabe ezer lortu edo iaritxiko. Europa-k moltsuan artuko gauz: guda bat izango da Greziarren da Turkiarren artean, da Greziarrak garaituak izango dira. Turkiarrak Grezia-ko lurrean sartuko dira, ba-keak egingo dabez, baiña barriri asiko dira alkar austen. Turkiarrak Atenas-eraiño aurreratuko dira, barruratu barik. Uri-muruetan gudaldi andi bat izango da, Erregearen seme bat ilgo dana. Turkiarrak garaituak eta Grezia-ko erritik kanporatuak izango dira. Zorione-

ko goiz baten Europa-ko ontzidi edo *eskuadrak* Creta-ko uretatik alde egingo dabe. Gerrateak, goseteak eta izurrite edo gatzak Ugarteia ondaturik itxiko dauskue. Azkenean emendik bere kanporatuak izango dira Turkiarrak, baiña au odol andia isuri barik ezta lortu edo iaritxiko.»

Igarpen onek Creta-tar bat baiño geiagori barre eragin izan dautse; baiña berba onek banan banan egiaztuak izanez-keroztik, Siligardo arrantzaka errikoak arrituta inguratuten izan dabe. Bizikera barri bat artu eban gero berak: sare, tretza, amu ta beste arrantza-tresnak bertan beera itxita, emakuma gazte bategaz ezkondu zan. ¿Zegaitik aldakuntza au? Siligardok berak igarpen barri bategaz adierazo eban bizikera barri onen zioa. Caffiro mendi-ondoan guda edo gerra andi bat izango da ia neu (ziñoan berak) antxe illa izango naz. Eta oiñordeko edo ondorengo bat itxi barik il nai ezebalako, ona emen zegaitik ezkondu dan. Ondorengo bat itxi, nai eban, beren izen entzutetsua gordeko ebana; ta gaur igarlea pozarren dago, zeruak seme sendo azkar bat emon dautso-ta.

Onezaz ganera beste neurri ta bide batzuk artu dauz Siligardok. Ondasun guztiak saldu ta urte bitarako elikatura edo iakiak erosi ta baserritxu batera ioan da bizi izatera: eta an bizi erazko baketsu bat dauko, emazte ta semea lagun dabezala, ta etorkizunaren begira dagoala.

Ona beren igarpenaren irugarren atala. Europa guztiari iagokana da. «Grezia ta Turkiaren guduak Constantinopla Rusiarren eskuetan ipiñiko dau. Baiña gertaera andi au ezta gertako Austriak eta Rusiak alkarren arteko gudu andi bat izan barik: gudaldi

onetan Austria ondatu ta ezereztua izango da. Orduan Europa-ko beste Erri andi guztiak alkar artuko dabe Rusiarrak Constantinoplatik iaurtiteko asmoaz. Gudu izugarri onen urrengo banatuko dabe Turkiako Erria. Grezia ta Creta Erri barri baten ardurapean ipiñiak izango dira, Constantitnoplá Burutzat eukiko daben Erri-mendean. Erri au Greziarren antzera sortua izango da, bada Paleologoen ondorengo bat iarriko da antxiñako Bizanzion Agintari.»

Atzenez Siligardok iragarri dau Europa-ko izatearen aldakuntza andi au 1899-garren urtea amaitu-aurrettxoan iazoko dala.

Barri onek Paris-ko *Le Temps* da *Aúnales des sciences psychiques* deritxen albistariak eta beste batzuk argitaratu dabez.

PA RE AK BAI

l-< RUSELAS-aldean burdin-bide baten bat egin eben gizon bik. Ezekien eurak alkarren barri. Batak burdi-barruan buruaren gane-aldeko sarean ikaraga-
&
o
rrizko utxa edo baúl andi bat eroan. Utxa onen iaubea etzanak neurkin cdo *metro* bat atara ta utxearen neurria artu eban; da gero lagunari esan eutsan:

—Utxa onek zazpi *zentimetro* ta erdi daukaz luzeeran, legeak aginduten dabezanen ganera; eta ezin euki zeinke gizonentzako burdian. Olako zama edo *kar-tak* eroateko berarizko burdia atze-aldean daukazu. Neu naz burdin-bide onetako iagolea ta bost *franko* emon bear izango dozuz, utxa ori or egongo bada. Emoidazuz zeure izena ta bizitoki-ezaugarriak.

—Emoidazu mesedez zeuk neurkin ori ta gero egingo dot diñozuna.»

Neurkiña eskuetaratu ebanean, «Erri onetako neurri ta pixu guztien azterlaria naz, adiskidea (esan eutsan gero); ta dakustanez, zure neurkin au ezta legezkoa, bear dan baiño luzeagoa baiño. Onegaitik bosteun i'ranko emon bear dozuz. Emoidazuz orain zeure izena ta bizitoki-ezaugarriak.»

Irakurlea: Eztakit zer jazo zan euren artean; baiña bai ez bata zala burdin-biden iagolea, ez bestea neurri-azterlaria. Biak zirean txori politik, pareak.

AITA-SEME BIREN IPUIÑA

\ NTXIÑA, bedar-txori-abere-patariak euren berbe-
tea aaztu baiño lentxuago, Errege bat bizi zan,
gizon zintzo, buru-argi, biotz-andi, mendekoak maite
ebazan Erregea. Seme bat eukan alperra, buru-eritxia,
biotz-gogor, mendekoen ardura bagea. Diru baten au-
rrea ta atzea baiño bere bardiñezagoak zirean Aita-seme
aren biotzak. Aitaren onbide edo *birtute* guztien ar-
tean agiriena mendekoak seme-alabatzat legez eukitea
zan. Semearen gaizbide edo biziorik agiriena barriz
mendekoak, ez aintzat artu ez eze, beste gizaren bate-
ko izakitzat eukitea. Eztago zetan esan Aita maite
maite ebela Erri atako lagunak, semea barriz urretan
bere ez.

Aitak orregaitiño semea erruki izanarren maite
eban, da maite ebalako gau ta egun gogoketan egoten
zan, axe zelan zuzendu ta onduko eteeban.

Atso bat bizi zan txabola baten bakar bakarrik,
beragaz bizi zirean lau edo bost katu zaar laguntzat
artu bear ezpadira. Atso au geienak euken zorgintzat.

Errege eizara ioan zan egun baten, da erbiz da
oillagorrez da basauntzez ondo zamaturiko otseiñak
aurrera bialduaz, zorgiñaren txabolan sartu zan.

Arratsalde onak alkarri emon, sutondoko auJki
zaar baten Errege iarri ta gero agertu eutsan atsoari

bere atsekabea: semearen gaiztakeria; ta osagarri baten billa sartu zala esan eutsanean, atsoak, lau katuai lepoa palagatuta gero, esan eutsan: semea gatx orreatatik osatu ta zeure biotza atsegindu nai izanezkero, ipiñi eikeozu semeari beren odola begien aurrean: ezaututen badau ¿zure errukarria, Errege!; ezaututen ezpadau, a osatu ta zu atseginduko zaree: eztakit geiago.

Biziagaitik ezaban atsoak saririk artu gura izan.

Gau atan da urrengo askotan egon zan Errege loari buruan leku emon eziñik. ¿Zelan lekua emon, gogamenez beterik eukala? Egunaz ezetarako gogo barik bizi zan: maian iankar edo iakan, lagun-artean nankar, zutunik lo gura, etzanda edo oeraturik barriz lo egin eziñik. Zoratu ez ze beste guztia eragin eutsan gogamen onek: «¿Zelan ipiñiko dautsat nik semeari begien aurrean begien odola? Maite dodaz neure mendekoak, baiña maiteago semea; ta mendekoen ederraren ¿semearen odola isuriko dot? ez.

Erruki izatekoa egoan Errege egun aretan: erkin, makar, zurbil da indarga.

Gitxien uste ebala, agertu iakon bein semea ta esan eutsan: Aita: esaten bere lotsa naz, baiña esan bear dautsut. Aspaldion zeure isillik ezkontuta egon naz; gaur nire emaztea Ama da ta zure semea Aita.

—¿Zer esan gura dok orregaz?

—Birloba bat daukazula. Nire ezkontzea, isillekoa izanarren, bidezkoa da: emaztea bidezkoa dot, bidezkoa semea. Ta zuk, neuri Aitatasuna legez, nire emazteari giñarrabatasuna ta semeari Aitontasuna emon gura badeutsezu, biartik zeure iauregian bizi izango gara danok.

—Beste ama-seme batzuk izanezker, oraintxe erakutsiko neuskezu neure burubidea; baiña ama-seme orrek etorkizunean Errege ta Erregiña izan leikezan ezker, biar esango dautsut esan bear dodana.

Gau atan Erregek Erriko iakitun andienai ots egin da esan eutsen: Biar goizera-orduko erantzungo dautsezue nire itaune bi onei: 1.^a ¿Zelan nik neure seme maiteari begien aurrean ipiñi neio beren odola, neure izen onaren kalte baga? 2.^a ¿Zelan nik neure Erri maiteari begien aurrean ipiñi neioz neure semearen emazte ta semetzat, oraindiño nortzuk direan eztakidazan ama-semeak?

Urrengo egunean batu zirean barriro Errege ta iakitunak. Onetariko batek guztien izenean esan eutsan: Errege, zeure izen onaren kalte baga, seme maitearen odola beren begien aurrean ipiñi nai badozu, artuizuz zeure errantzat semearen emaztea ta birlobatzat semearen semea: gero artuizu zeure eskuetan birlobatxua ta ipiñizu zeure semearen aurrean. Onelantxe zeure izen onaren kalte baga ta biotzeko atsegin andiaz ipiñiko dozu zeure semearen odola beren begien aurrean.

Erregek esker andiak emonda gero, deitu eutsan iakitun oneri gelara ta esan eutsan: Nire itaune biak ain eraz da egoki erantzuera baten erabagi dozuzan ezker, esaidazu orain zelan osatu neikean neure semearen gatxa. Uste dau eztaukazuela zuek guk lango odola, etzareela gu lango gizonak, eta zuek etzauguzula guk aintzat artu bear.

—Errege: umetxu ori dakarrenean, ementxe egongo na'z ni ta zelakoa dan ikusi ta gero erabagjiko dogu zer egin bear dan.

Urrengo egunean iakitun au, Erregeren iauregitik urtenda, etxerik etxe ibilli zan i-a eguerdirarte. Eguzkia gan-ganeratutako, arrapaladan edo ariñeketan edo lasterka, ume bat besapean estalduta ebala, eldu zan barriro Erregegana. Seaska edo kuma baten, soñeko bardiñakaz, ipiñi ebezan ume biak: Erregeren birlobea ta iakitunak ekarria. Erregeren semea iagi zan alako baten, da ioan zan semetxua ikustera; baiña ezekian zein eban semea. Onetan egoala agertu iakon Errege ta ezmezean ikusirik esan eutsan: ¿Eztok bada esaten gu ezkareala besteak lakoak? ¿gure odola ta besteen odola eztireala bardiñak? ¿Esaiguk zein dan ume orretatik erregezko odolduna?

Erregek berak esan ezpaleutso, ezaban seme arroak igarriko.

Arik ille bi edo irura gaisotu zan erregegeia ta osaoilla bati ots egin eutsen. Onek odola atara bear iakola
o o
esan eban; da atara iakon.

Erregek orduan, otsein bati atarariko odola ta semearena alkarren ondoan ontzitzu banatan ipiñita, esan eutsan osagilleari:

—Esaiguzu, maisua, zein dan onetatik garbiena.»

Osagilleak bata ta bestea ondo ikusilakoan, «auxe (otseñarenagailik esan eban) da askozaz garbiagoa ta ohea.»

Erregek aren ganera semeari gauza onak esan entsazan; da aurrerantzean asko ondu eizan semea.

Askok uste izanarren
iatorria dala
gizon bat gizar-tean
gooratu oi dabena,

eta odol urdiña
edo urdintzakoa
dala anditasunen
ezaugarri ona,
Nor nor dan, Mariñasi,
ezautuko dona:
emonetatik zugatza,
egiñetatik gizona.

BERBALDUN BAT

H ZTAKIT ala ipuiña ala gertarikoa dan: ipuiña — bada, gertarikoa dirudi; gertarikoa bada, gure Erritik urrun iazo izango da.

Erririk erri ta basterrik baster, nun gizataldea ta antxe, ibilten zan berbaldun bat, diru baiño guzur geiagoren iaubea.

Iñoren lepotik bizi izatea zan beren ustea. Azoka edo saltokietara eldu oi zaneko, mai baten ganean asten zan gauzarik miragarrienak eta osakintzarik entzun-bakoenak adierazoten.

Bein inguruko entzula sinizkorrai esan eutsen: «Gaurrate zuen giberriak, zuen idi ta beiak, zaldi ta astoak, katu ta txakurrak eztabe adiñik euki; baiña neuk asmauriko egikera baten bidez, edozein aberek ikasi ai izango dau gizonak baizen ederto latiña nai gzeziarren berbakuntzea.

Onezaz ganera astorik astoenari gizarteko *doktore* edo iakintsu izateko beste iakituria neuk ezarriko neuskeo.»

Berba onek zerbait geituaz eldu zirean Erregeren belarrietara. Erregek, ez egizat eukazalako, beren mendekoak guzurti aren atzamarpetik ataratearren, baiño deitu edo ots egin eutsan berbaldunari. Agertu iako-

nean esan eutsan: «Entzutea iaukaat adin bagako bizidunai, nai pizti nai egazti, nai marrazti, nai abereai, adindunai legez berba eragiteko irakaskera barriren bat asmau doala, ta asto bat *doktortuteko* bere gerturik agoala. Neuk iaukaat asto bat guztiz azkarra ta alegiñez nai neuke auxe izatea beste asto guztien artean iakintsuena.

Esaik zelango baldintasanakaz berbetan erakutsi nai dautsaan nire astoari.»

Au entzueran, berbalduna zatitxu baten gogoketan egon zan. «launa, esan eutsan gero Erregeri, nik zure astoaren maisu izateko eztot besterik nai maia ta soina baiño; edo iana ta iantzia. Ganera zeu zekentzat iñok euki etzaizan, egunean euneko bat urretan gura neuke; ta amar urte barru zure astoak geu legez berba egin ezin baleu, eriotzaraiñoko guztia, edozein *kastigu* emon daidela.

—Ondo dago. ¿Noiztik asiko dok eure arloa?

—Gaurtik, zeuk nai badozu.»

Erregeren iauregitik urtendakoan berbaldunak adiskide bat aurkitu eban, da pozarren erakutsi eutsan Erregegaz egiñiko egiunea.

Adiskide onek orduan esan eutsan: «Kontuz ibilli ai gero. Amar urteko epea ezta epe laburra; baiña ilgo abe ¿ta zetarako izango dira ire eun errealekoak?

—¡A kirten astokillo! Amar urte orren barruan edo Errege edo neu ilgo gara; ta gu ill-ezik neuk ilgo ioat astoa ta nik burdi bete urre atarako ioat Erregeren iauregitik.»

Erregeak zelatari asko eukiten dabez, da aretari-koen batek eroan ebazan berba onek Erregeren bellarrietan. Barriro ioan eragin eutsen berbaldunari

iauregira ta Erregek esan eutsan: «Nire astoa gertu dago ikasten asteko; baiña ezetan asi baiño lenago, ondo izango da lengo egiuneari baldintasun bat edo beste generatutea. Lenengoa: ni amar urte onen barruan il banendi, nire urrengo Erregeri arpegi emon bear izango dautsak. Bigarrena: Astoa gazte ta sendoa dago ta ire mendean dagoala ilgo balitz, katigu artuko abe ta ordurarte irabaziriko diru guztia atzera emonarte katigu egongo az; eta ganera egunean egunean azokara eroana izango az, asto-belarri eder bi eure buruan doazala.»

Berbaldunak: «launa: ori geitxu da» erantzunaz, ezeban asi nai izan arloa.

Erregek orduan astoa ekarri eragin, asto-ganean atzera begira berbalduna ipiñi ta mendeko bati esan eutsan: «Eroiazuez onek onelantxe kalerik kale ta asloaren buruan ipiñizue paper andi bat eta bertan ezarri eikezuez berba onek:

Ona emen astoa ta maisua.

Gure azoketara datozen berbaldunai beste onenbeste egingo balitzakioe, elitzakez gure baserritarren eskaratz-zokondoetan ainbeste guzurrezko osagarri ikusiko.

ZULOGILLEA

I RI aundi batean zaldun aberats bat bizi zan, ezkondu gabeko mutil zarra. Morroiak ugari zeuzkan, dirua ugariago. Alarik ere, gaitzak edozein atetan ots egiten dutelako, etxe artan ere sartu zan eta irteztzeko sartzeko baiño nagiago ibilli zan. Esan nai da luzaro oeraturik egon zala mutil zar ura.

Gizon bat, etxe artan nor zan iñork etzekiena, goizero joaten zan nagusiaren galdez. Nagusiak au jakin zuenean, esan zieten morroia eskerrak emateko ta *tarjeta* eskatzeko, nor zan jakin zezan.

Urrengo goizean ere agertu zan bestea ta beti bezela galdetu zuen nola zegoen gaisoa. Orduan nagusiaren aginduz atezaiak eskatu zion izena.

¡Zein arriturik ezotezan gelditu atezaia, besteak eroandako *tarjeteen* itz auek irakurri zituenean!

SANTIAGO FLORES

*illak lurpera eramateko arazoduna
edo zulogillea*

Egun artan morroi guziak elkar arturik erabaki zuten zulogilleari arrera oroikarri bat egin bear zaiola.

Nagusiari ontarako baimena eskatuta, morroi bat mai aundi batean argi biren erdian illa bezela, etzan-

da jarri zan, zulogillea agertuko zan orduan. Beti bezela Flores-ek ots egin zuen. Atea iriki zionak arpegi isuriarekin esan zion il zala ta barrenera sartzeko zerraldoaren neurria artzera.

Jarraitu zion ta sartu zan gelara ta asi zan neurria artzen zulogille gaisoa. Jaiki zan orduan etzanda zegoena ta besotik oratuta esan zion: «Aizak, Flores ¿ni lurpera eraman nai nak? Goitzxo dek oraindik: neronek eramango aut, berdin baderizkiok.»

Aldi gaizto batek emanta lurrera erori zan; eta aste bete igaro baiño lenago lurpera eraman zuen zulogillea.

DIRUA

L' ARADISOAN Gizona zan Errege. Zerutik ekarri eutsan Egilleak aro edo koroia: zuzentasuna.

Paradisotik erdi-billoizik eta oso-larririk urtenda-koan, bertan itxi bear izan eban Gizonak aro ori: sa-
o;ar-adarretik dingilizka.

Errege barik ezin luzaron iraun zeikean Lurbira onek; eta gizona ugaldtu ta zabalduten asi zaneko, zerutiko aroaren orde, lurak beren erraietatik sortu eban ez bakarrik aroa, baita Errege bere.

Ordutik arrezkero Dirua izan da Lurbirako Errege.

Neska-mutiltxuak gizonak iolastu edo olgetan direan antzera, andra-gizonak erregeka Istoria edo kon-daira deritxon Liburu andi baten orri-arteon iolastu dira.

Mutiltxuak euren buruak gizon egin nai dabezan, ezpan-ganean ikatzezko bizarrak ezarten dabez; neskatiillatxuak andra irudia artuteko, ganeko gonea garrian azkatu ta dandarrez erabiltea naikoa dala uste izaten dabe.

Gizonak erregeka iolastuten asi zireanean, Paradisoko sagarrean dingilizka geratu zan aro ederra zelanbait antzeratu nairik, urrezko aroak bururako ta urrezko zigorrak eskuetarako egin ebezan.

Aberats guztiak alde baten, bestean txiro edo ezeuki guztiak batu albagenduz, da itanduko bageuskeo nor dan munduko Errege, aberatsak barre egingo leuke, txiroak negar.

Eta Gizonari biotza begietan da ezpanetan ikusten dautsanak, Dirua gizon guztiak Erregetzat autatu dabela esango leuke.

¡Ingalaterran Isabel nor dan eztakien amaika aurkitu leikez! ¿Dirua zer dan eztakienik bat, battxu ete-dago?

Gaur egunean Ingalaterra-ko Isabel da Rusia-ko Niñolas dira Erregerik altsuenak, entzutetsuenak eta mendeko geien daukenak.

Baiña euron al izatea ta entzutea ta mendetasuna Dirua-ren al izate ta entzute ta mendetasunaren ondoan ipiñiezkeru. Erregetxuen izena luzetxua izango eteleukeen nago.

Lurreko Errege au altsua ta entzutetsua ta mendetsua izanez ganera eskutapentsua da.

Lenengo eskutápena. Banakak dira Diruagaitik (xarto esan eztabenak; banakak Dirua maite eztabenak.

Erregetxuak gomutaratu daiguzan. Neron odoltsua zala diño len aitatu dogun Liburuak. Cesar aragikorra zala, Luis XIV berekoiegia, Napoleón artoa, Espaiñia-ko Carlos bigarren pamerialduna, irugarrena buru-ixiki sur-andi bat.

Eta begi ona ta asti ugaria daukazanak Liburu orren orri-artean aurkitu leikez nik esan nai eztodazan berba iraingarri asko.

Dirua gaitik esan eztan berba txarrik eztago. Erregetxurik t^wenak burua iaso leike Diruaren aurrean, onen mendekoak ain goragoraka ta lotsagaturik ikuseran.

Diruak ostera arro arro eginda Erregetxu guztien artean burua iaso leike, guztiak bat eginda baiño mendeko maitati geiago berak bakarrik daukazalako.

Bigarren eskutapena. Dirua iñor barik ezin ibilli da; ta ¡nok esango leuke! iñor ezin ibilli da Diru barik.

Iñurriak, arrak, eltxuak, sitsa ta begiak ikusi ezin dabezan pizti guztiak eurenz dabilz.

Ura, bizi ezarren, ezta beti egoten geldi: osin edo apakiñetan geldi egoten aspertuten danean, urrenge euriar asten da erretenera-nairik, erretenetik errekaztoetara, errekaztoetatik erreketera, erreketatik ibaietara, ibaietatik itxasora: itxasoan ezta iñoiz geldi egon.

Dirua barriz, iñok ezpadarabil ezin ibili da.

Ta ¡au da au! ¿Urak zer darabil beren ibiliera guztietan? Errota motelen bat.

¿Diruak zer eztarabil beren egotaldietan?

Zeruko izarrak (esatea da ta egia da) alkarreganako zaletasunak darabilz. Lurbirako gizonak euren asmo ta arazoetan alkarreganako zaletasunak, maitetasunak obeto esateko, erabilli bear leuke. ¡Zein gitxi darabilzan!

¿Zek iagi eragiten dautse goizeko izarrakaz lugiñai ta arrantzaleai, batzuk lurra ta besteak itxasoa aztertutera doazanean? Diru-egarriak.

¿Zek, poztuten dau sua, orrako lantegi gau ta egun eguzkia legez sutan dagozan orretan? Diru-egarriak.

¿Zek zirkin eragiten dautse kairik kai, ekatxik ekatx, itxasorik itxaso, eriotzearen altzoan dabilzan ontzi orrei? Diru-esarriak.

Irugarren eskutapena. Dirua, gizonen izakirik gitxien deukala, gizonari gizontasun geien emoten dautso.

¿Gizona zek dauko bizirik? Arimeak bizkorturiko odol garbiak.

¿Odola zek dauko garbirik? Birieta iatorkon aizeak eta urdaillera sartu oi iakon elikatureak.

¿Aizeak dirukirik ezer etedauko? ¿Elikatura edo ianari-edariak dirukirik badauke?

Eztaukena gauza agiria da.

Orregaitiño gaur-egunean gizonari diruak esku-artetik iges egingo baleuskeo, aizeak emen zer-egiñik ezaz izarrak amatatera ioango litzakez.

Eta gizona, abere bat legez birietan da urdaillean barik, gizon-gisan edo berera ezautu nai izan ezkeru, dirua dala esan leike gizona zelanbait gizon duteti dabena.

Gizona, erara begiratuezkero ¿zek egiten dau gizon? Adinaik.

Lurrean eguzkia sortu aurretik eta sortu-ostean ikusten dan argia legez, gizonagan adina, sortu-orduko ta sortuta gero, Diruaganako zaletasuna ikusten da.

Umea (ta umea da adin bako gizongeia) pozik eukiteko eztago dirua baiño pitxi politagorik.

«Txin, maitea», esan da Dirua erakutsi ta emon-
ezkero, udako euri tantaak lurrean baiño ariñago le-
gortzen dira negar-malkoak umetxuen betazpitan.

Iñurriak negua obeto iragoteko ogi-apurrak eta
bedar-piztiñak gorde daroez; erleak, eurak egiñiko ez-
tia. Gizonak udan negurako dirua nai dau; neguan
udarako, dirua.

Atso-aguraak zeinbat anka-sorrigo ta biotz-zimela-
go ta adiñ-illunduago ainbat diru-zaleago izaten dira.

Dirua da gizonak lenen maite ta atzenen gorrotau
edo iguinduten dabena.

Paradisoen Errege izan giñeanok, lotsaz gorriturik
esan daigun eztagoala Diruaren anditasuna baiño neu-
rri ziurragorik gure gaurko txikitasuna adierazoteko.

Laugarren ezkutapena. Dirua, gauzarik bastoenetik
egaña dala, gauzarik baliotsuenen egillea da.

Lurrak, gizonak euren gauzakaz legez, berenakaz
egiten dau: politenak erakutsi ta bastoenak eta itxu-
sienak ostendu: loraak eta usaindun bedarrak agertu
ta mea-trokoak (Diruaren gurasoak) gorde.

Gizonak ioranez beterik lurrari erraietatik mea
atara edo paper-ziztrin bati irudi bat ezarri ta balioa
emoten dautsenean, urak eta suak (lurraren betiko
lagunak) erakusten dautse gizonari zein dan berak ain
maite daben Dirua.

Meaz egiña bada, urak eztau nai: ondora basa-ar-
tera botaten dau.

Paperezkoa bada, suak erakusten dauskue egurrez-
ko geldoak baiño bere baltzagoak direala Diruaren
geldoak.

Eta au olan dala, geure txikitasuna obeto ezautute-ko itandu daigun ¿zezaz egiñak dira gizonaren gauza baliotsuenak? Gauzarik bastoenaz.

¿Etxeak zezaz egiñak dira? Ganjes-inguruko baserritarrak esango daskue zugatz-adarrakaz egiten direala; Tormes-ingurukoak, lurraz.

Londresen *kristal* edo beira utsez egiñiko iauregia erakusten dabe.

Canada-ko Montrealen edurraz baiño beste ezer barik egiña noizbait euki dabe.

Baiña ondo begiratuezkero etxe guztiak ez tira bestegaz egiñak diruaz baiño. Erri batzuetan Dirua arri biurtu da, beste batzuetan zur, beste batzuetan *edur*, beira, burdiña... edozer.

Dirua soiñean oiaia da, maian elikaturea eta edonun Errege.

Edonun ez. Lurperaiño Diruak lagun egiten dasku.

Berak esaten dau illartizetan beren iaubea nor izan zan.

Nor dan iakiteko, alper da Diruari itandutea. Illarri-azprietan arrak dira berba egiten dabenak: Dirua isillik egoten da.

Eta beerago edo gorago, arrik eztagoan tokian, ez begiak ezer ikusi, ez belarriak ezer entzun, ez miiñak berbarik egin ezin daben tokian, arimaak bakarrik bizi direan toki zorioneko edo zoritxarreko aretan, Diruak eztauko sarrerarik.

[Dirua! Zorionekoa i barik erara bizi al garean tokia.

BIZABGINTZA BATE \N

Y< URUAN ille gabeko gizon bat, arpegian lau egune-ko bizarra zuena, sartu zan bein bizargintza batean, utzi zuen buruko estalkia zoko batean exegirik eta ispillu-aurreko katadera edo *silloi* batean exeri zan.

Agertu zitzaion bizargin bat eta burua nolabait makurturik esan zion:

«—¿Bizarra kentzea nai aldezu, jauna?

—Ez, erantzun zion eserita zegoen buru murri-dunak. Ar zadak neurria, soñeko batzuek egiteko.

—Jauna, esan zion bizargiñak arriturik, au ezta josteko denda.

—¿Ezetz?

—Ez, jauna.

—¿Zer dek ba?

—Au bizargintza, jauna.

—¿Zer da emen egiten dezuten lana?

—Emen illea moztu ta bizarra kendu.

—Eta uste dek buruan illerik eztuen gizona, katadera ontan exeri-ezkero, *bioliña* jotera etorri dala?

—Ori ere ala da.

—¿Ala kordegabetzat nadukak? ¿Zertara etorri naka-
kala uste dek?

—Bizarra egitera.

—Mingaiñak alperrik zuen aboan egiten duen lana guraiza-labanak zuen eskuetan egingo balute, elitzake ikusiko denda ontan onenbeste amaraun.

Au entzunik isildu zan bizargiña, egin zuen egiteko zuena ta lengo itzak oroitu ezpalitu bezela, esan zion:

—Jauna ¿nai aldu bururako pomadarikan?

—¿*Pomada*? Gordezak ori aparitako porru-salda egiteko. Or dek erreal. Eskupekoa edo *propina* nai badek, joan ai auzora ta eskumuiñak eman ukuillxiko astoari.

—Agur, jauna, urrengo arte.

—Bai, Josapat-eko zelaian elkar ikusiko diagu.

AITA SEMEAK

A I T A.

ⁱ* —¿Zer dek?

—Gernikako Arbola ¿arbola aida?

—;Ez! zera izango dek: aitzurra; eta i aitzur orren kirtena.

—¿Nola esaten dute ba Iparragirrek asmatu zuela *Gernikako Arbola*?

—Etzuen ark ez iñork asmatu. Jainkoak nai izan zuen Lumo edo Luno deritzaion Bizkai-baserri edo ergoien txiki batean norbaitek aritz-landara bat sartzea. Gero, gizonak aundikitzen diranean txapela kendu ta kapela buruan ipintzen duen bezela, Euskalerria asi zan baserriai kapelak ipintzen. Kapela auek izan ziran erderazko *villak*. Villa auen neurria Logroño-tik eta *Haro*-tik eta or beko erri likitsu oetatik bialdu ziguten, eta gure aundikiak pozarren. Onelan jaio izan zan *Gernika* deritzaion uria ere. ¿Eta ezaldakik zer egiten dion zakur aundiak txikiari, onek aboan ezurren bat duenean? *Grausk*, orzkatu, ezurra kendu ta or konpon. Onelaxe egin zion Gernikak len esan dedan Lumo-ri. Eta Lumoko Artz eder orreri *Gernikako* arbola esaten zaio geroztikan.

—Neri esan didate Iparragirrek asmatu zuela.

—Iparragirrek bertso edo neurtitz batzuek egin ziozkan Aritzari, ta Donostiako Manterola izendatzen zan euskaldun izkribalari jakintsu batek liburu eder batean dio, Iparragirre-ren bertso oiei Altuna Durango-ondoko musikalari batek ezarri ziola soiñua.

—¿Ta zertarako egin zuten ori?

—Mundua mundu dan-artean, txoriak *txorro-txio* egiten duen bezela, euskaldunak eresi edo kantatu dezaten.

—¿Ezalzaigu aurrerago aztuko?

—¿Aztu? Buruan dauden gauzak, aiza aztutzen zaizkigu; baiño biotz-barren barrenen daudenak ez.

—Biotzean nork sartu digu ordea?

—Jainkoak. *Gernikako arbola* esan diat len zer dan; baiño ez nai nuen bezela. Lumoko Aritz bat dek eta gaiñera Iparragirre-ren eresia. Baiño aritz ortan ezadi kabi-billa edo itzala nairik asi, eresi ortan eztezakala *armoniaik*. billatu.

—*Arbola* baten, jateko gauzik ezpadu, zer nai du billatzea, itzala ta kabiak eta ostoak eta ezkurak ezik?

—Gernikakoan euskaldun guziak egin bear degu kabi bat. ¿Ezaldek aditzen?

—Itzak bai; baiño besterik ez.

—Nik eztiat, seme, ondasun aundirik, urrezko ondasunik beintzat, utziko; baiño ere zaiñetan euskaldun-odola, nere odola, nere gurasoen odola, gizonak izan lezakean odol gorri en a ta garbiena dek.

Ori zikintzen badek, eztezakala esan iñoiz euskaldun baten semea aizela.

—¿Zer du zer ikusi gure odolak Gernikako arbolarekin?

—Beste zugatz edo arbola bizi guziak dituk odeietako urarekin. Gernikako arbola berriz, egiazkoa izango baldin bada, euskaldun guzien maitetasunarenean, obe litekek Madrildik etorriarikako aizkolariak oiñ oiñetik ebakitzea.

—Aita: uste det eztezula (zuk esaten didazu, *berori* ez esateko, *zu* baizik eta ala *zu* esango dizut) nik uste det gaur eztidazula beste egunetan bezela itz egiten.

—¿Ezaldakik gaur zein egun dan?

—Gaur osteguna. Ostegun gizen balitza ¡nere poza!

—Ostegun argal dek gaurkoa. Gaur ogei ta bi urte erdaldunak eman zuen lege batek gure zugatz edo *arbola* maitea azken-asnasetan ipiñi zuen.

—¿Zergatik? ¿Zertarako?

—¿Zergatik? Ezuke adituko. ¿Zertarako? Euskaldunak erdalduntzearren, bat izateko jaio ezkiñanak batu edo biltzeko, gure odola zikintzeko, gure biotza naigabez ta gure Erri au zorigaitzez eta gure mendiak oiuz antsiz uluz betetzeko.

—¿Legeak paperetan ezaldira ezarritzen? Papera urratu-ezker, legeari ere puzka aundirik elitzakioke geldituko.

—Egia dek ori. ¿Baiño urratzeko gogorik badek? ¿Kemenik? Gaurko euskaldunak, askok beintzat edo itzik geiena egiten dutenak, besoetan baiño mingaiñean indar geiago dute.

—¿Paper bat urratzeko indar aundia bear aida?

—Nola dan ori ere. Lege-paperak, gure Lege zarraren antzeko legeenak, luzaro irauten dute. Lege-paper oiek batzuek izaten dituk suarria bezelako gogorrak,

beste batzuek Idiazabal-go gazta beltzaren irudikoak, beste batzuek eskaleen soiñekoen gisako erdi-zmatu erdi-liztuak: beste batzuek berriz zigarro paper bustia diruditenak.

—Eta gure Lege zarra azken-asnasetan ipiñi zuen erdaldunen lege berri ori ¿noiakoa da?

—Lenbizian, Moises-ek Sinai-ko menditik ekarririkako Legea bezela arrízkoa zirudien euskaldun askoren begietan; gaur zigarro-paper bustia bezelakoa ezpada, eztabil urruti.

—¿Eta zer da egin bear deguna?

—¿Etxeko zokoetan armiarma-sarea dagoenean zer egiten dek? ¿Mendira kabi-billa joaten aizenean, bi-dean ota arantzadunak ibiltzen eragozten dutenean, ¿zer egiten dek?

Apalordua dek eta guazemak aparitara.

EGAZTI BARRITSU BAT

TNGALATERRAKO Windsor deritxon gazteluan bizi izaten da urteko egunik geienetan gaurko Erregiñarik altsuena, ia larogei urte lepoan dabezala. Beste lagun askoren artean elizgizon iakintsu bat bizi da bertan, Erregiñak sarri itaune asko egiten dautsazana.

Egun baten elizgizon onegaz egonda gero beren gelara ioala, *kotorra* esaten deutesen egazti batek berbatxu batzuk esan ebazan, Erregiñak aditu bakoak.

Emakumea dan aldetik iakinguratxua da a bere ta itandu eutsan elizgizonari zer zan *kotorra* arek esanikoa.

«Zeuk nai baldin badozu, andrea (erantzun eutsan besteak), naiago neuke esan ez.

—¿Baiña zer da bera?

—Esaten badot, eztautsu diñodanak gogoia beteko Ia parkatuko daustazula uste dot ez esatea.

—Tira, esaizu.

—Zeuk nai dozunezkero (lotsatu ta makurturik ekin eban elizgizonak) ona emen egaztiak esan dabena:

«Tira aurrerp., emakuma zaar itxusi eri —*Go along, yon ugly ohi ivoman.*»

Erregiñak au entzueran barrezka esan eban: Ona emen neure Erri guztian eztagoan lango bat, berak deritxona diraustana.»

BI ARLOTE

Y-l EIN (eztakigu zein urtetan, ezta zein erritan ere)
bi arlote, biak aundiak (gorputzez ezpaziran, ar-
loterian beintzat) joan omen ziran ardotegi batera ta
arrapatu zuten izugarrizko katu aitzur edo *kafetçra*:
bere izenez moskorra.

Irten ziran noizbait, berandu bereik, eta zabuka edo
8 asko oiñakin egiten zituztela, iritxi ziran Eliza aun-
di baleii bazterrera. Aurreratzeko etzuen billatzen bi-
derik: jo batera ta jo bestera ta Elizako pareta edo
orma.

ccAizak, esan zion batak besteari.

—¿Zer dek?

—¿Nai dek Eliza traba egiten digun au bultzaka
aurrera eraman dezagun?

—Nai dekana.»

Biak orduan kendu zituzten soiñetik txartes edo
jakeak eta bazter batean utzita, «aaup... aaaaup...n
bultzaka abiatu ziran.

Ordu-laurden igaro baiño lenxeago etorri zitzaien
isil isilik beren ezagun bat, eta farraz algarak ozta
ozta gordetzen zituztela, bazterreko bi txartesak eskuan
artu ta aldendu zan.

Besteak aaaunpaka ari ziran. Alako batean beretati-
kan batek nekaturik begiratu zuen lengo bazterrera ta
txartesik ekusi etzuenean, besteari esan zion:

«Aizak.

—¿Zer dek?

—Nere ustez urruti eraman bear izan diagu Eli-
za au.

—¿Zertan igartzen dek?

—Bi txartesak atzean gelditu dituk eta...

Ipui au labur-samartzat daukanak, besteren bati
esaeran luzatu nai baldin badu, estul egin beza unean
unean eta txiro edo ezidukiaren itxaropena bezela lu-
zatuko zaio ipuia.

JESUKRISTO TA GUDARI ZAARRA

I-C EINDXOLA, Iesus Beren ikasleakaz Ierusalem-era ioala, gizon zaar bat topau eban da *limosna* bat eskatu eutsan.

Gizon zaarrak esan eutsan orduan:

«Ni gudari zaar bat naz da diru bi soil soil emonda gudari-artetik bota nabe, ezetarako enabelako. Bidean natorrela diru bat emon dot, beste daukadan au zeuri emon nai dautsu: to».

Orduan gure Iaunak esan eutsan: «¿Zer naiago zenduke: zorro bat urrez betea, ala Paraisoa?»

San Pedrok oiduan gizon zaarrari saiatsetan ikututa esan eutsan:

«Esaik Paraisoa.»

—¿Zer? ¡Paraisoa!, esan eban gudariak. Gero bere izango dogu Paraiso ori: bai orixe. Nik naiago dot urre-zorroa.

Eta gure Iaunak urre-zorroa emon eutsan, esanaz:

«Zorro au ustuta dagoanean, naikoa izango da esatea «*Artxila murtxila*, sartu ai neure zorroan» eta zema ta axe zorroratuko iatzu.»

Gure gizona zorroa artu ta ioan zan. Bide txiki batera eldu zanean, ardantegi baten ate-aurrean aarito-

anka eder bat rñai-ganean ikusi eban. Gose zan da zorroa edegita esan eban:

fñArlxila murtxila aarito-anka ederra, sartu ai neu-re zorroan», eta bereala sartu jakon da bidean bertan nai ebana iaritxi eban.

Egun baten txerrenak edo deabruak zirikatu eban gizon zaar au; baiña gizonak, nor zan ezautu ebanean. esan eban.

uArtxila murtxila sartu ai neure zorroan.»

Eta txerrena zorroratu iakon. Gudariak zorroa txerren da guzti leporatu ta errementari edo sugin bate-gana eroan eban; onek luzaro ta gogor zapaldu eban mailluka.

Gudari zaar au il zanean Paraisoko atarira ioan zan. Agertu iakon San Pedro ta esan eutsan:

«¿Zegaitik ago emen? ¿Eta zer gura dok?

—Paraisoa.

—¿Zer? ¿Paraisoa! Gure Iaunak aukeran ipiñi euanean, ¿urre-zorroa ezeuan bada ik aukeratu? Tira emendik. Tira inpernura. An nun dagozan ateak; an.»

Gure gizon zaarra sotil da larri eldu zan inpernu-ko atarira, ots egin eban; baiña atea edegi zane-ko txerren edo deabruak ezautu eban gudaria ta deada-
rrez esan eban:

«Ez orri sartuten itxi! Ez orri sartuten itxi! Neke geiegi ta zoritxar larregi ikusi eragin eustan orrek. Gizon okerregia da ori.»

Eta ezeben artu. ioan zan barriro zeruko atarira ta Iaunak agindu eutsan Pedro atezaiñari sartuten itxi eiula, txerrenari alako okerzeria egin eutsan gudari zaarrari.

AGINTARIAREN SOIÑEKOAK

Antxiña Aginatri edo *emperadore* gazte bat bizi zan, beste asko legez atarako sortua ezirudiana. Beren arazo edo zer-egin arduratsuen izaten zan nundik ondoen jantziko etezan iakitea. Egunero egunero sei ta zortzi bidar aldatuten zan, soiñeko barriakaz beti.

Menpekoen ardurarik ezaban iñoiz artu izaten. Beste Errege ta Agintari geienakaitik itandu edo galde-lu-ekero, erantzuerarik oituen izaten da «eretxi-eske dago». Agintariagaitik barriz «iantzi-erantzian dago» erantzuten eben.

Bein aitzu (1)ATEGANA ioan zan, gizonak ondo ezaututeko argi-billa. Aiztuak, Agintari buru-ariñ aren eskuetako lerroak zeatz, eritxi baten, aztertutakoan. esan eutsan:

«Gizonen biotzean ze barri dan ziur iakingo dozu, soiñean zeure agindupeko iostunik errimeenak egiñiko jantzi bat ipiñi daizunean.»

Agintaria, au entzundakoan, pozkor da gogaldi oneko iaurlu edo biurlu zan beren iauregira ta leen baiño bere ioran andiangoaz jarraitu eutsan betiko arazoari: iantzi-erantziari.

(1) Adivinadora.

Uri andi atan erara bizi zirean biztanleak: gau ta egun Jolasean edo olgetan; lanerako bideetan bedararak urten eban, iñor euretan ibilten etzalako; ta al-perrakaitik esan oi danez, «eguna beioa, gaua betor» egiten eben guztiak.

Lanak, barrua eztizkoa eukiarren, azal latza dauko: alperreriak barriz, barrua utsa ta otza ta latza ta mingotxa badauko bere, azala beintzat ezti-abaua lakoxe erakargarria dau ta beraz lanak baiño askozaz lagun geiago erakarten dauz beragan.

Auxe berau iazio zan Uri atan bere. Alberrietatik ez eze urrunetatik bideak betean ioaten zirean bertara lagun olgeta-zaleak. Onen artean *oialgiñ-izena* artuta bene benetako arlote bi agertu zirean.

Urrengo egunean asi zan eztarri zoli zolidun atso andi bat kalerik kale deadarrez, iragarri au adierazoten ebal:

«Uri onetako guztiak iakin beie atzo eldu zireala bertora arrotz edo kanpotar bi, oialgiñak, beste iñok egin ezin daikezan eduko oial eder, sendo, ikusgarri ta ikuskatx mee mee meeeenak egin daroezanak. Oial onek ikusi al daikezana gizon azkar, argi, ezertakoa edo errimea eida; ikusi ezin dabezana barriz gizon tentel, astaki, gauza-eza.»

Iragarri onek urikoai oialak ikusteko gogoia aillagiñan berotu eutsen. Erregek berak, oialgiñ onen barri iakin ebanean, beragana ots egin eutsen da atarikoxe soiñeko eder, sendo, ikusgarri ta ikuskatx bat agindu eutsen.

Onetarako guzur-oialgiñ arek urrezko ta zidarrezko gei asko eskatu eutsezan. Asi zirean lanean edo lan-irudian: ikusten etzan oiala ikusten etzirean artazi

edo guraizakaz ebaten. Noizik noizera Erregek *ministro* bat edo beste bialduten eban oialgiñakana, beren artean esaten ebala: «Aiztuak iragarriko egunak eldu dira. Oraintxe zeatz ezautu al izango dot nor dan. *Ministro* onek oial miragarri ori ikusi al badau, gizon azkarra da, daukan arazorako gizon duiña. Ikusi ezin badau, ezta gauza ezetarako ta beren orde z beste gizon azkarrago ta argiago bat iarriko dot.»

Eldu zan *ministra* oialgiñ arlote aren lantegira ta ezaban besterik ezer ikusi eurak baiño. An ezekusan ez iostorraztik, ez artazirik, ez eunik, ez euntegirik; baiña langille edo langilletzakoak beren eritxia eskatu eutsenean, etzan azartu ezer ezekusala esaten: Jan ederra ta Erregeren gogokoa izango zala esan eban.

Onenbestegaz ioan zan Erregegana ta gora andia egin eutsan soiñeko barriagaitik.

Bitartean oialgiñak beti egokazan Erregeri urrezidarrezko geien eske. Erregek gogoz emoten eutsen nai eben guztia ta ganera egunean egunean norbait bialduten eban soiñekoa ikustera; ta lenengoak legez, beste mandatari onek bere, ezer ez ikusiarren, guztizko ederra eristen eutsen lanari.

Azkenez Errege bera ioan zan, gizon andi asko lagun artuta, oialtegi edo oialgintzara. Zutundu zirean arlote biak, begien aurrean ipiñi eutsen Erregeri euren esku-arteko utsa ta Erregek bere iñok astaki, nar. kottzat euki ezzeian, ezer ez ikusiarren, izan zeikean lan ederrena zala esan eban.

lantzi au soiñeratu bear eban egun-aurrean arlote biak ezeben lorik egin: gau guztian, amasei argi gizatagian ebezala, lan egin eben, uriko lagun asko aoa zabalik konkorr tuta egozala.

Eguna argitu zanean, langille biak ioan zirean Erregeren iauregira, eskuetan iantzia ebela. Errege, poza adurretan agiri ebala, erdi-billoiztu zan; da beste zarkote bien esanera, batean beso bat, bestean istarra luzatuaz, ianzten egoala uste eban.

Eliz-ingurua egoan egun atan, da Erregek ioan bear eban Buru izatera. Iauregitik urteeran, menpeko guztiak arriturik begiratuten eutsen, guztiak ekusen alkondara-utsik; baiña etzan iñor azartuten uste ebana esaten. «¡Ori da soiñeko miragarria! ¡Obelo iantzirikorik eztau iñok soiñeratü! ¡Erregek beste bat dirudi iantzi orregaz!»

Onetan Eliz-ingurura gizon bat etorri zan, semetxu gazte gazte bat eskuetatik ekarrela. Mutikotxu onek, Errege ikusi ebaneko, deadarrez esan eban: «Agintaria alkondara-utsik dago; alkondara-utsik dago Agintaria.»

*Zeinbat bidar gaur bere
eurrez iazoten da,
arrokerien putzak
gor-itsiUtea.
¿Begi ta belarriak
zur nai dozuz euki?
Apala ta egitia
izan zaitez beti.*

ISPILT.UA

I IIOJENES Grezían eguargiz edo egun argitan argimutil bat eskuetan zuela ibilli omen zan gizon baten billa.

Argi-mutil ark esan nai zuan eztala gauz erraza cdo aisea, gizonik asko munduan egonagatik, bat, egiazko gizon bat arkitzea.

Adiskide on bat arkitu nai duenak Diojenes-i bere nrgi-mutilla, Argos-i bere eun begiak eta aizeari arin-Lasuna eskatu bear litzaizkioke.

Urrea, gauz naigarria izanez, ezta adiskidea bezin urria edo eskasa.

Gizonak bere burua ezagutzeko adiskide on bat bear du, bakoitzak bere begiakin barrena ikusi ezin dualako.

Adiskiderik onentzat daukazkigunak ere maiz eztira azartzen edo *atrebitzen* gure okertasun ta okerre-riak nola zuzendu esaten.

Nai balukete ere geienaz elukete ezer iritxi edo *alkantzatuko*. ¿Zergatik? Gauzik geienak naibaitzen ez-tituzrelako.

Ispillu baten aurrean zaudetenean, ark esango dizute besiek, edo eztakitelako edo nai eztuelako, esaten eztizutena.

Ispilluak esango digu asarretutzen geranean, ezte-
gula asarretu bear, kopet illuna ta zakur-musua ta
legatz-begiak erakusten dizkigularik.

Apaintzen geranean, ispilluak esango digu farra e-
gingo digutela alako apaingarriak badaramazkigu.

Ispillua gizarte edo *soziedadean* bizi bear duten
guzi guziak bear dute.

¿Zein da lurbira osoan, gizon guziak bear duen bes-
te adiskide bat?

¿O te dago? —Jakín nai ge nuke nor dan.

Ez Diojenes-ek, ez Argos-ek, ez aizeak dukete ar-
kitu al izango.

PERU TA MARIA

I

|-< ARREGARRI geienak izaten dira eurentzat baiño iñorentzat egokiagoak, etxerako baiño kanpokoen-tzat mesedegarriagoak. Peru, iñor bazan, barregarria zan; alperra baiña burutsua, gorputz-astuna ta buru-ariña, anka-sorra ta begi-zolia. Aspaldion eukazan laiak ugerturik, soloak latziñik, bedar galgarriak eurrez, etxebazterrak amaraunez edo aramusarez ondo apain-duta, soiñekoak dindirri-urtika, idi-beiak gitxi ta argaltxak eurak, sukaldea otza, etxe-aurreko garaia ga-rau barik, eskintokia isilla ta oilo bakoa.

Peru, fetxean ezeukanen billa auzora sarritxuegi ioanda, zorritzot bat zorritzot baiño zorritzot beteago bizi zan. Gurasoak itxiriko ondasunak lur io bear eutse-nean, agertuten iakozan astean astean edo sarriago ar-lzekodunak. Guztiai egiten eutsen abegi ona, baiño abegi utsa, diru bako abegia.

Arrzekodunak aspertu zireanean, guztiak bat egin da iru eskribauri emon eutsen Peruri *embargoa* egiteko eskua. Eskribauak aurretiaz ots egin eutsen Peruri, esaten eutsela: «Peru, aiñ egunetan *embargoa* egitera ioango gozak. —Etorri ondoen deritxazuenean.))

Peruk orduan Mariari, zoko edo bazter batera eroanda, buruari azkura barik azka ta azka egoala, esan

eutsan: Mari ¿badakin zer dirausten eskribauak? Astelenean geurera datozala, basegun on bat igarotera.

—¿Bestetara ez?

—Ezetz diño.

—¿Gurean zer iagok ba arei zer emon?

—¿Zer iagon? Erbikuma bi baiño besterik ezer ez-lon bear izango. ¿Auzotegi onetantxe bat edo batek baedodaukaz erbikuma bi?

—Zerak daukaz: Maripa Anbrusenak. ¿Baiña nok ari atara? Len bere zerbait zor dautsagula ta etxok ezer emon nai ijzango.

—Orrexegaitik emongo ion ba: bestela lengorik ez-tabela artuko esaion. Zemai au asko ezpalitz, eskribauak datozana badakie ta arei iaten emoteko dala esanezkerok, emongo ionaz, bai, laster gero emon bere.

—¿Ta zelan ipinteko? Bazkari txatxarra izango dok iru eskribaurentzat.

—Ik egik, Mari, neure esana. Erbikuma bata neuk eroango ionat neugaz basora; bigarrena eukin euk ankarik ondo lotuta. Eskribauak datozanean, nire galde asitakoan, erbikumeari sokea azkatuta, berba oneek esango dautsanaz: «Mustur-zuri: oa Arraiz-ko sagastira ta gure Peruri datorrela, eskribauak zain daukazala-ta. Arin ibili, mustur-zuri.»

—Peru: zoratuta na^ooala esango ioek.

—Ik egik neure esana, Mari, ta zoro-moro zerbait egingo ionagu. Ez besterik ezer aitatu gero.

II

Eldu zan astelena ta astelen-goizeko eguzkiaren atzetik izerdi-zapiak kapelapean ebezala eldu zirean iru eskribauak, euren mutil da guzti. Perugaitik Mariari itan-

du eutsenean onek eskaratzeko txixillu-barrutik erbikuraea atara, ankako lokarria askatu ta esan eutsan: «Mustur zuri: oa Arraiz-ko sagastira ta gure Peruri datorre-Ja, eskribauak zain daukazala-ta. Arin ibili, rnustur-zuri.))

Berba onek entzueran erbikumea iñoizko bizkorren ioian, eskribauak arriturik egozan berari begira, mutillak apurren baten iarraitu eutsen; da arik Jastertxurn agertu zan Peru, erbikuma bat galtzerpean ebala. Eskribauak zurturik, bidera urtenda, Peruri arrera ederra egin eutsen.

—Egun on, gizonak. Gaur lango eguraldi bero sargoritan, illunterarte eneban uste agertuko ziñeanik.

—¿Zelan iakin dozu ba eldu gareana?

- -Arraiz-ko sagastian nengoan da arrapaladan Mustur-zuri etorri iat, Marik bialdu dabela ta zain zaukedazala esatera.

—¿Zelan ikasi iok ba berbetan?

—¿Zelan ikasten dabe iostunen zozoak soiñua noten? Onek bere bardin: neure ekinen ekiñaz edozein mandatu egiten ikasi dau.

—¿Orixe saldu bear dauskuk, Peru?

—Ezta... ezta... ezta...

—Urte bete atzeratuko ioagu *embargoa* egitea, arteetan zoorrai geuk arpegi emongo dautsagu.

—Zeuek zareelako or dozut bada: bestela Erregeri bere eneukan emoteko usterik.»

Erbi onegaz iru eskribauok euron bideetan ioazala, bati otu iakon erbi mandataria urrengo ostatura bialdutea. «Mustur-zuri, esan eutsan, ioan ai or beeko alde-

ra bide barri ondoko ostatura ta ea sei lagumentzat bazkaria ipiñi al izango daben. Arin ibilli, mustur-zuri.»

Bai ta pozik ioan bere; baiña eskribauok atzean itxi ebazanean, etxakan erbiari bururatu ez ostaturik, ez bazkaririk. Igaro zan ordu erdi, ordu bete, ordu ta erdi... ta mustur-zuri etzan agiri. Buruari azka asi zirean eskribauok, zer esan ezekiela; mutillak, ugazaben isillik, barre egiten eben. Onetan eldu zan eurakana Peruren auzoko Maripa Anbrusena, buruan pedarkada ura ekarrela.

«Egon on laungoikoak dagizuela.

—Bai zeuri bere. ¿Ikusi dozu or nunbait, txakurren igesi edo..., Mustur-zuri?

—¿Nor da Mustur-zuri?

—Peruk berbetan erakutsi ta menduriko erbia. ¿Eztakizu Peru nor dan, Peru Arraizpe?

—¿Ta eztozu iñoiz ikusi, besapean erbi bat dabela?

—Nik eztakit beste erdi-konturik auxe baiño. Atzo illuntzean banator kariatetan txist eta txost arratsaldea igaro ta gero, banator etxera ta ce Maripa» entzun neban. —¿Eu az, Mari? ¿Zer nai? —Peruk diño biar bazkaritarako iru adiskide andi iatorkuzala ta erbi biak mesedez emoteko, urrengoan orde emongo dabelata». Au entzunda, emon neutsazan neure erbiak ez beren ederraren, zorrak deustaz da, neuk erbiak emon ezik, ezautuko eztaustazanen bildurrez baiño.»

Orduan eskribau-mutillak asi ziren barre-santzoka, eskribauak (bi beintzat) amurruarren mutillai agiraka, atsoa zer etezan ezekiala pedarkada uraz aurrera ta ordu-erdiren baten zer egin ezekiala egonda gero, eskribauak Peru Arraizpe-gana bigarrenez ioan zirean.

III

Orduko egoan Peru, eskribauak bigarrenez agertuko iakazana igarrita, ardura andiz zerbait gogoketan. Emaztea beren aginduz auzotegi guztiko errariak (ogiar-toaloak) batuten ibilli zan. Gero bien artean *etxe*-aurreko mota edo bedartzea azalatu edo atxukatu ta sotal-azpian errariak ezkutauaz batera, agertu iakezan eskribauok.

«Ona emen gure eskribau iaunok, esan eban Peruk».

—Demoniñotxu orrek, ederra sartu dauskuk: geugaz katigu eroan bear augu, polit ori.

—¿Zer da, gizonak?

—¿Zer dan? ¿Ta itanduteko adorea daukak?

—Bidea galdu izango dozue zuek: orixe dago ba, sarri ibiUi-ezik...

—Barriketak. ¿Nundik nora asmau dok mustur-zuri edo baltz orren okerreria?

—;Ene bada ta ni! ¿Igarri baietz zer iazo dan? Mustur-zuri nora-bait, berak eztakien tokiren batera, bialdu izango dozue ta gero atzerako biderik aurkitu ezinda, bear bada txakurren bat ondorik dabillela...

—Ago isillik, zaplandari ori; aor beeko bide-zokondoko ostatura bialdu ioagu-ta.

—Zuek txarto emongo zeutsen mandatua. Ekanduta zagoze ezpanetan beera *litijio* ta *prozesu* ta *dilijenzia* ta onako berba arrotz gatx asko dingilizka dozuezala berba egiten ¿da gero zelan aditu, zelan ulertu zuei erbikumetxu batek?

—Peru... Peru... ¿Adarrari bigarren soñua atara nai aldausak? ¿Lengo irri edo *burlea* ezalda asko izan?

Maripa Anbrusenaren erbiakaz egin dauskuzuen irria
¿ain arin aztutekoa dala uste dok?

—launa ba... launa ba... eztozue gugaz bazkaldu
gura izan, da guk barriz Maripa Anbrusenari, zeueri
bazkari itxurazko bat emotearren, eskatu geutsazan;
zuek eztozue gura izan ¿da zer egingo genduan? Bein
ekarri-ezkero ¿simaurtzara botako genduzan?

—Peru: tira geugaz urrengo gaiztategi edo preson-
degira, guzur-urtika ta iñor irakiten egon barik.

—Ezcidazue ba ori esateko sapatzeфик eldu, kata-
rra enaz-da.

—Tira, tira.

—Nik onakoxean ba eztakit zer egingo neukean».

Au esanaz asi zan Peru atxurraz, amurruz legez,
motan or zulo emen zulo egiten; da zulo bakotxean edo
ogia edo artoa edo taloa agertu zan. Au ikuseran arritu
zirean eskribauak eta itandu eben:

«¿Ze atxur dok ori, Peru?

—¿Ai au! Eskerrak beronen bizi gara gu onen au-
keran. ¿Zegaitik, uste dozue ba, eztodala nik galgarau
ez artagaraurik ereiten? Atxur onetxek emoten daust
nai beste errari. Etxaurreko mota onetantxe lurra aza-
Iatu-ezkero, beste nekerik eztot bear.

—¿Salduiguk atxur ori?

—¿Saldu? Au erosteko dirurik eztago inguruotan.

—Eukiten emoiguk ba amabost bat egunerako; ta
beste urte betean ire zorrai geuk arpegi emongo iautse-
eguk.

—Orrenbeste mesede gizonari egin leio. Eroaizue
atxur ori ¿baiña amabost egun orretan zelan bizi izan-
go naz berori barik?

—Gauza erraza dok ori. Ataraik ontxe mota onetan amabost egunerako erraria.

—«Bai ta egia»).

Peruk atara ebazan ordu erdi lenago sa'rturiko errariak eta atxurra emoeran esan eban: gero, gizonak, ez uste izan edozein lurretan ogi nai arto nai taloa atara leikeanik. Noberen etxe-inguruko lurretarako dauko a-xur onek beronen al izatea».

Au entzueran atxur ori artuta alde egin eben iru eskribauak. Urrengo goizean iruren etxe-inguruak ondo aztertu ta ondiatuta ikusi zeikezan. Peru Arraizperen atxurrak arria ta arra naikoa atara ebazan; baiño ogirik txori batentzako lain bere ez. Au ikusirik aurregunean baiño bere amurratuago ioan zirean Arraizpera eskribauak, atxurra eskuan ebela.

Orduko egozan Peru ta Maria alkar artuta, eskribauak ioazanean egin bear ebena ondo ikasita. Mariak garri edo gerrian puixika edo mazkuri bat eukan odolez beteta iake-magalaren azpian ezkutuan. Peru goizik erdian egon zan adar eze leun leun batzuk ebagi ta azala kontuz kontuz eratzi ta azal onekaz zinburrnak edo txistuak egiten..

Eldu zirean alango baten gure eskribauok, eta ezpanetan amurrua bits egiten eukela Peruri saputzetik oratu ta esan eutsen:

ceDemonitxu orrek., eztok igesik egingo oingotan.

—¿Zer?

—Zertzeta, burduntzi-ertzean erreta.

—¿Nora narozue?

—Gero ikusiko dok, asto orrek.

—¿Zegaitik?

—Tira isillik eta geldirik.

—Mari, Mari: ik onei gauza txarren bat egin bear izan dautsen, ni onan eroateko; ta nik onakoxean, nai La urkamendira naroela, edozer egingo neuke».

Au esanda. Peruk aurretiaz eskueran eukan gaiñibeta zorrotz bat artu ta sast emazteari garri garritik —puixika edo mazkuritik— sartu eutsan. Marik berarizko arnasa ots bat egin da lurra io eban, ilda legez, odola zauritik arradan eriola.

Eskribauak au ikusirik zur tuta ce Peru, esan eben. ¡Zer egin dok! ¡Emaztea il dok!

—Gizonak ¿zer uste zenduen ba? Idizko zoro bat litera legez eroan nai izan nozue iruron artean, da odolak, esakunea dan legez, su baga diraki.

—Peru ¡zer egin dok, errukarri orrek!

—Baiña ez ikaratu: sarri ilten dot nik au. Gaiñibela bat daukat, ondo ill arren, txistua io-ezkero len kendiriko bizitza atzera emoten dabena.

~-¡E!

—«Ikusiko dozue».

Peruk orduan artu eban zinburrun edo txistu bat eta «juiiiist» ots eragin eutsanean, illak edo iltzakoak begiak erdi zabaldu ebazan. Eskribauak arrituta. «Juiiiist» bigarrenen: Mariak arnasa luze luze bat artu eban. Eskribauak aoa zabalik. «Juiiiist» irugarrenen: Arraizpe-ko atsoa beren señera etorri zan. da eskribauak konkor tuta gelditu zirean. Peruk benetan edo *serio* egoala esan eutsen: ((Gizonak: emazte berbaldunegiak isilkortu ta urtenegiak otzanduteko eztago onako tresnarik. Emakumarik dongeenak ondu ta uzue-nak bezau leikez: lasterko gero.

—Peru ¿ik zetarako dok ori? Ire emaztea iñoiz berbalduna ta urtena ta donga ta uzua izan badok bere,

baitu edo prestau eiguk tresna ori aste bete edo bitarako ta zorrak epetu ez eze garbitu bere geuk egingo dauaguzak.

—Gizonak: eneutsan nik au edonori ez emon ez baituko; baiña gizon argiak zaree, zer egin bear dan dakizuenak; eta, aste bete barru atzera emotekotan, eroan eikezue tresna ori».

Esker andiak Peruri emonda euren poza siñiztu eziñik ioan zirean eskribauak euren bidean.

IV

Kezka ta eztabaidak zer direan eztakienak ioatea baiño ezeuken Arraizpe-tik uri-alderako iru eskribauai iarraika. Zaarrenak, *erlikia* baizen maiterik, Peru Arraizpe-ren zinburrin edo txistua . eskuan eroan. Beste biak bein banan esetsi eutsen, esanaz eurak bere etzireala beste bat baiño gitxiago ta zinburrina etzala batena bakarrik eta nok lenengo eroan bear eban iakiteko zerbait egin bear zala.

Ona eldueran eskribauen barri dakienen uste ta critxiak bana dira edo eztira bardiñak. Batzuk diñoereungo ardantegira eldueran, nok eroango eban bateko urrera erabagi ebela.

Beste batzuen ustez zotzak esku-azpian erdi-estaldurik, andiena atara ebanak zinburrina eroan ebala. Baiña ¿nok au siñiztu? ¿Noz ezautu eteda dirubako eskribaurik? Bat edo baten eritxian euzitan erabagi eban nor izango zan basa-txilibitu aren iaubetzakoa.

Zana zala, eroan ebanak etxera eldu zanean emazteari asarrez begiratu ta berbarik adiña agiraka egin

etsazan, da arako emaztea bere gogor egiten asi iakonean, «sast, sast» gaiñibeta edo *kutxilo* zorrotz bat sartu ta beingo baten il eban. Atara eban gero zinburrun ori ta asi zan ioten «Juiiist», baiña zirkiñik bere ezaban egin illak, ce Juiiist)) bigarreanean bere ta alperrik. Iru-garreanean luzeago «Juiiiiiiist», ¿baiña zer? geldi, gogortuta emakuma errukarria.

Eskribau koko au emaztearen gorpuaz zer egin eze-kiala, uleai tiraka ta salea ostikoka apurtu bearrik ebi-llela, atean norbaitek ots eginda, zinburrun edo txistu ori bigarren eskribauari eroan eutsan.

Oni bere lenengoari legez gerta edo iazo iakon. Iru-garrenari bere bardin. Egun bere atantxe alkar iku-si eben irurok eta ordu lauren inguruan alkar itundu-ten egonda, irradan edo arrapaladan ioan zirean Arraiz-pe-aldera.

Peruk urrunetik eurak illeta-soiñekoakaz ikusirik, «agur ni» esanda bidera urten eutsen. Eskribauak Pe-ru-ren atxaki ta akiakulai iaramon бага, erratz edo upa baten barruan sartu ta bira biraka itxasora iaurti-teko usteaz eroan eben.

Urrengo ardantegira eldu zireanean, eskribauok zer-bait artu bear ebela ta gelditu zirean bertan, Peru, erratz edo barr¿katik atara barik, bide ertzean itxita.

Onetan artalde bat bertatik irago zan, da Peru asi zan oska erratz-estalki edo *tapea* ukabilka ioten. Zer etezan iakin nairik urreratu iakon artzaiña ta «nor da» itandu eutsanean, Peruk, «Ai au da lorra, au da atse-kabea», erantzun eban.

—¿Zer dok ba, atsekabez egoteko?

—¿Zer dodan? Erregeren alabeagaz, nai eztodala, ezkondu gura nabe.

—¿Nai eztoala?

—Nai banaiok, neure oiñen ganean ioatea izango naieukek.

—Euk ezkondu gura ezpadok, amentxe naiagok neu, orretarako gertu.

—Erratz oni aoa zabalduiok bada ta iruk egingo ioagu bizikerea; Iii sartuko nok artzaintzan, i Erregeren iauregian.»

Ordu erdigarrean Peru ar talde ta guzti bidetik urre ebillen, artzain gizagaisoa bira biraka eroan eben erratz-barruan eskribauak. Noizik noizera esaten eban «ezkonduko nazala». Eskribauak euren artean: «gure Peru r i zoratu i ako».

Itxasadarrera eldu zireanean, iru eskribauen artean bultz egin da uretara botau eben erratza. Zatitu zan atxartean da artzaiña olatu-arteanean ebillen lerrak egiten, gorputza ur-azalean euki-eziñik.

Eskribauak euren kurruka edo tipo edo barruko ar Ixarra Perugaz batera itxasoan ito ebela uste izan ebenean, asi zirean etxeranzko bidea egiten. ¿Nok zeaztu aren ikara ta zurtasuna, Peru Arraizpe, arako Mustur-zuri ta atxur ta zinburrundun Peru euren begiakaz ardi-arteanean, batari txistu, besteari ziri ta besteari arrika ikusi ebenean?

Peruk euren arpegia ikusiaz bakarrik igarri eban euren barruko kezkea; ta bigun bigun, oi ebanez, ezer ezpaileukan, itandu eutsen:

((¿Orain bere emen baiño etzaree, gizonak?))

—¿Peru da berau? ¡¡Peru Arraizpe!! ¡¡Eguno onakorik!! ¿Nun batu dozak aardi orrek?

—Enozue ikusi olatu-arteanean, kolpe batari ta kolpe besteari, ardi zuriak batuten?

—*Zelan* edo atan abillena bai, baiña geiago ezin ikusi izan ioagu.

—Nai izan baneu, onelango sei batuko nebazan.

—¿Baaldagoz orain bere?

—Bai zuek irurok artu-ala ta geiago.

—¿Botako nok neu bertara, lekurik onenera?

—Orrenbeste mesede egiteko beti nago gerturik.

—Bota naik orduan».

Peruk bultz gogoz egin da bota eban itxasora bata. Au, zaarra ta igeri edo ugar ezekiana zan da artzaiña baino leenago asi zan itoten.

«¿Zetan iabilk a?» itandu eutsen beste biak Peruri.

—Onenak begiz io ta artuten dabil. Arin ezpazabilze, badakit zer iazoko dan gaur.

—Bota gaizak orduan arin arin.

—«Tira bada», esanda bultz egin eutsen onei bere Peruk eta tipitapa, beste gauzarik agiri ebala, artalde-billa ioan zan.

Peru Arraizpe, alperren Aita,
¿zuk eraz urten zenduan?
alperrak zoritxarreko dira
illezkero ta munduan.

ZULO BAKOTXARI LARAKOA

- IRAIN agertuko dogun gauza au oraintsu Ingiate-
^-'^ rrako uri baten iazo eida. lazo leiteke beinik bein.

Gau otz izugarrizko otz min baten gizon bat ioan oi-
ñez beren etxe-aldera, soiñekoz ondo orniduta, okotze-
raiñoko aletxo edo *botoi* guztiak lotuta eroazala. Ze or-
du zan iakin nai eban, baiña gerrestu edo iake andia ta
amilla edo iakea azkatuta otzituko zanen bildurrez, or-
duari edo *erloioa* ikusi barik aurrera ta aurrera ioan
beren bidean.

Beraganantz beste gizon apain iantziriko bat eto-
rren, da au ikusirik, lenengoak beren artean esan eban:
ceGizon onetxek esango iaustak zeinbatak direan, da
orra nik, otzituteko bildur barik, nai dodana iakinda».

Urreratu iakonean, bera legetxex gitxi bat gora-bee-
ra, ganeko iake edo gerrestu. ta guzti ta soiñekoak ardu-
raz lotuta besteagan ikusirik, kapela-egalari eskuaz iku-
tuta esan eutsan:

«O gizon ¿badakizu ze ordu dan?))

Beste au gelditu zan, da eskumako atzorro edo *guan-
tea* kendu, gerrestuko botoi geienak azkatu, amila edo
iakea zabaldu, orduari edo *erloioa* atara ta argialdera
burua makurtuaz ikusi ta puzkatxu baten egonda, otzak
dar dart eukala, erantzun eutsan iakingureari:

«Bai».

Ta beste berba barik aurrera ioan zan beren bidean.

Onelangoxeetarako sortua dala dirudi esakune zaar
polit onek: *Zulo bakotxari hako* edo *larakoa*.

DONE AGEDA AURREGUNEKO IA ZOÉ RA BAT

Y< IZKAIKO erri baten latin ikasten egozan mutil batzuk, liburu baiño arrautza ta lukainka-zaleagoak geienak.

Zezeillaren 4-garren eguna eldu zanean, okerrenari otu edo bururatu iakon etxerik etxe Done Agedaren eskea batuten ibiltea. ¡Gazteen gauzaak!

Ibili bear daben geienetan, ez atzera ez aurrera ez-labe begiraturen, da bostarik bitan iausten dira.

Zortzi edo amar zirean ereslari edo kantariok» Gaur bakartar edo praille dan bat zan euren Buru, au da, bakarreko gauzak erestekoa. Or zarata, emen oles, arrautza-lukainkatan, nai beste ez baiña, ian-edantxu polit bat egiteko lain eukala, erriko bertako mutil aita baiño andiago egiñiko batzuk lepokadak emonda etxera bialdu ebezan.

Au etzan okerrena izan. Urrengo egunean maisuaren belarrietara ibillera onen barria eldu zanean, deitu eutsen gure mutilloi. Oi danez, banan banan karduak izaeran, «ni enaz izan» erantzuten eben; baiña gauza agiriak alper da ukatutea ta maisuak erakusmeneko zigorrana edo *kastigu* emon eutsen: zoriz edo *suerteak* botata, euretatik bi ikastegiak bota ebazan.

Aste bete barru, eztakit nor bitarteko ipiñita, lortu eben mutillok irakaslea bigundutea ta baketuaz, barriro ikas-mutillen artean sartuak izatea.

MONTE CARLO-KO URREZKO GUZURRA

- URE irakurla guztiak dakie *Monte Carlo* deritxola ^{^^} *Monaco-ko* Erriburuari ta Europa ta Amerika-ko alde askotako aberats alper iokolari asko batu oi direa-la bertan, batez bere negutean.

Aurtengoan iazo eida orain esango dogun gertaera polit au. Emakuma bat, lotsa andi bagakoa edo Lekeition esaten daben maskara-arpegiduna, sartu zan gau baten Monte Carlo-ko ioko-gela baten. Lendiko adiskide bat, arra bera ta lenendari edo *prinzipea*, mai-egal baten egoan, aurrean urrezko diru pillo andiak eukazala.

Emakuma narru-lodiak esan eutsan: «Lenendaria: zeu orren adu oneko ikustea atsegin dot. Esaidazu kopuru adutsu (1) bat, neuk bere iokatu ta irabazi daidan.

—Ipiñi eikezu pitotxu au zeure urteen kopuru-ganean, da irabaziko dozu».

Ta au esaeran barretxu gozoa ezpanetan ebala, urrezko diru pillo ederra luzatu eutsan lenendariak.

Emakuma gangarrak dirua artu ta zerbait gogoan erabilli ta gero 27-garrenari ganeratu eutsan dirua.

(1) Afortunado.

Arik lastertxura bankadunak edo iokolari-buruak berba oneek edo onei iagokezanak esan ebazan:

«36-garren gorriak irabazi.

—¡Ara!, neure urteak» esan eban mari-mutillek.

Bederatzi urte ian nai izateak ona zeinbat kalte e-karri ebazan gau atan. Urrezko guzurra benetan esan leio emakuma iokolariak esanikoari.

EZTARRI ON BAT

1-1 MAKTJMA ereslari edo kantari bat egoan Inglete-
" ^ iTako uri baten. ICorreo-etxera eskutitz-billa ioan-
da nor zan esan ebanean, bertako gizon batek esan
eutsan:

((Andrea: zuk diñozuna izan leike egia izatea, bai-
ña edonor etorri leike zure izena daukala esatera.

—Neu nazala Mariana Brandt, da emoidazuz nire
izenean etorri direan eskutitzok.

—Edozein etorri leikeala Mariana Brandt dala esa-
tera. ¿Eztaukazu *tarjetariki*

—Eztaukat, gizona, *tarjetariki*; baiña edozein eto-
rri baleike esatera, ezin agertu leike neu baiño besterik
iñor dala erakustera».

Au esanda asi zan Opera-atal batzuk eresten. Au-
zoetakoak leioetara urtenda aoa zabalik egozan bera-
ri entzuten; baita korreoko gizona bere pozarren egoan.
Amaitu ebanean, Marianak esan eutsan gizonari:

((Datorrela edozein Mariana Brandt dala esatera».

—Eskerrik asko, andrea, emon daustazun pozal di
onegaitik. Ona emen zuretzako eskutitzak)).

ZEINBAT ERRI, AINBAT EKANDU

A LEMANIA-KO Agintariaren Anae bat itxas-gudarien nagosi China aldean dabillena, lengo baten emaztea lagun ebala legorrez bide luzean ibilli da ango errialde bat ezaututeko asmoz. Atan ebilzaia eldu iaken Mandarin edo *gobernadore* bat, ondo-etorria emotera. Chinan xirte-kontuetan ezedodauke gure arteko uste ta esakerarik. An gazte bati, palagatu ta ondoesanez poztuteko, zaar-antza daukala esan oi iako.

Mandariñak adiarazola edo *interpretatzat* alemán bat eroan beragaz. Eldu zaneko alkarri egun onak emonda lastertxura, mandariñak lagunaren bitartez itandu eutsan Enrike lenendari edo *prinzipeari* zeinbat urte eukazan. Ogeta amazorti urte beteta eukazala onek erantzun ebanean, mandariñak berrogeta amar urtekoa zidudiala esan eutsan. Berba onekaz esan gura izan eutsan berrogeta amar urteko gizon eldu batek langoxe buru ta argiduna zala.

Gero Enrike-ren emazteari (adierazolearen bitartez orduan bere) itandu eutsan zeinbat urte eukazan.

—Ogeta amabi», erantzun eban lenendari erneak. Au entzueran mandariñak zerbait esan eban, da adierazota gorri gorri gelditu zan, zer esan ezekiala.

Enrikek esateko ta esateko onean agindu eutsanean, gorriago egiten zan alemán au. Azkenez, gogoaz kontra bazan bere, zer zan esan eban:

((Irurogei urte daukazala eidirudi).

Enrikek eta emazteak emon eutsen barreari ¿nok arek isildu? «Ori egia balitz, etzendudazan emaztetzat artuko» esan eutsan senarrak. Barrealdi on bat guztiak igaro eban. Mandarina, zegaitik zan iakiñezarren, bes-teen pozaz pozarren egoan.

NOK NORI?

|H RROTARI bat eioian bidean, beren bezeroakgana zaldi eta astoetan uruna eroiela,, baita leiotik begira egoan irastari edo eskribauak itandu eiotsan:

—¿Errotaririk eldu eteda iñoz zerura?

—Ara ba iauna, bein errotan bat ioan eizan zerura *Aburukoa* egiteko asmoaz eta *Ipiñi* zituan alegin guztiakaz ez eieban zeruan aurkitu irastaririk.

EGUZKITAKO ALACALAKOA

i IALTEGI edo *pañería* baten mutil gazte bat egoan, ^^^ beste askoren artean, salgeiak egiteko agindu ta egiña: berbalduna, irri-barretxua ta gure atsoak esan oi dabenez lauzirikoari laumarai eragitekoa. Oialtegi atara eldu zan emakuma bat zerbait erostera. Oial batzuk erosi ta gero, eguzkitako bat eskatu eban ona, ederra, sendoa ta ez gorea edo karua. Gure mutil saltzailleak zokondo baten egoan eguzkitakoa, etxekoa zalakoan, zabaldu ta argitara begira ipiñi ta gozaro esan eban:

«¿Zer deritxazu, ene andrea, gauza oni? Ona ta ederra ta sendoa gura senduan. ¿Nun oberik, nun ederragorik, nun sendoagorik? Ukutu zeuk.

¿Ziriko edo *seda* onen bigun, leuna! Alperrik araluko dozuz uri guztiko dendak. Au barik ezin ioan zinaikez gaur etxera.

—Ez, ene gizona, ori barik enaz ioango; orrezaz ganera beste bat gura dodalako.

—¿Zelan bada?

—Eguzkitako ori neuk ekarririko zaarra dot eta...))

Eztakigu zelan aldendu zirean sal-erosleak: barre gogoz egin ebena, bai.

KATUA BAI TA KATURIK EZ

IPUIÑAK eta atso-agurak gauza bardin bat dauke: urte-pilloa. Agura bat, zaarra ezpada, izan leike karabiñeru nai maisu, nai zorrotzailla nai narru-erosla, edozer izan leike; baiña ez agura. Atso bati, urteak lepotik kendu ezkeru, atsotasuna kendu oi iako. Ipuñak ipuin izateko urtetsuak edo zaarrak izan bear dabe. Nik esateko daukadan au eztakit noizkoa dan: ala atzo goizekoa, ala Matusalen-ek lenengo buruko miña izan eban egunetakoa; eztakit zaarra ala zaartxua ala zaarkotea ala zaarrez dan; berba baten, eztakit ipuiña dan ala eztan. Gauza bat badakit orregaitiño: laburra dala ta luzatu nai badot, nagi batek besoak zabalduetea baiño gatxago izango dodala katu onen iazoera au luzatutea.

Katu bat zan, ederra katua, bost libra pisateko iño-ri ezer zor ezeutsana. Bizia... nai baiño obea eukan, da gero loditu bear: bai neu bere. Sutondotik, neskatiilla otseña sutako autsari putz egitera etorri-arte, etzan iagiten; eta orduan bere eskaratz-erdi erdian aurreko arikak luzatu, lepazurra indiano, euren eskumakillak legezt makotu buztana zut zutik ipiñi, begiak itxi, aoa zabaldu ta min latza oker okerrik aizetaratuaz, iaiki edo *brinko* baten patataz da perrezillez da kipulaz betterik egoten zan otzara-zabal-ganera ioaten zan: eta an lo. Leixiba edo bogada edo latz-egunetan izan ezik, au

izaten zan gure katu ederraren goizaldea igarotea. Ez-
neduna etorri-arte (zortzirak inguruan atean ots egiten
eban berak) ezeban patataartetik zirkiñik egiten. Or-
duan otseña bera baiño bere ariñago ioaten zan ate-on-
dora. An, ugazabandrearen aginduz, plater edo txara-
mer ausi baten emoten iakan beti ezne-tindi bat.

Etxe atako senar-emazteak seingeak edo seme-alaba
bagakoak zirean, eta iakiña da, umerik eztagoan etxean
katuak izaten dira ume.

Egun baten, adiskide batzuk bazkaldutera etorteko
zirean da ugazabandra edo etxandereak bost libra geeli
ekarteko esan eutsan otseñari ta arraiña ta osteran-
tzeko iakiak ugari arek bere ipinteko. Otseñak ekarri
ebazan ekartekoak eta ioran andian ebillen gauzak aton-
duten. Onetan erre ta alperrik galdu iakon geeli guztia
ia an zirean estutasunak.

Mairako ordua eldu zanean, sukaldean agertu zan
etxeko andrea; asi zan begi ta surrakaz lapiko-trebe-
ra-topiñak azterketan, da aragi edo okelarik ez ikuse-
ran, itandu eban:

((¿Nun don, Mari, geeli ederra?

—¿Nun clan? Eztaki, andrea, zer iazo dan: katu
deabruzkoak ian dau.

—¿Katuak? ¿Guztia? ¿Bost librako geelia? ¿Ian?

—Bai beste ainbeste euki baleu bere: ¡ona da bera!

—Miz miz miz miiiiz. Miz miz miz miiiiz. Miziña».

Miziña komunera bideko mai txiki baten lo egoan,
da nekez aurkitu eben. Orduan etxandereak *pixu* edo
balcmtza bat ekarri eragin, da alde batean bost librako
pisua ta bestean katu lotia ipiñi ebazan. *Balantza'-ko*
plater biak parez parez egozan.

«Mari ¿bost libra ezta izan gaurko okelea?

—Bai, andrea,

—¿Ta katuak ian dabela? Bost libra doi doi daukaz katuak; bost libra-ko geeli ori emen dago. ¿Eta katua nun da?

Eztogu ezer asmau gura. Ipuña ezta geiago. Otseiñari arpegia gorritu izango iakon, lotsaz; ugazabandreari bere bai, amurruz; baiña eztogu ezer asmau gura. Ipuñari labur deritxonak luzatu nai badau, geuk esango dautsagu zelan luzatu. Katuak noizik beiñean. *miao miao* egiten eban; da ipuin au esaeran luzatu gura dabenak, ordu-laurenlxu baten miao katuaren gisan egiñezkero, ordu-laureneko luzetasuna emon leio.

IPUIN ANTZEKO GERTAERA BAT

\\ EW Orleans-ko seme bat, Nicolls jenerala, begi ta istar da beso-bakarra zan; ta au gora-bera gogaldi oneko gizona. Sarri beren adiskide ta lagunai esaten eutsen Mobileko urian iazo iakon gertaera au.

Ostatura eldu zanean, gelaritzat mutil baltz bat izen-tau eutsen. Etzatorduan, mutilla, oeari eragin da gero, beste zeregin batzuetara edo lotara edo al ebana egitera ioian, da Nicolls-ek ccSam, esan eutsan, kenduidak ea istar au».

Mutil gizagaisoa zurbil ez (baltzak zurbilduten ez-tirealako) baiña beinik bein konkorturik gelditu zan.

«¿Estarra zelan kendu ezaldakik? Begiratuik, urren-gorako ikasteko bere».

Ta guzur-istarra kendu ta oial baltz-artean batu batu eginda kutxan gorde eban.

Mutilla gabon esanda kanporako egoala. Nicolls-ek «Sam, esan eutsan, kenduidak orain beso au».

—launa, nik ez; nik ez, iauna. Neure bizi guztian eztautsat nik gizoni orrelango gauzarik egin», Sam-ek zurturik esan eban.

—Eztok ba gauza gatxa. Begiratuik ea».

Ta istarra baizen erraz kendu eban guzur-besoa ta oial baltz-artean ondo batuta kutxan gorde bere bai.

((Onezkero begi bat kendu bear ioat, Sam. Ona zelan», esanda, guztir-begia berarizko ontzi txu baten gorde eban.

Mutilla geroago ta arrituago egoan; biotza, bildurren bildurrez bularretik iges egin nairik, zarataka eukala esan zeikean, da aldendu zan.

Sartu zan oean Nicolls, da irri-barretxu bat eginda, mutillari barriro dei egin eutsan.

Agertu zan mutilla. ¿Nok esan zelango ikarea artu eban, jeneralaren asmoa entzundakoan?

c(Sam: kenduidak orain burua».

Sam-ek entzueran, gelako atea isteko bere asti barrik, arin aringa ugazabagana ioanda, arnasoska esan eban:

(dauna: gizon bat dago 48-garren gelan beren burua zatika zatika ilten».

Gauzarik asko baiño naiago genduke. Nicolls jeneralaren gogaldi ona beti euki.

PETER ANDIAREN JATORRIZKO GERTAERAK

H ÜSKERA zaarra, euskera menditarra, urietatik ige-
~^ si dabillen euskera marroiza, Errusia-ko Agintari
baten bizia besoetan dabela dakusenean, asko, bear
bada, arrituko dira; zeinda abarka ta txamarra zaarrez
iantziriko baserritar bat, kapela baltz ederra buruan da
zidarrezko kirtendun makilla leun zerdena eskuetan
dabezala, bailekusen.

Baiña iakin beike, berbeta guztiak uritartu-orduko
menditarrak izan zireala; apaindu baiño leenago, ma-
rroizak; iakitunen luman baiño lenago, artzaiñenean
bizi izan zireala.

Erromako lenengo aldiko gizon iakitunak, gitxitzat
euken latinez euren liburuak irastea, latina menditarra
zalako; ta greziarrez egiten ebezan. Dante-ri arpegi artu
eutsen adiskideak, latinez barik italiarrez liburuak egi-
ten ebazalako: menditarra zan orduan italiarren ber-
betea. España-ko Fr. Luis de Granada ta Fr. Benedicto
Feijoo-ri beste ainbeste egin eutsen, latinez egin-bea-
rrean, gaztelarrez liburuak egin ebezalako. Gaztela-ko
berbeta ori menditarra zan orduan.

Gure euskera ederra menditarra da, badakust;
uritartu gura leuke ta iñok eztautso onetarako txartelik
emon gura. Kanpotar agintarien emonaren begira ba-

gagoz barriz, erdal-sitsak iango dautsaz soiñeko zaar-txuak, billoiztuko dabe ta otzak kibil kibil eginda ilgo da.

Apaindu daigun geuk euskaldunok geure berbete laztan maitagarri au. Mendietan ibilteko, *Peru ta Maria-ren* ipuiñak abarka ta txartestzat ipiñiarren, urietan ibili nai dabeneko *Peter Andia* ta beste soiñeko asmo barriko asko egin daiguzan.

Marroiz iantzita dabillenari txakurrak bere zaunka egiten dautse, errizain edo amameruak goitik beera begiratu, legeak eurak sarri magala iaso; atarietan, atea erdi-zabaldurduko, bekokitxordo ta berba garratzakaz itaune asko egin. Dotore ta apain iantziari barriz txakurrak isildu, amameruak burustu, legeak makurtu, atek zabaldu, bekokiak argitu ta berbak gogotu.

Euskerea onelan iantzita ikusirik, ez bada uste izan aratuste-egunak eldu iakozala.

Dabillela euskerea uririk uri au baiño bere soiñeko apaingarriagoakaz. Euskalerrriak eztau orduan erdale-rria irudi izango.

Besteren batzuk, ain urrun soiñeko billa ioan nazalako, arrituta egon leikez; eta Errege andiak urri, buztandun izarrak baiño bere gitxiagotan agertuarren, eskuerarago banakaren bat edo beste badaukadazala esan daikedo. Or daukadazala Franzian Luis XIV ta Napoleón, Españian Felipe II-garrena ta beren Aita Carlos; eta barrurago ta urrago ta aukeran Naparroako Errege ta Bizkaiko Iaunen artean, begia ta gogoa bete-ala neke andi baga aurkitu leikezala.

Errege ta laun orren iazoerak batuteko Stoehlin asko balegoz, agertuko litzake bat edo bat euskeraz azalduko leukezana. Ta euskalzaleak, egunari laburregi dertixela bizi direanak beintzat, onelango liburuak egiteko, Stoehlin-en begira egon barik, oba egingo leukee eurak eurenaz iazoerak batu ta paperetan iratsi.

Uste dan baiño gatxago ta neketsuago da euskerazko biurketak egiteko arazoa. Esan daiela bestela iostunak, gurasoen soiñekoakaz seme-alabentzakoak egitea zeinbat neketsuago eztaben izaten, dendarik arako eun-miesa-oialakaz egitea baiño. Alosak arduraz artu, adabakiak kontuz ezarri, azpildurak zee zee egin, da aletxe zaarrak iasean estalduarren, soiñeko zaar barriraztua guzur-agiñak eta odei euritsuak baiño bere errazago ezaututen dau begi lausoak eztaukazanak.

Liburu euskeratuak, barriak izanarren, beti dauke zaar-antza; baserriko aize-arteetan sortu ta iaio ta aziak izanarren, erdal-uri-usaiña etxake ioaten. Ezarri bekio oni arazoaren gaiztasuna ta edozein egongo da atzcrea biurketan asteko.

Liburu au, izan leikean gatxena ez gitxiago bere izan ezarren, badaukaz orregaitiño gatx-unetxuak. Izena bera biurtuteak luzaro euki nau buruari azka ta gora begira. Latiñezko *Petrus*, Errusiarrak eta Ingelesak *Peter*, Italiarrak *Pieiro*, Españiarrak *Pedro*, Frantziarik *Pierre* esaten dabe; euskaldunak barriz Bizkaian *Peru*, Gipuzkoan *Peillo*, Lapurdi-n *Pierres*. Zuberioan *Betiri* esaten dabe. Bizkaiko euskerara biurtu dodan-ezkerok, ¿*Peru* izentauko neban ala *Kepa*, norbaitek uste dabenez? Irakurgeti edo *Ipuintzat* artuko eusten liburu au ta naiago izan dot, eio ezindako lanari baten antzera, oso osorik ezarri.

Gizon andiak, euren buruentzat ilda askozaz geroago bere, inorenzat zelanbait bizi izaten dira. Augaitik edozein Iztegitan berbatxu bat dauke eurentzat egiña: ezilkorrak.

Peter Andia ezta errusiarrentzat utsik bizi: baita euskaldunentzat bere bizi da.

Euskaldunak, euren Erri au maite dabenak (besteak euskaldun-izena ezizena dabe) asko ikasi daikee gizon andi onen egikeretan.

Euskaldunen ganean berba egiten danetan, banazean edo banakatuta ezautu daroaguz. Baiña ordua da euskaldunak batuteko ta euskaldunak batuta ezaututeko. Itane bi egin leikez orain: ¿Euskaldun banakatuak zer-ikasi asko dauke Errusia-ko Agintariagandik? ¿Euskaldun batuentzat. au da Euskalerriarrentzat. zer irakatsirik badauko Peter-ek?

Lenengo itauneari erantzungo dautsagu edozein dagoala bizi dan-artean ikasbear; eta gizonak gizona ez bakarrik gorputza sendatuteko, baita arimea argituteko bere bear dabela; ta augaitik esan daikegu euskaldunak banazean, beste edozein gizonek legeez, ezabela ezer galduko Peter nor zan ezaututeaz. Langillea zan a, langilleak dira nire erritarrak; zintzoa a, zintzoak onek; berbakoia a, berbakoak onek; elizkoia zan Peter, euskaldunak onetan eztauke aren zoria gutartu-bearrik; bakar bakarrik ikasi daikegu zeinbat zaletu bear dogun Eliza egiazkoa ganako, gizon bat eliza banatu batgana ain etsigia ain isuria dakuskunean.

Euskaldunak, banan banan artuezkero, Iaunari eskerrak, gauza batzuetan gizon askoren maisu izan leikez. Orregaitiño bere, gauzak biarko ez istea ta iat-egunak obeto gordeta ta erbestetiko ekandu txarrak tei-

llatu bustiak edurra legez artutea ta beste gauzaren batzuk ondo egingo genduke euskaldunok norbaitegan-dik ikastea.

Euskaldun batuakaitik egin dogun itauneari ez-tautsagu ain gogo onez erantzungo, amaikari min egin-go dautsegulako. Antxiñako euskaldunagaitik Espai-ñiar biursari batek esan eban *berbetan laburra, egike-retan luzea* zala. Gaurko euskaldun batuakaitik gure egunetako Euskalerrria gaitik ¿esan eteleike beste onen-beste?

Gaur euskaldunak geure Erria eztzaugula bizi gara. Eunetatik larogeta amarrek eztakigu nundik noraiño elduten dan. Bidasoa-tik onanzko euskaldun geienon-tzat Euskalerrria Ebrotik Bidasoara elduten da. Bidasoa-tik aranzko euskaldunentzat barriz Bidasoa-tik Adur-era. Au ezta Euskalerrria Hasparrendik begiratu-ezpe-ro. Hasparren-aldea ezta Euskalerrria bizkaitar geienen begietan. ¿Nozarte izango gara ikuste iaburrekoak?

Geure Erria ezaututeko argia bear dogu ta argi au eztakuse umeak eskoletan, ez gazteak Institutoetan, ez mutil aziak Unibersidadeetan, ezta Seminarioetan bere. Argi au ikusteko ikastegi barriak edo beintzat barri-raztuak bear dira.

Uriak gaur erdaldunai geure izate zaarra ilteko emoten deuten dirua, osorik kendu al izan ezik, erdia gitxienez zuzendu bere geu biztuko gabezan ikastegie-tarako. Eta Ikastegiak auzoan eukiaz ezgara ase ez naikotu bear. Emen ez legegizon, ez osagilla, ez mu-sikalarientzako ikaskuntza osorik euki ezarren, auzoan ikusita, askori bear doguzanik bere etxake otuten. -

Ebro Rhin balitz. Madril Berlin-duko balitzakigu, ango ikastegietan urtearen ia iru laurenak oporregunak

izan ezik; ango legegiñak, beti barriketan, euren mendekoai barritsuak izaten irakatsiko ezpaleuskioe, ¡tira! orduan askok esan bide-daikee: «geuk geure artean liburu-gauzetan ezin iñor gizondu dogu, Gernikako zugazpean legegiñik ezta aspaldion iezarri; baiña ezta guztia utsa: auzoan daukaguz Ikastegi onak, bana banako legegiñak, seme bakarra legez maite maiterik azten gabezan iaurriak.»

Burua argi ta biotza bero daukazan eskaldunek eztau iñoz onelangorik esan.

Gaiztagiñen bat katigutegian nai urkamendian ildakoan, seme-alabarik itxi badau, onei alegin guztiaz estalduten iake guraso aren bizikerea. Euskalerrriaren bizikerea gure begietatik ain arduraz gordeten dauskueanean, bati otu leio uxkamendian ildako gaizkinen bat izan etedan. ¿Eztabe esaten beronen legeak eredugarriak direala? ¿Zegaitik, bada, gure legezizonai etxakez erakusten, erbesteko legekuntzaak irakasten iakezan ezker? ¿Eztabe esaten euskaldunen ekandu zaarrak Erri baten sendo ta zindotasuna azalduten dabela? ¿Zegaitik, bada, antxiñako Erriak zelan bizi zirean irakasten dan orduan, gure lenagoko ekanduai liburu zaarren autsetan ito eragiten iake? *Unibersidadeetan* Erromar, Greziar, Tndiar da Arabiarren berbetak, zelan edo alan, adierazoten dira. ¿Eta euskerea ezalda izkera orrek baizen zaarra, mamintsua, ugaría, zakona, apaiña ta ikasgarria?

Erromarrak gauza anditzat euren izenen ondoan *Erromarra* ezarten dabe, ez Erroma-ko uriaren zabal-tasunagaitik (badira uri zabalago ta gizatsuagoak, eta au gora-beera etxako iñori otu izen-ostean *Paristarra* ta *Londrestarra* ezarterik); ez urian Eliz-zimendua da-

goalako (Jerusalen da Elizearen lurreko iaioterria, Antiokia lenengo Aita Santua iñun baiño lenago iarri zan uria; orregaitiño eztakigu iñok beren izenari la-guntzat *Jerusalendarra* edo *Antiokiarra* erantsi dautsa-nik); zartzaroak emoten dautso Erromari beren burua-ren eriste ta goratasuna. Euskalerrria barriz Erroma baiño luzarago berotu dau eguzkiak. ¿Zer egin bear dogu ain izen ederra odolean darabilgunok? ¿Gaurko andi-kikume edo diru-iaube ibiltari askok legez, txapelaren bekoki-aldean E andi bat ipiñi? Ezkaizan txotxolotu. Izena baizen goian izatea euki ezin badogu, ez iñori esan antxiñako euskaldunen ondorengoak gareala.

Bizkortu nai badogu, lenak erakutsi beigu etorki-zuna: iñok eztau, sagarrondo bat sendauteko, landara crdi-usteldu bat Jengoarí eztitu edo mentauten. Geure lantegi, ikastegi ta iolastegiak eztitu bear badira, goa-zan mentubilla ez urren dagozan tokira, onenak dago-zanera baiño.

Auxe da Peter Andiagandik ikasi daikegun gauza-rik andienetariko bat. Errikoia zan, bere errikoitasuna miiñean baiño egikeretan luzarago bizi izan iakon; da Errusia zaarra barriraztufeko urruneko erbesteetara ioan zan: Ingalaterra-ra, Holanda-ra, Alemania-ra ta Fran-tziara. Edozein lan da ikaskuntzatan maisu errimeak or da emen batu ta sari ederrakaz etxaldera erakarri ebazan. Eta 1700-garren urteko Zemendiaren 30 an Narva-ko gudapenean Suezia batek bost milla oiñezko la iru milla zaldizko gudarigaz, Errege Buru zala, Pe-ter Andia-ren berrogera amar milla gudari garaitu ebe-zan: euretatik amabi milla ill da beste gizon guztiak katigu, eun da berrogeta amar sutodi edo kañoegaz, atxituta. Bederatzi urte geroago Peter-ek Carlos-i Pul-

tava-ko gudapenean bederatzi milla gizon il da beste asko atxitu eutsazan.

Auxe izan zan Peter-en errikoitasun egiazkoaren arazoa: ogeta amar bat urteren barruan Errusia gauza askotan, batez bere ikaskuntza ta lanetan, barriraztutea. Agintaulkian iarri zanean, beren Errian ezegoan gudakuntzarik, ezegoan gudontzirik ezegoan dirurik (bada sal-erosiak ordaiñez edo trukean egiten zirean), ezegoan iakitunik, musikea deabruaren gauzatzat euken beren erritarrak, ezekian inok burdiñea landuten, ez mearik etekinduten; irakurten gitxi; neurri, pisu ta legeetan naste andia egoan; eskeko asko ta langille gitxi, batez beste egozan... Esan daiguzan beren berbak; *aberetaldea gizataldetu dot.*

On askoren artean gaiztakeri batzuk bere egin ebazan. Ezta mirari. Makurraldi bagako gizonik, zetaka bagako bizitzarik eztago. Beren bizikerea irakurri daienak ezpeioe gaizbidean iarraitu, onbideetan baiño.

Urren agertuko doguzan gertaeretan barru barrutik ikusiko dabe gure irakurlak Peter-en arimea. Stoehlinek Errusia-ko andiki askoren aotik, Agintaria bera ezautu ebenetik, batu ebazan gertaera onek. Biurkunde au geure Erriaren onerako ta irakurten atsegiñerako izan beite.

I

Alejo Michaelovitz Agintariaren bigarren eskontzearen zertzelada berarizkoak

Alejo Michaelovitz Agintariak eskudun edo ministro-arteko bategaz barruko tasun andia eukan; Artemin Matveof zan au, erbesteko arazoen eskuduna.

Beronen birloba bat Andreuna Roumenzoff, arrezkero-ko egunetan, Iauregi-ko lenengo *onorezko damea* ta Catalina II-garrenaren etxanderea ta jeneral baten ama izan zan.

Alejo Agintaria lenengo emaztearen alargundu zanean (Miloslausky-renekoa izan zan emazte au) sarri ioaten zan Artemin ministroaren etxera, lenagoko beste agintari guztien ekandua etenda, bada onek etzirean *Iñoren* etxetara ioaten; ta askotan apalduten gelditu bere egiten zan.

Arratsalde baten inguruko barik bertara ioanda, maia estalki ta guzti apaletarako gertuta ikusirik, lau esan eutsan: «Zure aparta iezarri naiteala esaten dagoala dirudi. Ez, bada, txartzat artu neure gogoaren esana nik egitea; baiña baldintasun bat gaz izango da: nigaitik eztakiola apartari ezer aldatu ez geitu; ta mai-inguruan, iezarri oi zareen guztiok, iezarriko zareela gaur bere».

Agintaria iezarri zanezkoxe agertu zirean Matveof-en emaztea, semea ta neskatilla bat. Alejo-k esanda iezarri zirean: neskatillea beren aurrez aur. Adi ta begira gogoz egon iakon, eta ordurarte ikusi eteban gomuta ezebala. «Nik uste neban, esan eutsen, ume bat baiño etzeukela senar-emazteok: semea; baiña alabea daukazuela bere badakust. ¿Zelan da nik gaur-arte ez ikusi izatea?

—Zuzen dago berorren Anditasuna, erantzun eutsan Matveof-ek, ume bat baiño eztaukagu. Neskatilla au neure aide ta adiskide Kyrilla Nariehkina-ren alabea da. Neure emazteak berau urian nunbait ipiñi ta, launak nai izanda, bizibide erazko bat beronentzat bi-llatuteko ardurea dauko.

—Bearleku ona da ori» erantzun eban Agintariak; eta onetan amaitu zan autu au.

Apalondoan, Matveof-en etxadia egabatanuta, Agintaria ta Mataeof-ek, mai-inguruan geratuta, Narichkina neskatillearen autua barriro atara eben.

((Neskatilla au, esan eban Agintariak, itxura galantekoa da ta burutsua dirudi. Ezkonduteko gazteegia bere ezta. Ondo egingo dozu beraz ezkontza egoki bat jaristen badautsazu.

—Egia, erantzun eban Matveof-ek: sentzun andikoa da, guztizko zuurra ta biotz ederduna. Nire emazte ta etxadiak maite maite dabe ta nik alabea bainean begiratu daroatsot. Izan leike orregaitiño senar egoki bat orren arin ezin aurkitutea; bada mendu on askoren iaubea izanarren, aberats izatetik urrun dago; ta nire al izatea ezta gura izatea baizen andia, ezkontsari on bat berari emoteko.

—Norbait aurkitu bear da, erantzun eban Alejo-k, dirutsua, neskatilleagana diru-billa etorriko eztana ta beronen mendu onakaz asetekoa.

—Auxe da neuk gura neukeana; baiña bizi garean egunetan ¿nun aurkitu leikez orretariko senargei. diruari baiño mendu onai obeto begiratuten dautsenak?

—¿Eta zegaitik ez? Geure egunetan bere orretariko gizonak ikusi oi dira, bai. Zuk gogoratu eizu autu au, eraz iatortzunean; nik bere beste ainbeste egingo dot. Guk beragaitik zoriontsua izateko egin daikeguzan alegiñen duin bada».

Matveof-ek eskerrak emon eutsazan Agintariari beronen gurari onagaitik.

Arik egun batzuetara Alejo Matveof-enera osteratuta, agiriko arazoan ganean berbetan ordu bi igarota,

iagi zan urteteko ustean, da «¡Alegia! esan eban bigarrenez iezarrita, ¿eztozu aaztu izango nik urren egon nintzanean esan neutsuna? ¿Natalia Kyrillounari senar egoki bat biribilduteko arazoa aaztu iatzu?

—Eztago bildurrik. ¿Aaztu ostera, iauna? Baiña oraindiño lengo bestean gagoz; da bildur naz, ibili ta ibilli egiñarren, geuk nai dogun eduko bat aurkituko etedogun. Mutil gazterik asko etorten dira nire ardurapeko neskatilla zoragarri au ikustera; baiña ezkontzakizunik eztoz susmau.

—Ainbat obeto. Orrek barik geuk urrean egingo dogu. Neure kontura gara tz au artuta daukadana gomuta izango dozu: zu baiño zoritsuagoa izan naz onetan. Zaldun bat aurkitu dot nik senartzat egokia izango dabena; gizon guztiz onoragarria da, neure ezaun andia, merezimen-bakoa ezta, eztauko emazteagandiko diru-bearrik; maite dau berak zure iaurripekoea ta beragaz ezkondu ta zoritsu egiteko gogotan dago.

Eztautso berak neskatillari barrukotasunik erakutsi, baiña neskatillak badazau; eta eritxia eskatuko balitzakio, nik uste dot eleukeala ezetz erantzungo.

—Ori olan izango da noski ta esanda daukatsat berorren Anditasunari zein gogo andia daukagun era ori etorri daitean; ta atsegiñez iakingo neuke zein izango dan neskatilla onen etorkizuna. ¿Baiña laketuko daust berorren Anditasunak itandutea nor dan berorrek esan nai daben gizon ori?

—Esan dautsut gizon berbakoea dala ta emakuma bat zoritsu egitekoa: au neure kontura. Baiña ezer geiago esan-orduko, noraezekoea da iakitea Natalia Kyrillouna ezkontuteko gerturik etedagoan.

—Gauza orren ganean eztoz uste ezbairik dagoanik, batez bere iakin daianean berorren Anditasunak izentaurikoa dala. Orregaitiño, beren baiezkoa emon-orduko, senargei ori nor dan iakin nai izango dau; eta au nire ustez gauzeak dakarrena da.

—Tira ba, tira ba, erantzun eban Alejo Agintariak, esaiozu Natalia-ri neu nazala ori, beragaz ezkontuteko gertu nagoala».

Tximista batek iota legez, au entzunda lur io eban Matveof-ek eta Alejo-ren oiñetan auzpaztu zan, «Iaungoikoaren laztanarren eskatuten dausat berorren Anditasunari onelango buruLiderik eztaiala artu, edo beintzat beste nor edo nor ipiñi daiala bitartekotzat. Ondo daki berorren Anditasunak *Kortean* etxadi agirienetan berein arerio daukadazala; onek ezin ikusi dabela berorrek niri daustan begi ona. ¿Zenbateraiño elitzake euren niganako bekaitz au geituko, berorren Anditasunak, euren etxadiak aintzat artu ez da, geurtzat daukagun nestakilla bat ezkontidetzat artuko baleu? Asko gitxiagogaz neure lepora jausiko litzake euren guztien espa ta gorrotoa. Edozeiñek uste izango leuke neuk atonduriko arazoa izan dala au, berorren ontasuna ganezkatu dodala, berorren odola ta neurea zelanbait alkartuta berorren Anditasunagaz barrukotasun andiagoa eukitearren.

—Alperreko berbak dira orrek, erantzun eban Agintariak, neure kontura zuri buruko miñik ez etortea. Nire burubidea artuta dago: eztoz alderatuko.

—izan bei, berorren Anditasunak nai daben-ezkero; eta zeruak goratu daizala berorren asmoak. Au olan dala, mesede bat eskatuko neuskio, bai Natalia-ri ta bai neroni daustan legeagaitik: Erriko ekanduak gorde barik eztaizala berorren gurariak bete; ta onetara-

ko ezkontzaroan dagozan neskatilla etxadi andietako guztiak batu daizala *Kortean*. Natalia nire aidea bes-teen artean egongo da ta berorrek ekanduz autu daike emaztea, ondo baderitxo. Ganera ondo litzake berorren asmo au geu bion artean orduxerarte isilik egotea ta neskatilleak berak batzar-eguna ta batzarra bera el-duarte ez ezer iakitea».

Alejo-k onartu eban beren eskudunaren eritxia ta alantxe izango zala eskiñi eutsan. Aste batzuk geroago beren Iauregian eskudunai ta elizgizonik aurrenai era-kutsi eutsen ezkontuteko erabagia ta agindu eutsen batu eragin eiola egun baten ezkontadiñera elduriko andiki-alaba guztiai, euren artetik emaztegeia berak aututeko.

Moscow-ko Urian 1670-ko iraillean egin zan neskatilla-batzar au. Irurogei neskatilla (inguru orixe) andiki ta ederrak batu zirean, euren artean Matveof-en aide Natalia. Guztiak izan zirean ondo artuak, guztiai aурmen ona egin eutsen Alejo-k; eta beste guztien da-muaz Natalia Kyrillouna Narichkina izan zan Agin-laulkirako autu eban laguna.

II

Peter andiaren iaiozearen ganean

Alejo Michaelowitch-en agintaldi «zoritsuan elizgi-zon bi egozan Moscow-n burutsuak eta iakituri andikoak, batez bere *astrolojian*. Euretatik bat, Simeon Polotsky. *Eliz-bizibiderako Deia* deritxon liburu baten azaldaria. Feodor Alexiewitch lenendari gaztearen iau-rria izan zan; bestea, Dimitri Rostowsky, liburu asko-ren azaldaria izan zan, onen artean ezaunena *Elizgu-rasoen bizikerak* zala.

Gizon iakintsu bi onek gabeen gabeen izarren ibilpidea zelataten eben, eta alan Errusia ta beste Erri askoren ganeko igarpenak egiten ebezan.

Alejo agintaria 1671-garren Agorrillaren 18-an ezkondu zan Natalia Kyrillouna-gaz, da eurakandik Peter, gero andia izango zana, iaio zan. Ezkonteguneko gabeen izar argi bat agertu zan Marte-ren ondo ondoan eta au ezaugarri ontzat artu eben iakitun biak; eta, gau atan erneriko seiñagan izar onek artekotasun adu onekoa eukiko ebala iragarrita, Peter izentau bear zala erabagi eben.

Urrengo egunean Polotsky-k, agintariari itxaroten egonda, zoriona berari ta seiñ erne-barriari opatakoan, Maiatzaren 30 garren egunean au iaio zala Iragarri eutsan. ccLenendari au zeure oiñordekoa izango da ta goraldi andia iaritxiko dau: beren entzutea geituz ioango da. Garaitza izugarriak arerioen ganean lortuko dauz; euretatik asko beren ezpata-azpian iausiko dira. Auzo guztiak menderatuko dauz, eta beren egitade andiak aurretiko guztien ganeratuko dira. Alberrietan da urrunekoetan ibiliko da; baiña trosko asko izango dauz beren erritar-artean. Astrapalada ta matxiñada askori burua emon bear izango dautse, ta beren agintaldian lan andiak egingo dira itxasoz da legorrez.

Nekezale apal-sendoen artean ikusia izango da, erlijioia txau txau euki ta gauza goralditsu asko egingo dauz, izarrak ziur ezautarazoten dauskuenez. Neuk ikusi dot berorren anditasunari esan dautsadan guztia, ispillu baten legez: da iratsita barri guzti onek berorri agertuteko zoria daukat».

Ta obeto siniztarazoteko, Polotsky-k paper au, beren izena beeko aldean ezarrita, agintariari emon eutsan.

Alejok paper au artu ta irakurritakoan, beren alboko bati agindu eutsan guztien tzako irakurri eiala. Orduan ioan zan emazteagana ta esan eutsazan Polotsky-ren iragarri guztiak. Gero oni beren emaztea ikusi eraginda, Polotsky-k len esaniko guztia Natalia-ri birresanda, beste berba onek generatu ebazan: «Iru egunetan sein-miñ andiak izango dozuz, andrea, seiña iaio-orduko; baiña bai berorren anditasuna ta bai sein-barría Jaungoikoaren altsutasunez gordeak izango dira».

Au esanda Polotsky-k alde egin eban iauregitik. Eta ikusirik osterakoan lau gizon erraikoazala, itandu eutsen zegaitik etorkozan iarraika. Erantzun eutsen bera inguratu ta beren esanak gordeteko agindua eukela. Laurak egon ztrean Polotsky-ren mendean Zemendi-ko lenengo egunerarte. Egun onetan Agintariak beren aurrera ioan eragin eutsan da *teologia-ko* gauzen ganean berba egin eieben.

Polotsky-k esan eutsan Alejori, Jaungoikoak alan nai izanda izarren ibilpideak argi argi agertuten ebezala oraingo ta geroko gertaerak. Agintariak, bazkari-lan beragaz eukita, noznai iauregira ioateko eskubidea emon eutsan, da emazteari bere autu onek entzun eragin eutsazan.

Polotsky-k egun atatik aurrerantzean ezaban iñor ikusi atzetik berari iarraika. Urrengo urteko Maiatzaren 28-an Iauregira ioan zanean. Natalia sein-miñakaz egoan. Sartu zan Alejo-ren gelan, da aurkitu eban au guztiz estu keixu ta arbin. Polotsky-k, iauregian pillotu zan gizataldeari urten eraginda gero, Agintariari esan

eutsan euki eiala iñoiz baiño koipetasun geiago Iaun-goikoagan, da bere emaztearen miñak iru edo lau egun iraungo ebela.

Elizgizon au arrenka edo erreguz egoan egun aretan etentasun baga. Guztiz makaldu zan Natalia ta Elizakoak eragin eutsezan. Polotsky-k Agintaria ta ingurukoak azkortuteko al eban guztia egin eban. «Ziur nago, esan eutsen, Natalia ezta orain ilgo; bost ordu barru seme bat argitara emongo dau».

Lau ordu igarota Polotsky belaunikatu zan da Iaun-goikoari eskatu eutsan, besteak entzuteko gisan, ordu bete igaro barik ezeiola Natalia-ri itxi arinduten. «¿Zer eskari da ori?, esan eutsan latz latz Alejok: «nire emaztea adore baga ta ilten dago».

—Agintaria, erantzun eutsan Polotsky-k, lenengo ordu-erdian seiña iaio badai, berrogeta amargarren urtean ilgo da; baiña ordu bete-garrenean badator, irurogeta amar urterarte bizi izango da».

Autu onen bitartean Agintari-andrea Peter Alexiewitsch-en oera eroan eben. Agintariari ots egin eutsen oe-ondora; ta gelatik barrero urten ebanean, elizgizon iakitunari esan eutsan seme bat iaio iakola ta eskerrak emoten eutsazala zeruetara zuzendu eban arrenagaitik.

Gertaera au 1672-garren Maiatzaren 30-an iazo zan. Seiña Peter-izenagaz Polotsky-k bateatu eban, da beren opor-eguna Bagillaren 29-an, Apostoluen buruari zuzendurikoan, gordeten da.

III

*Feter-ek, makalik egoala, eriotzapean egozan gaizkin
batzuk ezebazan azkatu nai izan*

Peter Agintaria, ogeta bost urtekoa zala, sukar andi bategaz eriotzako karelean edo ill-agiñik egon zan. Gitxi zirean osatuko zala uste ebenak. Zurkatxa edozein arpegitan agiri zan. Elizetan eten бага arrenka ta doe-eske erautsen gizataldeak, Agintariaren osasunagaitik.

Gauzak onan egozala, gaizkin-epaillea, ekandu zaarrez, agertu iakon Peter-i itandutera ea ezetezan gauza egokia izango eriotzapetik ataratea bederatzi gaizkin, lapurreri ta ilgintzetan atxitu izan zireanak, eurak euren eskariz zeruetatik Peter-i berari osasuna iaristeko.

Agintari makalduak epaikari oe-ondora urreratuteko agindu eutsan, da bederatzi gaizkiñen izen da obenak zoli irakurri eizala. Epailleak au egindakoan, Gorenak ozta ozta esan eutsan:

((¿Uste dozu, billau onek iarein da legeen zuzentasuna okertuta, gauza ona egingo dodala ta ordaiñez zeruak bizia luzatuko daustela? ¿Uste dozu Iaungoikoa, erailla ta ondatzailla gorrotagarri batzun eskariai, beren iaubetasuna aaztu daben gaizkiñen arrenai, adi ta gogo onez egongo dala? Ez. Ezeizu beraz epetu orrei emoniko epaia betetea biarko egunetik gerora. Ezek iaditxi al balekit zerutik bear dodan osasuna, uste dot zuzentasun onetxek eo-ingo daustala.»

Gorenaren gogoia betea izan zan; osasuna egunik egunera geituaz etorri iakon, da luzapen andi бага eskuratu ta sendatu zan.

SIMON ARTEZA

I

¿Nor geu baiño pozago, onen iaioterrria, iaioteguna fa iaiotzea bera adierazoteko? Gizon artezak, elefanteak legez, gitxituaz doaz: eta bildur izatekoa da urte asko igaro-orduko banakaren bat baiño ez bizirik geratutea. Bizi direan artean eregau ta palagau daiguzan, ilda gero ez egiñaren damutan egon ezkaizan.

Simon, gure belarrietan guzurra ostatuz egon ezpada, gazterik geratu zan guraso бага ta anaetxu beren guraso-orde. Izeko baten magalpean men men, apal da zintzo azi zan. Asko izaten dira menak, apalak, zintzoak, esanekoak, isillak... berba baten onak, gaiztoak ezin izan direalako. Istingetako ura beti legun, beti ezti, beti geldi, beti baketsu ikusteaz ¿nor arrituko da, ez kiskurtu ez azkortu ez arrotu ez iagi eziña dala iakiñezkero?

Itxasoko uren bare, bake ta artea: auxe da benetan aintzat artu bear dana.

Gure Simon izan balitz beste asko lango epela, geldoa gitxitarakoa, etzan iñor arrituko beronen mentasunaz; bizia zan, odol-beroa, azkorra, kirioduna, irudi ezarren. Amasei urte ondo bete bagarik, zurtuta isten ebazan auzoetako bolariak, iai-arratsaldetan gerria bigunduta, bolea iaurtita, lerro bateko txirloai besteak iota anda-

luz dantzarien kriskitiñak lango otsak eragiten eutsezanean. Simon bolaka ikustearren lau ta bost bidar baiño sarriago (geuk dakigu) iagiten zirean iai bakotxean iokoko maitik agura muslariak.

Auzo-erriak kezka barik urte gitxitan bizi izaten dira, ta onelango kezketan alde bateko ta bestekoak, berbaz ezarren, beti gogoratuten dabez bakotxak daukazan gizon errimeenak. Simon, bolari ta akularirik gogoratu-ezkero, edozein burutan lenengo agertuten zan.

Dantzarako beti izan zan atzerea ta nakarra. Neska-dantzarik urtean baiño etzan izaten erri atan: Doniane-egunean; bestela, neskatiñak erakutsita baiño ezpazan bere, ikasiko eban bai dantzan egiten. Doniane-goizean, edo aurrekurako edo atzeskurako. amar urtean etentasun baga atarau eben. Eta esan daigun egia: bigarren urtera-ezkero, buruak emoten eutsan dantzarako atara bear ebena; ta, dantza-zalea izan ezarren, ezaban orreigaitiño burua ostuten, txanboliñek aurrekurako soiñua asten ebanean. Erri atan iñun eztagoan oitura au egon balitz, mutillik itxusienak aurreku-atzeskuetarako autuak izatea, saguzaarrak egun sentían legez iges egingo eban Simonek; baiña, au irakurrita matraillea sutan euki badai bere, egia esan daigun: mutil ederra zan, ikusgarria ta astean bein gitxienez bizargiñaren aotik entzuten eban, kokoteko ederra artu ta gero «i lango mutillik etxagok, lebita-azpian bere)?».

¿Nok siñiztuko leuke? Izekoak ezkontzea egin ezpaleutso, eguzkia legez eder iaio, eder azi ta eder zaavtuko zan, bakarrik beti izateko. Erriko etxagun tzatik zabalenean bastartsuenean senartu eban izekoak.

Lenagoko ezteguetan, senar emazteak erritik urte-terik bere ezeben gogotan artuten; gaurkoetan barriz, baserri danik oskolena izanarren, ezkongei-egunetan aurretasun andiaz asten dira gazteak urrunetara begira. Euren lenengo egaztadea sarri izaten da sakeleko urri-ugaritasunaren ezaugarri ziuorra. Bilbo, Donostia, Gazteiz, Iruña... gozogintxuak baiño ez izan ezarren elduten dira onagiño ezkonbarriak. Barcelona-ra ta Lourdes-ako bidea artu ezkerro, iaiegunetan kapelea erabilliko dau senarrak eta lapikokoaren ganean iaki bat edo beç4te, astean birritan gitxienez, gertuko dautsaz amagiñarrebak. Paris, Erroma, Londres... onetara doazanen sakelari etxako erraz erraz ondorik topako.

Simon da emaztea Gazteiz-en zear Barcelona-ra eldu zirean: Simon (gogoratu baiño egin ezarren, erruki dogu) kapela ta guzti, amagiñarrebak Bilbotik eroaniko kapelea buruan ebalá.

Gure irakurlak oraiñarte gure lumatik izan ezik eztabe ezer iakin, da onezkero Simon-en aotik zerbait iakiteko gogotan egongo dira.

Ta pozarren agertuko gendukez Simonek Andre-sari esaniko herbaren batzuk; baiña ezta sail erraza: ta esango dogu zegaitik. Beste izate bizidun guztietan erneak ixilkorrak izaten dira: egaztiak badira, eztira kantariak; abereak badira, orroerik, esatekorik beintzat, eztakie egiten... Baiña gizakumeen artean barri-tsuena, kantariena, deadartiena ¿nok eztaki nor dan?

Durangotik gora Urkiolan zear Gazteiz-ako bidean Simon asi zan esaten Lekeitio-ondoko baserritar batek eukazala indarketarako idirik onenak, azur andikoak, larrantz ederrekoak, diru asko iaubeari emonak. Eta Andresak, idiak indarketa bat bere irabazten itxi barik,

ekin eutsan ortako ta emendiko barri ta albistak nas-pillatuten. Auzoko Iñasik beren *arreo* ta ezkontsariari au ta ori ta beste atxakia, onako ta orrako ta arako zera-kaitik, ipiñi eutsazala; ta Iñasi bera, buru-eritxia iza-narren, etzala ain galanta. «Neuk dakilt;» ziñoan An-clesrak «Iñasik txutxu egin dau neu ezkondu nazala-ko; atan bere eugaz egin nazalako; baiña ortxe... bai nai bere... Beste gauza bait. Ikusi neban nik sakris-tauak zelango arpegi txerazkoa ipiñi euskun: guztia badakit zegaitik zan, ezteguna geuk eroanarren salo-bretzarra. Iñasi-ren txandea eldu daitenean, iñoz eldu badai, daroela maipurura. Neugaitik txakurrenak esan-da gero j̄jaren arpegia, aren irribarreakü Beti izan da ori guzurti bat-eta.

¿Eztakit, Simon, nor dan Gernikara Madrildik edo orretatik orantsu etorririko Gontzalez, *koipe lustre* esanen deutsena? Bilbo-ko albistari batera eskutitzen bat bialdu eidau ta *Cupido* igaitik eidiño. ¿Zer da *Cupido*? Oba leuke ak gosea len-bai-len il, goseak bera il or-duko ...»

Ta beste milla barriketa eginda eldu zirean antxi-ñako Gazte iz, gaurko Vitoria-ra.

II

Araba-ko erriburura eldutakoan, zaltzaiñak (ezaun zan lendik alkar adituta egozana) «ortitek gora zoaze artez, esan eutsen ezkonbarriai; aurrera beti, arik eta an ormakontran kukulu-muxu maatsa edo zerbait sal-tzen dagoan atsoagana elduarte; gero, eskumatara doan bideari itxita, zuek gora artuko dozue ta orma andi batzuk aurkituko dozuez, baserriko eliza bi alkarren

oanean bailegozan: *Katedrala* da eliza bikotx ori ta aurrez aur daukan etxe soldaudentzat egiña dirudiena, axe da zuek gura dozuen *Seminarioa*».

Senar-emazteak esker andiak eta eskupekotxu bat zaltzaiñari emonda, ostatura beronegaz pardela bialduta, Urbina-ko Ataria deritxon sarreran apurtxu baten gelditu zirean. Andresak, buruan elizoiala ipiñita, senarrari lepokada batzuk emon eutsazan, autsa kenduteko atxakiaz. Nire ustez eurak ikusten egozanai adierazo nai izan eutsen lepokadaz, berbaz beren barruan esaten egoana: ccGizonak: eztakutsue gizon baba-lora galant au, Bitoria guztian bardiñik eztaukan gizato urlebete-sagarra lango azal-eder barru-zuri au? Senarra dot».

Izentau iaken bidean zear eldu zirean Seminariora, Atariko txiliñari ots eragin, atezain txota dd'-oredunari arratsalde onak eta Erretore iaunarentzat eskutitz bat erderaz emonaz, burrura sartu zan Andresa ta Andresa-ren atzetik Simon, kapelea eskuetan ebalá. Atezaiñak *por aquí* esanda aulkigintza-irudiko gizategi baten sartu eragin eutsen. Zutunik, isillik eta burutsik egon zan Simon, estul egiteko bere bildur edo lotsa zala. Andresa etzan iarri, baiña lau edo bost bidar neurtu ebazan begiakaz Done Prudenziok eskuan daukan trápala edo makulua, Done Iñaziok bular-kontran daukan liburu edegia ta surik iñoz euki eztaben *estufea*.

Ordu-lauren laburra, euren ustez ordu-erdi luzea, igaro iaken onetan. Simon aspertuta, zelanbait arratsaldea igarotearren, ormeari eutsela egozan ii erdi-balzezko aulkiak zeinbat zirean iakiten asi zan, da irurogeta zazpi edo zortzigarrena ezpanetik dingilizka eukala, agertu iaken, ateari ots andi bat eraginda, Pe-

drotxu, Andresaren neba *teologoa*. Onek, arrebeari bi deko iazoyerak osorik esaten itxi barik, esan eutsen Erretore iauna arazopean egoala, ezin iatsi izan zala ^a baimena emon ebala egun atan illuntzerarte ta urrengo egunean katedraleko meza nagosia amaituta gaberarte lagunduteko. Simon-ek *berori* esan eutsan koiñatuari, abade iantzita ekusan-da; eskerrak, nire ustez, gizategi atako illuntasunari; bestela soiñeko *balandrán* ukondo urratua, botoi-inguruak txaplataz beterik eta sakristauen sotanak legez labur da koipez beterik ikusi baleutso, iketan baiño bere lauago berba egingo eutsan.

Pedrotxuk, ots baten balandranaren botoiak azkatura, beste ots bitan soiñeko nasai astun iñoz garbitu bagea aulki-ganean itxita, *transeamus in Bethleem* esan eban, sakeletik txapela atara eban-arte. Simon, arri ta zur egiñik gelditu zan, beren koiñatu eliz-gizontxua begi-itxi-edegi baten kale-mutil egin zanean.

Pedrotxu-ren atzetik Andresa ta Simon kaleratu zirean, da ostaturako bidean zear asi bere bai: Andresa alde guztietara begira 'ta barriketan, Pedrotxu bere barriketan da ezkon-barriai begira: Simon barriz isillik, neba-arreben barriketak entzuten, da iru kana aurreragoko bidarriak praille sartu-barriak legez, ikusten. Ia oinkadarik aiña bidar erantzi eban Simon-ek kapelea, katedralera ioazan kanonigoai. Apezpikuaren Iauregitik urteniko elizgizonai ta (esan barik ezin nagoke) *aguazil* bati bere bai. Au ikusirik emon eutsan Pedrotxuk barreari ¿nok isildu a? Andresak barra nundik etorren iakin ebanean, esan eban: «Asko daki onek: kapeleak, barria bere bada-ta, min emoten dau tsak esaten izan daust egun guztian, da kapelea eskuetan erabiltearren, pozik dago au nori erantzi daukanean.

—Pozik nago beintzat. ¿Zer deritxo Pedrotxuk? ¡Iñoz kapelarik iantzi ez, da noraezekoa dala kapela ta guzti ibiltea! ¡Ai geure erriko txapel nasai, praka zabal, abarka andiak! Erdi-ianean ibilli bear izango dot egun onetan. Estu daukat buruko kopalet au, estu txamarra gorantz da kaltzak: garrikorik soiñeratuten itxi gura ez... Bartzelonan, erri ederra dala diñoē baiña, larri ibilli bear dot, etxerako egunari luze deritxodala.

—¡Esan bere egitea! Ezteusk Amak entzun.

—Amari ezin esan ba, aori dago ba. Oba egingo dogu guk elizak ikusten asi: arteetan bere, burua eukiko dot min barik, eta zure buruko oial ori orduantxe egongo da egoki».

Berba onek entzueran, Pedrotxuk beste bat bailitzan begiratu eutsan koiñatuari arpegira. Andresak barriz, nebearen ustea igarrita, irri-barrezka adierazo: «¿nogaz uste euan, txotxo, ezkondu nazala?»

Eliza bi edo iru ikusita ostatura eldu zirean: pozik gizonaek; andrazkoa, geiago ikusi nairik. Pedrotxu, eldu zaneke, txaloak iota zer euken iakindakoan, angulak, zerra edo *txuleta* bi ta arrautzopilla, urdail biko gizona balitz legez, iaten asi zan. ¡Nok esan ordu bi ta erdi lenago indiababak ialtjen egon zanik!

Simon soletutsik eta burutsik eta maukutsik ondo pozik ebillen ostatuko iatokian, ormetan dingilizka egozan oillagor, erbi ta eper *pintauak* ikusten. Andresa bitartean pardela aratuten egoan. Abadekia bete egin zanean, gautu arte dendak ikusten kalerik kale ibilli zirean irurak.

III

Erderazko esakeraak oso osorik euskeratutea aizu edo zillegi balitz, Simon da Andresa etxetik ureeran erdi bi zireala esango neuke; bada senarrak emazteagaitik eta bardin emazteak senarragaitik ceneure erdia» esan daroe. Erdi bi onek zeinbat etxaldetik urrunago, ainbat banaago edo bardiñezago zirean. Zadorra bazterreko urian, Gazteiz-en, Andresak Simonegaitik ((neure iru laurenak». Barcelona-^ik iaurLueran, Simona erdi izatetik ia oso izatera elduta egoan, Andres erdi izatetik ia ezerezera. Ezkondu zirean egunean senar-emazteak ageu» zirean; lau egun barru «neu», Andresaren miiñean bein'^at. Aldakuntza onen barri emon daigun.

Simon ibilliago ta ostuago egiten zan, Andresa ibilliago ta urtenago; senarra apal apal ebillen kaleetan, emaztea arro arro; gizonak ikusi nai ebana ikusteko begi-erdi naikoa eban; emakumeak gitxi ebazan lau begi, beren ikusguraria aseteko. Andresaren miiñaren berbak entzun, begien begirakunak ikusi ta buru ta besoen zirkiñak adituta, Simon isillik eta geldirik ikusitakoan, emaztearen gorputza arima bikoa ta senarrarena arima bakoa zireala batek baiño geiagok esango eben. Zaragozatik arantz burdinbidean ioazala, iaioterriko atso-agura, andra-gizon da neska-mutillen izenak burpildun zorrozteria legez erabillita zer esan ezeukanean, ikusten ebezan baserri-oskol guztiakaitik egiten eutsazan senarrari bost edo sei itaune, edu onetakoak: «Ze izen etedau baserri orrek? —Benetakoa eteda agiri daben elizea. —Bolatokirik etedago berton? —Laietan lurrak landuten etedabez? —Abelgorririk etedauke?»

Simon-ek lenengo itauneari labur erantzun eutsan: ((Eztakit, Andresa». Bigarrenari ara bere laburrago: «eztakit nik». Irugarrenari berba erdikin bategaz: a...taañik». Laugarrenari berba barik, sorbalda goratura. Boskarrenari ta urrengo guztiai ezeutsen iaramonik egin.

Noz edo nozko baten eldu zirean Barcelona-ko gelunera ta gelunetik ostatura. Eldu, soiñekoak garbitu, arpegi ta eskuak ikuzi, kopau bat artu a kalera urten, ordu-erdien barruan egin eben.

Baserriko agurak musean iñoz ikusi dabezanak badakie txitean pitean kartai begira egoten direala. Musa kenduta gero, *andia enbido* esateko, lau kartak ikusten dabez; *txikia paso* esateko bere bai, baita parrerik dauken ala eztauken esateko bere; pareetara ioteko nai ez ioteko bere ikusi, ta bardin iokoa dauken ala eztauken esateko. Andresak onelantxe erabillen bat, baiña ez iokoan egitekoa, eskutitza baiño: eskutik sakelera, sakeletik eskura.

Ona emen eskutitz onen azaleko berbak:

Sr. Don Antonio Maria de Zuzunegui

Sochantre de la Catedral

Calle de Roger de Lauria, 15

Barcelona».

Osta/tutik urten-orduko, soiñekoak garbiketean ekio-la, Andresak senarraren orduari edo erloia pardelaren barruan gilzpean gorde eban, Simon-ek ezer eze-kiala.

Kalerik kale Roger de Lauriaren izenekoaren billa ebilzala, Andresak esan eutsan senarran: ((Simon: ola-ko gizon andia bada, Obispoaren urrengo iru edo lau-

garren gizona bada, ataritik barrura sartuten eztau iLxiko.

—Guk eroan daigun da»... erantzun eban Simonek.

Eldu zirean Zunzunegi iauna bizi zan etxera ta Andresak, mailletan gora laugarren bizitzara ioazala, iru edo lau bidar esan eban:

«¿Obispoaren urrengo laugarren gizona emen? Au ezta izango». Simon isillik, igonago ta lotsorrago, ioan. Atea edegita saskel-izena ondo irabazita eukan emakuma batek erdi-gaztelarrez erdi-katalanez ostatua beteta egoala esan eutsen. (cEsan doít; nik, Simon:», Andresak aopean esan eban. Eta eskutitzaren estalkia irakurri ebanean, etxeko andra edo otseiñak (andrea bekoki itzalean, soñekoetan otseiña ta otsein merkea zirudian ateko emakumeak) Zunzunegi iauna etxean egoala esanda, gizategi txiki iateko toki egin batera eroan ebazan.

Andia, gorputzez beintzat, baltzerana, tabako-ketan loak artu ta itzartuten zan gizon bat, sotanearen botoi bakar bat bere lotu bagarik, agertu iaken senar-emazte konkortuai. Katalanez berbetan asi iaken Zunzunegi; ta Simonek, Andresa barrez berba egin eziñik egoalako, «guk eztakigu prantzes» erantzun eutsan.

—¿Bizkaitarrak alzerate? ¿Ta kapela *moda* berrikoa?

—Ezkondu egin gara ta... Geure erriko abadeak *harta* auxe emon deusku... Baita gorantziak bere emon ebazan ¿ezta alan, Simon? da aspaldion eztabela berori ikusi ta alkarregaz ikasirikoak direala, edo ezaunak edo... irakurten dago berori ta ortxe ikusiko dau obeto.

—¿Zuk eztiozu ezer, erri?» itandu eutsan Zunzunegik, eskutitza irakurrita, Simon-i.

—Nik-i... Nik-i...

—Gizona, zerbait dezu zuk gogoan. Esan zazu bildur gabe,

—Ara ba, esateko diño ta ara ba: berori lango gizon andi bat onelango etxe txiki baten bizi izatea: auxe daukat gogoan.

—¿Ni nor naizela uste dezute?

—Karteak azalean diño, jauna» erantzun eban Andresak, Berorrek nire ustez Obispo izateko eztau asko bear.

—Izatea, besterik ez. ¿*Catedral* diolako uste dezute ori? ¿Neregandik Obispo izatera baldakizute zeinbat bide dagoan? Emendikan asita gure Errira txinkorrika edo txingoka ta atzerunzka baiño geiago. Badakizute Donostia-ko *serenoak* nolako orroiak egiten dituzten? Guk andiagoak. Badakizute sutegietako auspo aundiak nola fffffa fffffa putz egiten ari diran? Gure bularra ere goiz ta arratsalde alaxe egoten da. Goazen orain Barcelona-ko kaleak ikustera. Berelaxe beste *sotana* jantzita etorriko naiz».

Kalera urten ebenean, Simon erdian zala ioazan irurak. Simon, Zunzunegik emoniko zigarroa pozarren ela lotsarren erreten; Zunzunegi, *antifonak* eresten bailegoan, noizik noizera itaune bat edo beste euskaldun balfeuren ganean egiten; Andresa, *sochantre-dren* isilluneak berbaz birritan bete eziñik. Zunzunegik, nire ustez Simon berbetan ipintearren, lapurrakaz kontuan ibilteko esan eutsan. Da lapurreta baten iruzkiñak egiten egoala, gizon arlote batek sua eskatu eutsan Simon-i. Aurrera ioazan beste biak: isillik abadea, ema-

kumea Larrabetzu-ko Patakon lapurraren gertaera batzuk esaten. Abadeak iaramoten ezeutsala ikusirik, Andresak «*pregunta* bat egin bear deusat» esanda, itaune au egin eutsan:

cr launa: gorurik etedago Bartzelonan salgei? Simon-en *Izeoak* bat eroateko esan euskun, da agaitik diñot». Sochantreak algaraka ta estulka erantzun eutsan.

Bitartean Simon-ek, arloteari zigarroaz sua emonda gero, besteakanantz etorrela, txupilleko sakeletan eskua sartuta, erloio barik beren burua ikus ebanean, arrapaladan ioan zan bestearen atzetik eta saputzetik esku bategaz da besteagaz gorgoilletik oratuta, *erreia. erreia, erreia* esanaz, gizon konkortuaren orduari bat sakeletik atara 'ta gorde eban.

<xJauna: egia esan dau, lapurrik asko dago emen. Sua eskatu deustan gizonak erloioa ostu deust: eskerak neure anka ariñai ta eskuetako indarra emen daukat.

—¡E! esan eban Andresak.

—Amen dago.

—Irea eztok ori, neuk gorde ioat etxean-da».

Sochantreak goru-kizunak baiño bere barre-algara andiangoak egin ebazan.

Urrengo egunean Barcelona-ko albistari baten iragarri au gaztelarrez agertu zan:

ccBart gizon batek, nai ezebala, zidarrezko *erlaio* bat ostu eutsan beste bati. Iaubea datorrela billa ta erloioaren ganera ogerleko bat artuko dau atzoko ikarea kenduteko».

DIRU TA TXORI

✓i ARKOS edo Martin edo Martzelo edo beinik bein

Mar da geitxuago zan lenengoaren izena. Ogeta amar urtetik gora, Ama zaarrak izan ezik, beste ezaun guztiak Diru esaten eutsen. Gero esango dogu zegaitik. Gizon polita zan bera, arpegiz; txukuna, gorputzez; biguna, berbaz. Biotzez da arimaz da izatez barriz alper malmutz zakarra.

Ama lanik lan, euntegiko anezkea legez, ibilteko gauza zan artean, erara, beren erara bizi zan gure mutilla. Amari begiak lausotu, istarrak sortu ta besoak indargatu iakozanean, semea asi zan agertuten ordurarte ezkutuan eukazan alperri, malmuzkeri, zakarre-ri ta arimako beste berein eri.

Urte bete inguru Amak zelan edo alan burutu eban semearen esker txarra. Gero uriko gitzartegi edo *ospizio-ra* joan zan gaisoa. An edozek gogarazoten eutsan semea: gizon alperrak nai langilleak, ederrak nai ezaiñak; emakuma zaar nai gazteak, arranpaloak nai isillak. Batak semea, beren antzekoa etzalako, gogarazoten eutsan; besteak, surra edo ibilpidea edo arpegierea beren taiukoak eukazalako.

Semea birritan ioan zan Ama ikustera, gitzartegian egon zan bost urte luzeetan. Basatza ta zingirak bere eztira bakarrik bizi izaten, bada aizeak ekarririko or-

beien batzuk *eta* mutillak iaurtiriko arriak batuten iakez. Geure mutill au bere, urte bi zelanbait bakarrik igarota, ezkondu egin zan da erririk erri orrazi ta orratz da aizto edo gaiñibeta, artazi ta beste gauzatxu asko salduten ibilli zan aurrerantzean, bere emazte erdaldunagaz batera. Euskalduna ezetan ezirudian. Eulia neguan baiño inkakorrago egin zan; miñean *periodistak* luman baizen labantasun andia eukan; ondasun baiño ezizen geiagoren iaube egin eben Bizkai ta Gipuzkoako urietan. Kuku, Miin-laban, Lamertzeres (ezizen au Ondarroan ezarri bear izan eutsen, emazteagaitik *La Mercedes* esaten ebalako), *Peine jino* ta beste batzuk. Gure ustez Diru zan ezizenik ezaunena.

Esan daigun orain zetatik eldu zan Diru izatera. Bein itxas-uri baten egoala, eldu zan txori polit batzuk salgei ekazan gizon bat, egazti iaio balitz, mima gixtienez izango zana: beterrea, eztarri garrazduna, aiñenti utsa. Uriko kaltzadun geienak urreratu iakozan gizon oni beronen txori politikak ikustera.

Indiano bi zirean sarrien ioten iakozanak. Txori bat eukan begiz iota, baiña ez etxera eroateko (duarik izan balitz, bai) zer zan iakiteko baiño. Batak *sinsonte* zala ziñoan, besteak *maracaibo* zala. Ezbai onetatik urtetarren, urrengo eguneko *El Imparcial* albistaria nok erosi tematuta, urreratu zirean txoridunagana. Eurakaz batera ioan zan gure Diru.

Zelan daben izena itandu iakonean, *cuarenta reales* erantzun eban iaubeak. Bigarrenez indiano biak eskatu eutsen izena; ta iaubeak, salduta gero esango ebal, erantzun eutsen.

Orduan Diruk ogei erreal eskiñi eutsazan bera-gaitik: egin eben egiunea; *Ave del Paraíso* zala esan

eban txoridunak; indianoak beti legez osagillearen lepotik irakurri eben urrengo egunean *El Imparcial*, da guztiak pozik gelditu zirean.

((Ederra sartu dautsat, esaten eutsan gabaz Lamerzteres-ek La Mercedes-i; ogerleko guzurxezkoaren ordeztzori ederra Paraisokoa daukagu.)) Kaiolan sartu eban egaztia ta oeratu zan.

((Ederra sar^u neutsan» zirautsan urrengo egunean txoridunak beren buruari.

Goizean goizetik ioan zan Diru egaztia ikustera ta arrituta gelditu zan begiak ekusenagaz: txoria izpil barrik eta ura ori-urdindurik. Egaztia *Ave del Paraíso* izatetik birigarroa izatera iatsi zan.

Txoriduna ioan zan urrengo goizean, oi eban legez, paitarra artutera; atara eban ordaiñez Diru-ren ogerlekoa, ta dendariak guzurrezkoa zala esanda atzera emon eutsan diru ori.

Malmutz biak alkar ikusi ebenean, barre gogotik eginda, ona emen zer erabagi eben.

(dazoera onen gomutagarritzat bialdu daiguzan gure erosiok iagoken tokira, esan eban Diruk: mendira txoria, uretara dirua.

—Ederto esana. Botaik lenengo euk txoria ta gero iaurtiko ioat nik dirua.

—Goazan txori-billa:» esan eutsan Diruk emazteari kiñu eginda; ta ostaturako bidea artu eben.

Arik ordu bete barru batak iarein eban birigarroa ta besteak erreka-basterrera iaurti eban dirua.

Biak arduraz egon zirean dirua nora iausi etezan begira.

Ordu bi igaron baiño lenago txoridunak antxitu eban txoria ta erre kondora ioan zan diru-billa.

Orduko ebillen Diru arazo onetan. Besteak onen ondora eldu zanean, «Adiskidea, esan eutsan, neu nintzala uste naioan munduko malmutzik andiena; baiña nire bestekoa baaz i.

—¿Zer bada?

—¿Zer! Ik txoria ta dirua iaurtiteko esan doanean, «ederto datoz» neure barrurako esanda, onartu ioat ire eritxia. Ik ire barruan beste ainbeste esan izango dok. Ni, orregaitiño, ariñago ibilli nazalako txori iaubetu nok eta dirua nora iausi dan dakidalako eskuratuko ioat».

Iazoera au iakin zanean, itxas-uri atan dirudunari Diru ezarri eutsen ezizentza[^] txoridunari Txori.

Amabost egun geroago Txorik birigarroa barrero *Ave del Paraíso-turik* Bilbo-ko meagin baten etxean saldu eban; ta ogerlekoa ostatu baten artu eutsen.

GABONETAKO IPUIÑA

i

ME zurtz bi, neba-arrebatxuak, Zenon da Ana, urte beteko zaar gazteak, Amama makaltxa bategaz bizi zirean. Ume gaisoak ezer irabazteko etzirean gauza ta amamak beren azur zaarrak iaso eziñik ibilli bear izaten eban irurentzako utzurra etxeratuteko. Iai egun andietan mokotz gozo gozo bana erosten eutsen birlobailxuai. ¡Ikustekoa zan egun aretan ume zurtze[^]I poza! Txiki txiki ia garanduarte egiten eban bakotxak beren mokotza ta geldi geldi ian, luzaroago irautearren. «¡Gure Amama baiño onagorik!)) esaten eban alango pozaldietan.

Amamak otondo batzuk, amalaunatsu, urrengo egunerako gorde eragiten eutsezan, burubide au emonaz: «Ene maitetxuak, eztakigu zer ikusteko gagozan: dagoanean eztagoaneko ardurea artu bear da.))

Negute gogor baten otzak il-agiñik eukazan ume-zurlzak, bada Amamak egurra naikoa erosteko beste diru ezin irabazi eban. Kikil kikil da otzarren dart dart, lerdendu eziñik ekusazanean, amamak negar-malkoak betazalpean gordeta «Ene maitetxuak, esaten eutsen, otzago zan Jesus iaio-barritan, eskepe bateko lasto ezko-ganean egoan orduan.

Ta umeai Jesusegazko errukiak azar azoten eutsen euren txirotasuna.

II

Amamak Zenon da Ana-ri, poztu eragiteko, esaten eutsen ume onai Jesus-ek gabonetan zugatz ikusgarri bat ekarten eutsela: zugatz garauz da gozoz bete bete, oiñetako ederrak adarretatik dingilizka eukazana. Gabontea ezin esan-alako gogaz aurretiaz aotan artuten eben neba-arrebatxuak. Eldu zan urte atan bere, Abenduko Ilargiaren papoak ikusita, gabon-eguna. Ume biak oetik iagí-orduko «gaur dator» esanda, egun guztian amamari Jesus-en etorrerearen zertzeladak itanduten ibili zirean.

Etxe askotan ikusi zeikean gabon-zugatza bitxiz da gozoz ornidua. Zenon da Ana ain barik egozan gabeko orduetan bere. ((Amama, berreungarrenean esan eban Ana-k, Amamatxu ¿zegaitik eztator gurera Jesus? ¿Gu ezalgara onak?

—Enetxuak: gaur zeregin asko daukalako ezta etorriko Jesus. Datorren urtean zeuekana lenengo etorri ta burkada gozo ta bitxia ekarriko dautsue.»

Au entzunda, umeak azazkau ta urrengo urteari begira asi zirean.

III

Igaro zan urtea. Negu barria lena baiño bere gogoragoa zan. Atsoari lenez ganera gerria gogortu, anak sortu, azurrak astundu ta indar-apurrak arindu iakazan. Gabon-aurrean ondo-ezik oeratu zan, da umetxi bien artean euken bizirik: Zenon-ek zozpalak batu ta ogia ekarteko ardurea eukan, Ana-k zozpal arekaz sua ta ogiaz zukua egitekoa. Gabon-aurregunean amamak

da. Zumardi-erdi inguruan ume bat ikusi eben, alkon-dara utsean, ortozik, lanka-ganean lo. Errukiz urre urre tik begiratuta zirri egin eutsen, baiña etzan umea itzartu.

«¿Eroango dogu etxera, olzak ilgo dau bestela-ta?

—¿Nun lo egingo dau baiña?

—Neure oean: gaurkoagaitik aulki-ganean cZango naz ni.»

Au esanda oratu eutsan Zenon ek umetxuari ta bide zati baten ozta ozta baiño ezpazan bere eroan eban; Anak gero; ta alantxe txandaka eroan eben etxeragiño. Eurak ikusiia amamak aaztu ebazan beren naibageak, arritu zan da itandu eutsen birlobai nor zan ume a_n nundik ekarren da zelan elikatuko eben. Umeak erdizka ta mordizka esan eutsen amamari iazo iaken guztia. Ana urrengo egunerako gorderiko ogia ataraten asi zanean, amamak agiraka esan eutsan:

«¿Biar zer iateko?

—¿Biar? Zeuk bere sarri baru egiten dozu, ama; geuk bere biar baru.»

Negarretan ito iakozan amamari beren urrengo berbak. Ana sua egiten da ogia zatituten egoan-artean, Zenon-ek beren oelxuan sartu eban umea. Itzartu zan au ta asi zan zizibaza berbetan. Ezeutsan iñok ezer aditu. Ingelesa zan umea.

Arik ordu-laurenera andiki askoren gaberdiko Mezatan baiño pozago egozan zeruko aingeruak Lurreko iru aingerutxu arei begira. Lankan iezarrita Zenon (etxe atan ezegoan isillurik), beren altzoan iru urteko ingeleskumea, eurei aurrean belauniko koillarako zukuari puzka Ana, umetxuari aoan sartuteko.

Beste ordu-lauren barru guztiak egozan lo: Ana amamaren ondoan, ume galdua Zenon-en oean, Zenon lankaganean mantar-artean kizkortuta.

V

Zenonek eta Anak ames egin eben, ames bardintsua biak. Zeruko izar guztiak euren bizitokira etorri iakozan, izar-artean Jesus, eskuetan zugatz eder arigarri bat ebala ta aingerutaldaz inguraturik. Zugatz onen adar ta kimetatik orririk baiño bitxirik geiago egozan dingilizka: zaldia, andrakillak; ogi, arrautza, sagar da in-lxaurrez beteriko zimerak; eta amamarentzat diruz txil Ixil beteriko zorrotxu bat. Aingeruak asi zirean eresi ederrakaz Iesus gurtuten, esaten ebela: «Onelangotxu bat artu daianak, neu artu oi nau.»

Onetan aizeak leioari ots andi bat eraginda, itzartu zirean guztiak. Begiratu eben ume zurtzak alde guztietara ta etzan agiri ez zuoalzik, ez aingerurik, ez izamk, ezta Jesus bere. Alkarri amesak esanda gero, amamari eralgi, eutsezan biak zertzelada guztiakaz. Amamak orduan biozkaturik esan eutsen:

((Enetxuak ¿zer ikusteko zagoze? Ni enaz ezetarako gauza. ¿Nok elikatuko zabez zuek?

—Jesus-ek» erantzun eben bat batera ume gaisoak.

Itzartu zan beste umea. Asi zan berbetan, baiña ezeutsan etxekok ezer aditu al izan. Amamak auzoko emakuma bategana bialdu eban Ana, zer iazo iaken esatera. Emakuma au arik lastertxura agertu zan senar-emazte andiki-irudiko batzuk lagun ekazala.

VI

Ume galduaren gurasoak zirean senar-emazte arek. Gogoz da arretaz entzun eutsezan Zenon da Anari gabeko iazoera guztiak, amesa bere bai; (ta) eurak eskiñi iakezan aurrerantzean guraso-orde izateko. Erosi eutsen gabon-zugatz eder bat, zaldiz, andrakillaz, iakiz, bitxiz da zirneraz ondo ornidua; ta amamari diruzorro bat emon eutsen.

Gabonak igaroteko zemai daukazuen umeak: etzai-lezc egun onetan aaztu zer-ian da zegaz iolastu cztau-ken ume txiroakaz, da jesus ezta zuekaz aaztuko.

MIRARI BAT

W UTARMEAZ egindako zauri bat bernalzakian eukan (guda-gizon) agintari bat eldu zan oraintsu Ur-onak deritxon errira.

Berarizkotasun aparteko bat agertuten eban aintxiñako zauri zaarrak, beti arrak bertan egiten iakozalako. Ipiñi nituan neure iakituriari iagokazan alegin guztiak, beintzat gitxienez ar-toki a aienatuteko. Alperrik izan zan guztia, eta agintariak egun baten esan eustan:

—Osagilla launa, itxi daiogun osaketeari; gaixo ikaragarri onetxegaz ill bear dot.

—Egiaz, erantzun neutsan; berez-ganetikoa dago emen zerbait. Nik, zaarra naz, da nai ta gauza zurgarriak ikusi, baditut bere, onen antzekorik eztoz ikusi. ¿Non zauritu ziñan?

—Españian; baiña onezkero esan bear dausat zelan zauritu nintzan eta zegaitik osatuten etxatan.

Eta asi zan moLel-motel: «Españako mugetara «Egiuneak» bialduten eban guda gizadi batera deitu eustenean 1793-garrenean amazortzi urte neukazan, da urten neban Tomas da Prantzi eritxoene neure erriko beste lagun bigaz. Usadio zan legez guztiok egiten giñean sinizgatx, edo obeto esatearren siniz-bagako.

Pozkor egindako geure osberearen guenerantz eldu giñan, da egun baten Auñemendiko burgo edo baserri baten zear giñoazala ikusi genduan elizpe baten, an aretara egoanez gurtasun andikoa izan bear eban Mariaren irudi bat. Tomasek arrokeriz da baserritarren aurrean bere burua zerbaitekotzat eukitearren, geure sut-armak irudiaren ganera ustu ginaizala, esan euskun. Prantzik algara bategaz ontzat artu eban esana, eta nik, neure buruaz gogoraturik, euren asmoa aurrea eroatea galerazoteko apur baten erabagi baneban bere, lenengo desteiñara obendu nintzan. Tomasek bete eban sutarrea, iaurtigi ta sartu eutsan bala edo guda-goia Mariari buruan. Prantzik bere iaurtigi ta paparean (bularrean) sartu eutsan.

—Euri dagokik orain, esan eusten.

Ez nintzan azartu atzera egiten, ikara-ikara begi-Lxedatu., gura ez nebala begiak itxi ta iaurtigi neban, da alan bere (Mariaren) irudiaren bernatzakian io eban baleak.

—¿Bernatzakian? esan notsan.

—Zauria daukadan lekuan bcr-bertan, cla iarraitu eban.

Aur-eguneLako gure osteria ain pozkorra, guztiz illuna izan zan egun aretan, txitean-pitean ezta-baidatuten giñalako. Gau atantxe bat egin genduan guda-gizadiatz, da arik egun bira euki genduan lenengo sua, non sartu nintzan neure gogotik kendu barik Mariaren irudi az egin genduana.

—Alan bere, osterea ona izan zan; besteetatik Tomas asko zeindu zan, da suari isteko turuta io zanean, nondik urten eban iñok bere iakin ezin izan eban dundada batek ots egin eban, da Mariaren irudia bere

baleak zauritu eban lekuan bertan, Tomas zauritu ta luze iausi zan. Bera iasoteko oratu geuntsan Prantzik cla nik, begiratu geuntsan alkarri, eta nai ta mutik egin ezta bere, gelditu giñan geure lagun illotza bera baiño zurbilago.

Etzauntzan, neure alboan egoan Prantzi; unctxu baten bere ez eban lorik egin. Berba cgi-eidan itxaroten nengoan ni, arren batzuk egizan esateko, baiña ixilik egoan, da ni ez nintzan azartu bion artean iazoten zana esaten.

Urrengo goizean, indartuta, sendatuta arerioak ekin euskun amorru andiaz.

—Gaur neuri dagokit, esan eustan Prantzik. Dontsua zu txarto begitxedatu zcudualako.

Etzan guzurtau errukarria. Azpiratuak izan giñan; baiña esesteak gelditu bear ebanean, Prantzi ta ni zauri barik gengozala, azkenetan egoan Españiatar bategen dunbadea bota eban bide egal batetik, eta bularra baterik bestera igarota Prantzik io eban lurrera. ¡Ai launa, ze eriotzea! Iñauldurizka ebillen lurrean abade eske, baiña danak soñei gora egiten eutsen; eta are-rioa ganean etorkuna legez, bidean itxi bear izan zan, non ill zan arik lasterrena.

Une atatik siñistu neban zemaitua izango nintzala, eta erabagi neban neure oben edo pekatuen autormena egilea lenengo aurkitulen neban abadeaz. Zoritxarrean ez neban aurkitu; eta ainbeste su-aldi euki ezkeru, urten neban legez osorik eta agintari eginda, nire asmo onak aienatu ziran, da aaztu nintzan txar-egin edo legautsi, zemai ta damutasunaz. Baiña ¡ai ene! ots baten gogoratu bear iatan guztia.

Gudea amaitu zan; mugatik biurtu giñan, da Mariaren kontra geure txatxarkeria egin genduan burgo

Dei bitzuk edo irutzuk	127
Eliz-mutil bat	129
Iru Lohengrin.	131
Bisraarck-en iazoera bat	133
Guzurti guzurtaua	134
Astokílllo-ren gauzaak	137
Erri sinizkorrak	138
Igarla bat	142
Pareak bai	145
Aita- seme biren ipuiña	146
Berbaldun bat	151
ZuJogilllea	154
Dirua	156
Bizargintza batean.	162
Aita semeak	164
Egazti barritsu bat	168
Bi arlote	169
Jesukristo ta gudari zaarra	171
Agintariaren soiñekoak	173
Ispillua	177
Peru ta Maria	179
Zulo bakotxari jarakoa	191
Done Ageda aurreguneko iazoera bat	192
Monte Carlo-ko urrezko guzurra	193
Eztarri on bat	195
Zeinbat erri, ainbat ekandu.	196
Nok nori?	198
Eguzkitako alagalakoa	199
Katua bai ta katurik ez	200
Ipuin antzeko gertaera bat	203
Peter Andiaren jatorrizko gertaerak	205
Simon arteza	222
Diru ta txori.	234
Gabonetako ipuiña	238
Mirari bat	245